
E2020DSS ESTRATEGIAREN EGUNERATZEA

ONARTUTAKO DOKUMENTUA
Gizarte Kontseilua – 2017ko Uztailaren 3an

Donostiako Estrategia Bulegoa

AURKIBIDEA

1- SARRERA.....	3
2.- DONOSTIAKO ERREALITATEAREN AZTERKETA. ORAINA: DAUKAGUN HIRIA.....	4
DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA.....	5
2.1.- HIRIAREN ESPARRUA: PERTSONAK	7
2.2.- JARDUERA EKONOMIKOA, GARAPEN JASANGARRIRAKO BALDINTZA	21
2.3.- HEZKUNTZAKO, EZAGUTZA AURRERATUKO ETA BERRIKUNTZAKO SISTEMA.....	31
2.4.- HIRIKO BIZI-KALITATEA.....	38
2.5.- INGURUMENA ETA JASANGARRITASUNA.....	42
2.6.- LOTUTAKO GIZARTEA: MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA.....	46
3.- E2020DSS ESTRATEGIA EGUNERATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK....	50
4.- E2020DSS ESTRATEGIA EGUNERATZEKO PROPOSAMENA.....	53
4.1. SARRERA.....	53
4.2. IKUSPEGIA.....	53
4.3. IDEIA NAGUSIAK.....	54
4.3.1.- ETORKIZUNeko EKONOMIA.....	55
4.3.2.- GIZARTE-KOHESIOA.....	61
4.3.3.- INGURUMEN-ESTRATEGIA ETA KLIMA-ALDAKETA.....	64
4.3.4.- BIZI-KALITATEA.....	67
4.3.5.- EKINTZARAKO TRESNAK.....	72
5.- ERANSKINA.....	76
5.1.- PLAN ESTRATEGIKORAKO BATZORDEAREN OSAERA	76

1.- SARRERA

Plangintza estrategikoa ezinbesteko tresna da hiriak jarraitu beharreko lehentasunak eta lan-ildoak adostasunez identifikatu ahal izateko; etorkizunean izan nahi dugun Donostiarako bidean aurrera egiteko. Erronka nagusiei erantzun integrala emateko balio du, eta hiriaren egoera ezagutzetik abiatzen da etorkizuneko guztion hiriaren ikuspegi adostuaren alde lan egiteko. Ibilbide bat diseinatuko da ikuspegi hori lortzeko; hain zuzen, arlo sozial, kultural, ekonomiko eta instituzionaleko eragile publiko zein pribatuek partekatzen dutena.

Donostiako **Estrategia Bulegoa** arduratzen da hausnarketa-prozesu estrategikoa diseinatzeaz eta koordinatzeaz, hiriaren plan estrategikoak idazteaz eta horien inplementazioa sustatzeaz, monitorizatzeaz eta ebaluatzeaz. Era berean, inkubazio-lanak egiten ditu proiektu estrategiko batzuen kasuan, eta laguntza- eta/edo koordinazio-lanak beste batzuen kasuan. Hiriko gizarte-kontseiluarekin eta eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzen da, eta eragileen adostasuna eta konpromisoa bilatzen du ikuspegi eta estrategia komun baterako, norabide berean ahaleginak batzeko asmoz.

Hiriko gizarte-kontseiluak E2020DSS Estrategia plan estrategikoa onartu zuen 2010eko irailaren 22an Donostiako Udaleko osoko bilkuren aretoan egindako osoko bilkuran. Aurkezpen publikoa Victoria Eugenia antzokian egin zen, 2011ko urtarilaren 31n.

E2020DSS Estrategiaren eguneratze-prozesuan berariaz heldu zitzaion planari, **gizarte-kontseiluaren plan estrategikorako lan-batzordearekin** eta hiriko hainbat eragilerekin batera. Halaber, prozesu horrek hirirako indarrean dagoen estrategia berriro finkatzea dakar, azken urteotan indarra hartu duten erronkak lortzeko funtsezkoak diren estrategiaiei edo lan-ildoei lehentasuna emateko eta horiek sustatzeko.

E2020DSS Estrategian diseinatutako helburuak eta lan-ildoak alde batera utzi gabe, gai erabakigarrienei erantzuteko aurrerapausoak eman nahi ditu, eta, horretarako, garrantzi handiagoa duten alderdietan sakondu nahi du. Halaber, hiriaren etorkizunaren ikuspegi komuna lortze aldera, eragileen ahaleginak bideratzea bilatzen du.

Dokumentu honen helburua hausnarketaren giltzarriak biltzea da; hain zuzen, gaur egungo testuinguruaren erronkei heltzeko urratsak gidatu behar dituen hausnarketarenak, indarrean dagoen strategiaren ondorengo bi edo hiru urteetan.

2.- DONOSTIAKO ERREALITATEAREN AZTERKETA. ORAINA: DAUKAGUN HIRIA

Hiriaren gaur egungo errealitatea *Diagnosticoko estrategikoa* dokumentuan bilduta dago. Diagnosi horren oinarrian hainbat ikerketa edo dokumentu daude, eta hausnarketarako eta eztabaidarako tresna izan da etorkizuneko erronkak identifikatzeko prozesuan eta *E2020DSS Hiri-estrategia* egitean.

Atal honetan, **diagnostikoaren** fasean Donostiako egoerari buruz landutako **ideia nagusiak** laburtuko dira. Diagnostiko horretan, hiriaren adierazle nagusietan oinarrituz, hiriaren egoera, bilakaera eta garapena aztertuko dira, eta indargune eta ahulguneak adieraziko dira, baita etorkizunerako hautematen diren aukerak eta arriskuak ere. Horixe da hiriaren estrategiak berriz definitzeko eta eguneratzeko oinarria eta, “nahi dugun hiriaren” baterako ikuspegia eraikitzen laguntzeaz gain, ingurune globaleko *Aldaketa-joeren azterketa* ere biltzen du.

Diagnosticoa eguneratzea hiriaren estrategiak definitzeko eta eguneratzeko oinarria da, eta, gainera, orain dagokigun *Estrategiaren eguneratze* sortutako lan-ildoak eta proiektuak lehenesteko prozesurako abiapuntua izan da. Orobat, laster abiaraziko den *2030 Estrategia* lantzeko prozesuaren hausnarketa-elementuetako bat izango da eguneraketa hori.



DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA

Aurkezten dugun diagnostikoa “*Donostia Diagnostiko Estrategikoa*” dokumentu espezifikoa bildutako ondorio nagusien laburbilketa da. Dokumentua 2008. urtearen amaieraren eta 2009. urteko lehen hiruhilekoaren artean egin zen. Bere garaian aurkeztu zen, eta plan estrategikoaren batzorde delegatuak eta hiriko gizarte-kontseiluak behar bezala baliozkotu zuten. Dokumentuaren laburpena 2010eko udaberrian eguneratu zen. Aldi berean, hiriko sektoreen erradiografian sakondu zen, lantaldeetan egindako lanaren bidez.

E2020DSS Estrategiaren eguneratzearen esparruan egindako eguneraketarako, kontuan hartu da, beste elementu batzuen artean, *DSSko Tokiko Inklusio Planerako* *Inklusioaren Arloko Beharrei buruzko Diagnostikoa* egitean bildutako informazioa, baita udaleko sailen eta erakundeen dokumentuak ere; horien artean *Iraunkortasunari buruzko Urteko Txostena* baita udaleko sailen eta erakundeen dokumentuak ere; horien artean *iraunkortasunari buruzko Urteko Txostena* (Cristina enea fundazioa) zein *Hiri Ekonomiaren Barometroa* (Donostia Sustapena) nabarmentzen dira¹.

Esan behar da diagnostiko estrategikoa “biztanleen bizi-kalitatea” helburu duen hiri baten ikuspuntutik orientatzen dela. Hauexek dira kontuan hartzeko moduko alderdi aipagarri batzuk:

- *Donostiako biztanleen **egungo bizi-kalitatea** eta, bereziki, biztanleen **etorkizuneko bizi-kalitatea**.*
- ***Pertsona guztientzako** hiria, hau da: anitza eta **inklusiboa** (“lagunkoia”, adin, sexu, jatorri, auzo, errenta-maila eta abarren arabera bereizten ez duena), **kohesionatua** (kapital soziala, balioak, sareak, lurralde eta auzoen arteko oreka eta antolaketa, berdintasuna, ongizatea...) eta **jasangarria** (ingurumena eta energia, gizarte eta berdintasuna, hezkuntza, ekonomia eta berrikuntza, ezagutza).*

¹Dokumentu osorako erabilitako estatistika-iturri nagusiak: Donostiako Udala (hainbat sail eta mendeko erakunde, eta, bereziki, Donostiako Sustapena eta Donostiako Estrategia Bulegoa), EUSTAT, EIN, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Innobasque Sareko eragileak, besteak beste. Gaineratu beharra dago, orobat, eguneratutako datu ofizialen desagregazio-mailan dauden mugek (adibidez, generoaren arabera, auzokako begirada eta abar.) baldintzatu egiten dituztela diagnostiko honetan bildutako informazioa zein bertan jasotako gogoetak. *2030DSS Estrategiarako* zabaltzen den gogoeta estrategikorako prozesuaren barruan kontraste kualitatiboa ere badago jasota, diagnostiko “kuantitatiboa”ren informazioa lantaldeen adituen kontraste eta ekarpenekin osatzearen.

- **Erresilientea**, etorkizuneko erronkei aurrea hartzen saiatzen dena, gerta daitezkeen krisiak edo gertaera disruptiboak **saihesteko**, horietara **moldatzeko** eta horietatik ahalik eta hoberen eta azkarren **leheneratzeko**.
- **Kulturadun hiria, ezagutzaren inguruko jakin-nahia** duena, hiriaren alde **zuhertasunez lankidetzan** aritzeko gai dena (ezagutza, euskara, kultura, sormena, jarduera berritzaileak, aukerak ekar ditzaketen sektoreak, teknologiak, IKTak...). Hain zuzen, modu jasangarrian (demografia, ekintzailatza, partaidetza, kultura, aisia, natura...) **bizitzeko eta lan egiteko** (eta, hortaz, **bisitatzeko eta pertsona gisa “hazteko”**) **erakargarritasuna** berriro eta eguneratzen duen hiri baten alde lankidetzan aritzeko gai dena.
- Eta, hortaz, hirien (pertsona, enpresa, administrazio, unibertsitate, kultura- eta ezagutza-zentro, ekitaldi, eta abar) **sareetan** (hurbileko nahiz urruneko), **sartuta (lotuta)** dagoena, eta hiri barneko zein nazioarteko **loturak** dituen.

2.1.- HIRIAREN ESPARRUA: PERTSONAK

DEMOGRAFIA

Donostiak **hazkunde demografiko** iraunkorra izan du XX. mendean. Hazkunde handiagoa izan zen 50eko eta 60ko hamarkadetan, boom demografikoarekin eta garapen ekonomiko handi batekin batera gertatu zelako (industria-garapeneko eremu nagusien eta penintsulako migrazio-fluxuen helmuga nagusien artean finkatu ziren Gipuzkoa eta, oro har, EAE). 70eko hamarkada inflexio-puntu izan zen prozesu horretan, biztanleriak nabarmen egin baitzuen behera.

80ko hamarkadako suspertze demografikoaren ondoren, biztanleriak behera egin zuen (1991ko erroldan ikus daiteke), eta 90eko hamarkadan beste hazkunde demografiko bat jazo zen. Hazkundeak neurritz jarraitu zuen milurteko berrian sartu ginenean, eta arian-arian txikitu zen 2013. urtera arte. Hain zuzen, urte horretan beste inflexio bat ikusi zen bilakaera demografikoan, eta azken urteetan beherakada arina egon da. Donostiako (DSS) biztanleria 186.095 biztanlera iritsi zen 2016ko urtarrilean.



Amatasunaren² atzerapen progresiboa eta **ondorengoen kopuruaren beherakada** (gero eta nabarmenagoak dira familia eta lana bateratzeko zailtasunak) fenomeno hedatuak dira euskal gizartean, mendebaldeko gizarte-ereduaren erakusgarri. Halaber, hiriaren bilakaera begetatibo kaltegarriari bide ematen diote (–% 2,71 2015ean, –% 3,90 Bilbon eta –% 1,2 EAEn batez beste).

Bestalde, Donostiako biztanleria ere **zahartuz** doa pixkanaka³: 2015ean 45,3 urte zen batez besteko adina; bostetik batek 65 urte edo gehiago zituen eta hogeita bostetik batek (% 3,88 2015ean eta % 2,55 10 urte lehenago), emakumeen artean batik bat, 85 urte edo gehiago zituen (85 urte edo gehiagoko lau pertsonatik 3 emakumeak dira).


² Euskadiko ugalkortasunaren indize sintetikoa 2,67tik (1975/76) 1,33ra jaitsi zen 2010/11n, eta, era berean, denbora-tarte horretan, 28,6 urtetik 32,4 urtera igo zen amatasunaren batez besteko adina.

³ Jaiotzen kopurua pixkanaka txikitzearen eta Donostiako biztanleen bizi-itxaropena handitzearen ondorioz gertatu da hala.

Adin talde handien arabera egiturak haxe erakusten du: 65 urtetik gorako biztanleen ehunekoa 1981ean % 12 izatetik 2016an % 22,86 izatera igaro da, eta 20 urtetik beherako biztanleen ehunekoa 1981ean % 21,9 izatetik 2015ean % 17,1 izatera igaro da (Eustat, 2016).

Piramide demografikoak grafikoki erakusten ditu zahartze demografiko progresiboa eta adin handieneko taldeen bizitza-luzera.

Auzoka, Gros, Erdialdea eta Landarbaso auzoek dute biztanleen zahartze-tasa handiena; zahartze-tasa txikiena, aldiz, Aiete, Ibaeta, Miramon, Martutene, Zubietta, Igeldo eta Intxaurren auzoek agertzen dute (ordena horretan).



Ezaugarri demografiko adierazgarrien artean, nabarmendu dezakegu Donostiako jaiotza-tasa progresiboki txikitu dela azken hamarkadetan (2008an % 9,9 izatetik 2015ean % 8,07 izatera); era berean, EAEn ere antzera txikitu da (1975ean % 19,1 izatetik 2015ean % 8,7 izatera). Horrek esan nahi du 28 herrialdeen Europar Batasunaren (EB28) tasaren azpitik dagoela (% 10 2015ean).

Bestalde, bizi-itxaropena progresiboki handitu da. 2010ean, EAEn, gizonek 78,9 urteko eta emakumeek 85,4 urteko bizi-itxaropena zuten. Kopuru horiek eta estatukoak antzekoak dira, eta, hain zuzen, munduko altuenetakoak dira (Espainian, 2010ean, 79,2 eta 85,5 urteko bizi-itxaropena zuten gizonek eta emakumeek⁴, hurrenez hurren; EB27ren batezbestekoa, aldiz, 76,9 eta 82,6 urtekoa zen, hurrenez hurren).


Horren guztiaren ondorio dira mendekotasun-indize hauek⁵: % 56,48koa 2003an, % 59,67koa 2010ean eta % 66,73koa 2016an; hau da, gainerako euskal hiriburuena eta EAEko batez bestekoa (% 65,76) baino altuagoak.

Zahartze demografikoak garrantzi handiko ondorio sozioekonomikoak iragartzen ditu ongizate-sisteman eta pentsio-sisteman, eta gizarte- eta laguntza-zerbitzuen eskaria handiagoa izango da osasun-arloari dagokionez. Gainera, eragina izango du, besteak beste, lan-merkatuan, familietan eta aisian, bizilekuen eskarian eta ikerkuntzan.

DSSn 186.000 inguru biztanle daude, 140tik gora lurraldetakoak. Erdia baino gehiago (% 68) Donostian jaioa da. Lautik ia hiru Euskadikoak dira.


⁴ 1910ean, gizonek 40,9 urteko bizi-itxaropena zuten Espainian, eta emakumeek 42,6 urtekoa.

⁵ Mendekotasun-tasa ($\text{bizi} < 15 + \text{bizi} > 65$) / ($\text{bizi} 15-64$) * 100).




Donostiako biztanleen beste ezaugarri garrantzitsu bat biztanle atzerritarren hazkundera da. Beste hiri eta lurralde batzuen ehunekoa baino txikiagoa bada ere, krisiak moteldutako hazkunde-aldi bizia izan du. **Biztanle etorkinen kopurua** biztanleria osoaren % 1,7 zen 2001ean, eta % 9,5 izatera heldu zen 2015ean (2015ko urtarrilean, 17.742 atzerritar zeuden

errolatua, eta, generoari dagokionez, % 46,09 gizonak ziren eta % 53,91 emakumeak, EIN, *Biztanleen errolak*).



Hiri honetan bizitzea erabaki duten atzerritarrek jatorri hauek dituzte nagusiki: Amerika (% 46,7) eta Europar Batasuna (% 25,8). Hala ere, Afrikatik (% 11), Europako beste leku batzuetatik (% 7) eta Asiatik (% 9) ere badatoz. Hortaz, migrazio-prozesu hau, neurri handi batean, Europar Batasunekoak ez diren biztanleek osatzen dute (2016an, Donostian errolatutako etorkinen % 74 EBtik kanpokoak zen; Bilbon eta Gasteizen % 75 eta % 86 ziren, hurrenez hurren). Biztanle nahiko gazteak dira; izan ere, 33,8 urteko adina dute batez beste.

Auzoka erreparatze n badiogu, ikusiko dugu Erdialdeak, Grosek, Amara Berrik eta Egiak dituztela biztanle atzerritarren ehuneko handienak, Donostiako batez bestekoa baino handiagoak. Europar Batasunekoak ez diren atzerritar biztanleen kasuan, Erdialdeak, Amara Berrik, Grosek, Egiak eta Loiolak dituzte tasa handienak (% >5), DSSko batez bestekoa baino handiagoak.



Bestalde, esan behar da DSSn bizi diren atzerritar biztanleen bosten batek (2.637 pertsona) gutxienez hiru urte daramala EAEn bizitzen. Halaber, zenbatetsi da EAEko biztanle etorkinen % 13k ez duela bizileku-txartelik edo -baimenik (1.600 pertsona inguru DSSn, Estrategia Bulegoaren arabera, *DSSko Inklusio Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, 2016).

PRESTAKUNTZA, GIZARTEA ETA BALIO PARTEKATUAK


Ondorioztatu daiteke Donostiako gizartea, oro har, anitza, nahiko parte-hartzailea eta solidarioa eta prestatua dela, eta ingurumenaren eta kulturaren alderdietan interesa duela. Horrez gainera, biztanleei jakin-mina pizten diete kulturak eta kirolak, eta euren hiriaz harro eta, bere neurrian, bizi-kalitatearekin pozik daude:

Prestakuntza-maila handia du: 2015ean, 10 urtetik gorakoen % 34k zituen unibertsitate-ikasketak (1996an, ehuneko hori % 17,3 zen, eta, 2006an, ia % 25). Ehuneko horrek lasai gaintitzen ditu Bilboko eta Gasteizko kopuruak (% 28,8 eta % 24,4, hurrenez hurren), eta Europako eta estatuko batez bestekoa baino handiagoa da.

Generoen araberrako begiradak erakusten duenez (Gipuzkoa osorako datuak, *EUSTAT 2015*), lanbide-ikasketetan izan ezik (horrelakoetan % 60,8 gizonak eta % 39,2 emakumeak dira), prestakuntza-estratu bakoitzeko gizonen eta emakumeen arteko proportzioan emakumeak dira nagusi; bereziki nabarmentzekoa da prestakuntza-mailaren bi muturretan dagoena, hau da, biztanle analfabeto edo ikasketarik gabekoetan (emakumeen ehunekoa % 63,3 da, EAEko batezbestekoa –% 65,2– baino txikiagoa, halere) eta unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen artean (ehuneko hori % 58ra iristen da, EAE osokoa –% 57,3– baino handixeagoa, beraz).

Donostiako biztanle gazteei erreparatuta (30-34 urte), goi-mailako ikasketak amaitu dituztenen ehunekoa (% 64,7 2014an) gainerako euskal hiriburuena eta EAEko batez bestekoa baino handiagoa da. Halaber, nota onarekin gaintitzen ditu *Europako 2020rako Estrategiaren* helburuak, bai goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen kopuruari dagokionez bai prestakuntza-zikloen uzte goiztiarra sailhesteari dagokionez⁶

DONOSTIAKO IKASKETA-MAILA, 2014




⁶ *Europako 2020rako Estrategiaren* hezkuntzaren arloko helburuen adierazleak. Arlo horretan honako hau lortu nahi da: alde batetik, gutxienez 30 eta 34 urte arteko pertsonen % 40k (Espainiaren kasuan, % 44k) hirugarren mailako ikasketak bukatzea data horretarako; bestetik, eskola-uzte goiztiarraren tasak (18 eta 24 urteko biztanleen artean) % 10etik behera mantentzea (Espainiaren kasuan, % 15era igotzen da helburu hori; Euskadira berariazko helburua, ordea, % 8,6tik behera mantentzea da).

Horren harira, zenbatetsi da ezen 2011n % 6,3 hiru zela 18tik 24ra arteko biztanleen eskola-uzte goiztiarraren tasa Don ostia osoan. Auzoka erreparatzen badiogu, ehuneko hauen artean dabil tasa: % 12,5 Loiolan eta % 1,2 Añorgan (Loiola, Intxaurren, Martutene, Altza, Gros, Mirakruz eta Egia auzoket hiriko batez besteko tasa gaitzen dute).

Gainera, esan behar da Donostiako 20 eta 24 arteko bost biztanletik lauk bigarren mailako ikasketak gaitu dituela, eta tasa hori (% 78,0 EAE osoan) nabarmen handiagoa dela Espainiako batez bestekoaren aldean (% 60).



Bestalde, **euskararen ezagutza eta erabilera** aurrera doan biztanleria da. Hauxe zen euskara-mailaren arabera 2011n (Eustat, 2016): % 40,6 euskaldunak, % 28,6 ia-euskaldunak eta % 30,8 erdaldunak. Horrek agerian uzten du ezen euskara, arian-arian, Donostiako gizartearen sartzen ari dela (biztanle euskaldunak 1991an % 27,1 izatetik 2001ean % 34,7 izatera igaro dira), eta nabarmendu behar da biztanle gazteen (5 eta 19 urte artekoak) % 78k "ondo ulertu eta hitz egiten" duela euskara. 2 eta 19 urte arteko biztanleen artean, euskaldunen eta ia-euskaldunen ehunekoa % 93 da; hala ere, euskarak presentzia txikiagoa du etxeetan (etxean hitz egiten den hizkuntza); izan ere, gaztelania hitz egiten da gehienbat.



Herritarren partaidetzari dagokionez eta eskuragarri dagoen tokiko informazioaren arabera, adierazi behar da ezen, herritarren partaidetza politikoaren esparruan, 2015eko udal-hauteskundeetan % 66,7 izan zela partaidetza; hots, EAEko batez bestekoa (% 63,8) eta gainerako euskal hiriburuetakoa baino handiagoa (% 59,3 eta % 64,8, hurrenez hurren). Partaidetzaren ehunekoak gorabeherak izan ditu azken hamarkadan (% 66,5 2003an, % 54,9 2007an, % 60 2011n eta % 66,7 2015ean), eta apur bat handitu da azken hiru udal-hauteskundeetan.

Kirol txartelaren harpidetza kopurua (2008an 39.137 izatetik 2015ean 48.453 izatera igaro da) edo Donostia Kulturaren erabiltzaileen (bazkideak) kopurua handitzea (2008an 53.399 izatetik 2015ean 90.125 izatera igaro da) Donostiako biztanleek hiriaren bizitza sozialean eta kulturean duten partaidetzaren adierazletzat jo daitezke.

Herritarrek elkertasuneko jokabideekin duten konpromisoa, batez ere, neurri batean zein bestean laguntzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeen bidez ikus daiteke; izan ere, herritarren hamarren batek ematen die laguntza. Herritarren zati handi batek beste asoziazionismo mota batzuetan parte hartzen du, hala nola gastronomiarekin, kulturarekin, kirolarekin edo lanbidearekin lotutako elkarteetan. Donostiako udal-erregistroan izena eman duten elkarten kopurua progresiboki eta nabarmen hazi da ($\Delta\%$ 39,6 2001-2010 aldian), eta, 2017an⁷, biztanleen % 5,95 izatera iritsi da (biztanleen % 4,6 zen 2010ean).

Donostiako **herritarren pertzepzioari** begiratzen badiogu, ikus dezakegu herritar gehienak pozik daudela euren hiriarekin: Hiriaren erakargarritasuna, garraio publikoa, eskaintza kulturala eta segurtasuna dira gehien balioetsitako alderdiak (Donostiako Estrategia Bulegoa. *Herritarren pertzepzioari buruzko inkesta*, 2008). Oro har, herritarrek gizartearekiko konpromisoa adierazten dute, baina, era berean, jarrera anibalentea erakusten dute biztanle atzeritarrekiko, inguruko hiriekin alderatuz gero pertzepzioa hobea eta espazioen segregazio txikia izan arren. Hala ere, aipatu behar da mesfidantza dagoela norberaren eta familiaren segurtasuna galdu delako eta “ongizate-estatua” narriatu delako.

Bestalde, Donostiako herritarren ustez, hiriak izaera ekintzailea du: halaxe adierazi dute hiru herritarretik bik. Izan ere, sei biztanletik batek (16 eta 60 urte artekoak) datozen bost urteetan negozio bat garatzeko edo abian jartzeko asmoa du. Ekimen horiek, batez ere, zerbitzuen arlokoak dira, nagusiki merkataritzakoak eta ostalaritzakoak (Donostiako Sustapena. 2007ko *Innbarometro Soziala*). Hala ere, donostiarrentzat administrazio publikoko enplegua da lanbide-aukera nagusia, negozio bat garatzearen aurretik edo sektore pribatuan soldatapeko lan-jarduera izatearen aurretik.

2008an, herritarren arazo edo kezka nagusiak honako hauekin lotuta zeuden: lan-merkatuarekin (langabezia, pertsona guztientzako enplegu duina,...) eta etxebizitzarekin (eskuragarria-zentzuzko prezioan, etxegabetzeak,...); baita, hein txikiagoan, egoera ekonomikoarekin ere (garestitzea, zailtasunak,...); urrunago, indarkeria, terrorismoa eta egoera politikoa, eta euskal gatazka daude. 2016an, lan-merkatuarekin lotutako gaiak ziren (enplegu duina, pertsona guztientzakoak,...) euskal herritar guztien arazo/kezka nagusiak, alde handiarekin, eta, aipatutako gainerako arazo/kezken artean, neurri askoz ere txikiagoan, ekonomia, ustelkeria eta iruzurra, immigrazioa, etab. zeuden (Eusko Jaurlaritza. 61. *Euskal Soziometroa*, 2016 eta *Ikuspegi Barometroa*, 2016).

Euskal gizarte osoak 2015ean atzerriko immigrazioarekin loturan zituen pertzepzio eta jarreraren kasu zehatzari dagokionez, jarrera anibalente samarrak hauteman dira; izan ere, *Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera* (*Ikuspegi*, 2015), euskal biztanleriaren % 37,1 tolerantzat jo daiteke immigrazioari dagokionez, baina % 21,8 uzkur da hori onartzeko. Lan- eta ekonomia-esparruetan dago etorkinekiko kezka handiena (% 54,9k uste du atzeritarrek egoteak langabezia handitzen duela). Laguntza sozialen sarbideari

⁷ Guk geuk egina, Donostiako elkarten udal-erregistroko datuetan oinarrituta (udalaren web-orria 2017/03/22an kontsultatu zen).


eta osasun-arretari dagokienez (% 55,7 eta 42,3, hurrenez hurren), biztanleek uste dute etorkin gehiago heltzen badira ospitaleetan gehiago itxaron beharko dela eta zailtasun handiagoak egongo direla laguntza sozialak lortzeko.

GIZARTEA: GIZARTEAREN KOHESIOA/ESKARIAK

Donostiako etxeen **errenta** euskal hiriburuen⁸ artean handiena da, baita estatuko handienetakoa ere. Donostiako familien aberastasun-maila nabarmen handitu zen krisiaren ondorioen aurreko urteetan: 2001etik 2009ra artean, batez besteko familia-errentaren hazkundea $\Delta\%$ 44,9ra iritsi zen (49.539 €), eta denboraldi berean are handiagoa izan zen errenta pertsonalaren hazkundea, $\Delta\%$ 54,8koa, zehazki (23.054 €). Familia-errentak beherakada izan zuen hurrengo urteetan ($-\Delta\%$ 7,2, 2009-2013), eta batezbestekoa 45.987 € zen 2013an (EAEen baino handiagoa, batezbestekoa 40.179 € baitzen).

Hala ere, nabarmentzekoak da desoreka handiak daudela. Lehenik eta behin, generoaren arabera errenta pertsonalaren desorekari dagokionez, esan behar da emakumeen batez besteko errenta pertsonala 18.176 € zela 2013an, eta gizonena, aldiz, 27.065 € (genero-desparekotasunaren indizea⁹ 2009an 62,7 izatetik 2013an 67,2 izatera igaro da; hau da, handitu egin da). Gainera, batez besteko familia-errentari dagokionez, egiaztatu da desberdintasun handiak daudela

DONOSTIA, BATEZ BESTEKO FAMILIA-ERRENTA



auzo batetik bestera. Auzo aberatsenaren errenta (Miramon-Zorroaga) errenta txikiaren auzoarena (Altza) baino 2,5 aldiz handiagoa da, eta zazpi auzok udalerriko batez bestekoa baino errenta txikiagoak dituzte (Añorga, Intxaurrondo, Egia, Loiola, Mirakruz-Bidebieta, Martutene eta Altza). Lau auzok hiriko batez besteko familia-errenta baino % 20 handiagoa dute (Miramon-Zorroaga, Aiete, Antigua eta Ibaeta) Errenten mailak ekialde eta mendebalde artean zatiketa dagoela erakusten du.

⁸ EAE=100 oinarritzat hartuta, Donostiako 2014ko errenta pertsonala 116,5 izan zen; Bilbokoa eta Gasteizkoa, aldiz, 101,97 eta 100,9, hurrenez hurren.

⁹ Genero-desparekotasunaren indizea=emakumeen batez besteko errenta pertsonala*100/gizonen batez besteko errenta pertsonala.

Desparekotasun-egoeretan sakonduta, eskuragarri dauden datuetatik abiatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkestaren arabera* (GPGBI, 2014), zera gaineratu behar da: zenbatesten denez, Donostiako biztanleen % 4,5 gutxienez (8.375 pertsona inguru¹⁰) **pobrezia-egoera larrian** dago (hau da, haien errenta garbi baliokidea pertsonen kontsumo-unitateko tarteko errenta baliokidearen % 40 baino txikiagoa da; horrek esan nahi du 568,3 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztela). Diru-sarrera txikiko egoerek (**pobrezia erlatiboaren** arrisku-tasa; errenta garbi baliokidea pertsonen kontsumo-unitateko tarteko errenta baliokidearen % 60 baino txikiagoa da; hau da hilean 852 € baino gutxiagoko diru-sarrerak) biztanleen % 10,7ri eragiten diote (19.915 pertsona inguru). Bi egoeretan, ukitutako biztanleen tasak Gipuzkoa osoarenak baino txikiagoak dira (15,6 eta 5,4, hurrenez hurren).

Talde ahulenen karakterizazioaren arabera (*Donostiako Inklusio Sozialaren Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa*, 2016), kalkulatzeko biztanle atzeritarrak daudela pobrezia-erregio ahulezia bereziko egoeran (pobrezia larria 6,2 handiagoa da talde horretan). Halaber, haurrek pobrezia-egoera horretan sartzeko arrisku handiagoa dute (intzidentzia 1,6 aldiz handiagoa da), baita emakumeek edo 45 urte baino gutxiagoko kideak buru dituzten familiek ere (biztanleria osoarekin alderatuz gero, 1,24 eta 1,68 aldiz gehiago, hurrenez hurren). Etxearen osaeraren ikuspegitik, pobrezia larriak guraso bakarreko familien etxeen % 7,9ri eragiten dio, biztanleria osoaren familien % 5,4ren aldean.

Enplegua garrantzi handiko euskarria da kohesiorako. Inklusiorako bidean, eta enplegua izateak pobrezia-arriskua behin betirako urruntzen ez duen arren, enplegurik ez izateak ahulezia ekonomikoa eta pobreziarako eta gizarte-bazterketarako arriskuak larriagotzen ditu. Langabeziak gehiago eragiten die talde ahulenei (krisiaren ondorio gehiago jasan dituztela ere egiaztatu da)¹¹ eta langabeek pobrezia-tasa handiagoak dituzte biztanleria osoarekin alderatuz gero (pobrezia-egoera larrian dago lan egiteko adinean eta enpleguarekin lan egiteko moduan dagoen inor ez duten etxeetako pertsonen % 40,2). Hala ere, biztanle langileen % 6,2 dago pobrezia erlatiboko egoeran (2014), eta eragin handiagoa du lanaldi partzialeko langileengan (pobreen artean, lanaldi partzialeko enpleguaren tasa % 33,8 da; biztanleria osoaren artean, aldiz, % 14,4).

¹⁰ Datu horiek kontuz erabili behar dira; izan ere, GPGBI ez da adierazgarria udal-mailan, eta eskala horretan egindako datuen azterketak lagin-errore handia izan dezake.

¹¹ Guraso bakarreko familiak (emakumea), Europar Batasunekoak ez diren etorkin ez-kalifikatuak, diru-sarrera txikiak (eta desgaitasun handia) dituzten adinekoak, eta desgaitasunen bat duten pertsonak (arreta berezia nahasmendu mentala dutenei).

lido berean, pobreziarako eta gizarte-bazterketarako arriskuan dauden biztanleen tasak (**Arope adierazlea**¹²,) testuinguruan kokatzen du Donostiako egoera, Europako 2020rako Estrategiaren pobrezia eta gizarte-bazterketaren kontrako borrokako helburu sozialaren esparruari dagokionez. Hauexek dira 2014rako batez besteko balioak: % 24,5 EB28 osorako, % 29,2 estaturako, % 22,7 EAerako, % 19,5 Gipuzkoarako eta, zenbatetsitakoaren arabera, % 10,1 Donostiarako. 2016ko *Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunen Inkestan* (PGEI) bildutako azken kopuruek aditzera ematen dute Euskal Autonomiako Arope tasa % 20,6ra jaitsi zela 2016an, 2008an % 17,9 izatetik 2014an % 22,7 izateraino handitu eta gero].


Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzen duten onuradunen tasa (1.000 biztanleko) progresiboki handitu da azken hamarkadetan. 2003an % 7,75 zen hiri osorako tasa (Bilboko % 21,6ko eta Gasteizko % 11,2ko tasak baino nabarmen txikiagoa da, bestalde), eta 2015ean % 20,7ra iritsi zen (% 46,9 eta % 32,1 Bilbon eta Gasteizen, hurrenez hurren).

Hala ere, pobrezia-tasa horiek ez dituzte islatzen esparru ekonomikoko ahuleziarekin edo bazterketa-arriskuarekin lotutako egoera guztiak. Diru-sarrerak bermatzeko sistemak pobrezia saihesten laguntzen die errenta hori jasotzen duten pertsona edo familia batzuei; hain zuzen, Donostiako biztanleen % 3,4k (6.361 pertsona) behar du DBEa bizitzeko (hau da, hiriko etxeen % 5,2k). Era berean, laguntza horiek jasotzen dituzten pertsona edo familia batzuek bizitzeko behar dituzte, kontuan hartutako adierazleen arabera pobrezia-egoera larrian egon ez arren. Aipatu behar da egoera horiek kronifikazio handia dutela; izan ere, Donostiako etxeen % 2,5 diru-sarrera gutxiko egoera iraunkorrean dago, eta duela 3 hiru urte edo gehiago jasotzen dute DBEa (laguntza jasotzen duten etxe guztien % 48,7 dira). Gaineratu behar da, halaber, GPGBIren estimazioen arabera Gipuzkoan pobrezia-egoera larrian dauden etxeen % 25ek ez duela DBErik jasotzen, hainbat egoera tarteko.

2014Era berean, Donostian DBEa jasotzen duten pertsonen karakterizazioak agerira ekarri du adin txikikoak ardurapean dituzten Donostiako etxeen % 5,5ek diru-sarrera txikiak dituela, eta guraso bakarreko etxeen % 28,3k ere diru-sarrera txikiak dituela. Lurralde-mailan, auzoei erreparatuz gero, desberdintasunak ikus daitezke DBEa jasotzen duten etxeei dagokionez. Intzidentzia handiagoa da hiriaren ekialdean (Donostiako batez bestekoa baino % 20 handiagoa da, gutxienez, Intxaurren, Mirakruz-Bidebieta, Altza eta Miramon-Zorroaga auzoetan). Diru-sarrera gutxiko egoera iraunkorrek gehiago dira Ategorrieta (% 53,7), Gros (% 52,4) edo Loiola (% 51) auzoetan.


¹² AROPE adierazleak, pobrezia-arriskuko egoerez gain (tarteko balioaren % 60), barne hartzen du laneko intentsitate txikiaren eta oinarritzko zenbait ondasun edo zerbitzu erabiltzeko aukerarik ezaren eragina ere.

DBEa JASOTZEN DUTEN ETXEEN TASA 2015



Iturria: EUSTAT, Donostiako Estrategia Bulegoak egina. Donostiako Inklusio Sozialaren Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa.

DONOSTIAN DSBEa JASOTZEN DUTEN ETXEEN % (2015-IX)



Iturria: Lantide eta errolda. Donostiako Estrategia Bulegoak egina. Donostiako Inklusio Sozialaren Planerako Beharrei buruzko Diagnostikoa.

Ikus daiteke zuzeneko lotura dagoela batez besteko familia-errentaren (horren lurralde-banaketa) eta DBEa jasotzen duten biztanleen tasaren artean. Oro har, eta laginaren adierazgarritasunaren baldintzatzaileengatik neurriak hartu ondoren, auzo pobreenetan daude laguntza jasotzen duten etxeen tasa handienak¹³ Beheko grafikoan ikus daitekeen bezala, Amarak eta Grosek batez besteko familia-errentaren arabera dagozkienak baino etxe hartzaileen tasa txikiagoak dituzte. Bestalde, Miracruz-Bidebietak eta Intxaurrenok espero zitekeenak baino tasa handiagoak dituzte.

Etxebizitzarekin lotutako arazoen artean, are larriagoak dira **etxebizitza-bazterketa larriko** egoerak: Donostian, 2014an, 439 pertsona zeuden etxebizitza-bazterketa larriko egoeran, eta horietatik 89k kalean lo egiten zuen (*Kale Gorrian*, 2014). Hala ere, 2011n etxebizitzetarako konfort-indize orokorra 74 (100etik) izan arren, hainbat arazo hautematen dira etxebizitzaren arloan eta horren inguruan. Izan ere, Donostiako biztanleen % 8 pertsona bakoitzeko 15 m²-ko azalera erabilgarria izatera iristen ez diren etxeetan bizi da, % 0,3 eraikin aurrituetako edo egoera txarrean dauden erakinetako etxebizitzetan, eta % 43,6 guztiz irisgarriak ez diren eraikinetan (horietatik, 17.115ek 65 urte baino gehiago ditu) (EIN, *Biztanleen eta etxebizitzaren errolda*). Energia-pobreziako egoerak Donostiako biztanleen % 11,4ri eragiten zion, neurri handiagoan edo txikiagoan, 2014an (% 16,4ri Gipuzkoan). Urte horretan bertan, hipoteka betearazteko prozesuan zeuden 49 etxebizitza zenbatu ziren hirian.

¹³ Miramon-Zorroagaren kasuan, zenbatespenen arabera, hartzaileen tasa handia da batez besteko familia-errentari dagokionez; horren zergatia posta-kode bidezko datuetan oinarritutako gainestimazioa izan daiteke.

GIZARTE-LAGUNTZAK ESKATZEN DITUEN BIZTANLERIA



Iturria: Ongizatearen zuzendaritza. Donostiako Udala.

Bestalde, **gizarte-zerbitzuen eskaeren** kopurua handitzeak ere agerian uzten ditu talde ahulenen premiak: izan ere, biztanleen ehuneko gero eta handiagoak jasotzen ditu oinarritzko prestazioak: 2008an 3.162 familiak jasotzen zituzten diru-laguntzak (besteak beste, DBEa, GLLa, prestazio

osagarriak...); 2015ean, aldiz, familien kopurua 9.770 izatera heldu zen (% 209 hazi zen). Udaleko gizarte-zerbitzuek 14.651 familiari eman zieten arreta 2015ean, eta hiriko gizarte-zerbitzuek etxeen bostenari (zehazki, % 18 eta % 20 artean) eman zioten arreta pertsonalizatua arrisku ekonomiko edo sozialeko egoeran egoteagatik. Arreta-tasak handiagoak dira hiriaren ekialdeko auzoetan; hain zuzen, gizarteratzeko eskaeren % 80 eskaera ekonomikoak dira.


Babeseko gizarte- edo familia-sare bat egotea funtsezkoa da gizarte-inklusiorako; izan ere, Donostiako biztanleen % 2,9k (15 urte edo gehiagokoek) hautematen du ez duela jasotzen gustatu bezainbeste gizarte-laguntza ahulezia sozial edo pertsonaleko uneetan. Gizonek gehiago hautematen dute gizarte-laguntza konfidentzialaren gabezia (% 3,1), emakumeei baino (% 2,8). Halaber, Donostiako biztanleen laurdenak ez du gizarte-laguntza afektiborik (% 26,1 gizonen kasuan eta % 23 afektu eta maitasun falta adierazten duten emakumeen kasuan). (*Euskal Osasun Inkesta*, 2013). Gainera, adierazi behar da 75 urtetik gorako emakume askok duela sumatzen laguntza konfidentzialik. Beharbada, emakume horien hauskortasunaren ondorioz eta emakume alargunen proportzio handiagoaren (adin bereko gizonen aldean) ondorioz izan daiteke hori. Egokia dirudi hizpidera ekartzea 85 urtetik gorako biztanleen % 33,8 bakarrik bizi dela eta haietatik % 17 inguruk ez duela harremanik udaleko gizarte-zerbitzuekin.

LAN-MERKATUA

Orokorrean, 2015ean, Donostiak 104.277 pertsonari ematen zien **enplegua** (Donostiako Sustapena, SEPEren arabera). 2015ean kontratatutako pertsonen kopurua eta 2008ko kopurua (104.276 pertsona kontratatu) antzekoak dira. 2015ean enplegua zutenen %92,9k aldi baterako kontratua zuen, % 6,9k kontratu finkoa eta % 41,2 emakumeak ziren. Azken hamarkadan egiaztatu ahal izan denez, krisiak eragina izan du kontratazio-bolumenaren beherakada progresiboan. Joera hori 2014an irauli zen eta enplegua suspertzen hasi zen. 2015eko datuen arabera, kontratazioaren hazkundea (% 17,7 hazi zen 2008-2015 aldian) emakumeen enpleguan oinarritu zen batik bat (% 40,8 gizonen dagokienez eta % 59,2 emakumeei dagokienez, 2015ean). Kontratazioa aldi baterakoa izan zen nagusiki (% 93,1) eta, batez ere, zerbitzuen sektorekoa (% 95,3).

Aurrez biztanleriaren zahartze progresiboa aipatu da, eta horrek ere zuzeneko eragina izango du epe laburrean biztanle aktibo potentzialak gutxitzearekin, biztanle talde murriztagoak lan-merkatuan sartu heinean eta oraingo biztanle aktiboak erretiroa hartzeko adinera gerturatu heinean (oraingo tasek eta aurreikuspenek aditzera ematen dute lanpostuak ordeztzeko arazoak egongo direla, eta gero eta agerikoagoa da lan-merkatu biztanle etorkinak sartzeko beharra). (Ikusi 2.1.-Demografia atala, 7. or.).

Enplegu-tasa % 66,4
zen 2011n (% 61,9
2008an). *Europako*
2020rako Estrategian
zehaztutako helburuek
% 75eko tasa dute
jomugan, eta, 2012an,
EBko biztanle landunen
batezbestekoa % 68,4
zen, estatukoa % 59,6,
eta EAEkoa % 66,3.
Emakumeen okupazio-





tasa % 58,8ra murriztu da 2011n EAE osorako, 2015ean % 60,8 baitzen (ehuneko horiek handixeagoak dira Gipuzkoan; % 60,9 2011n eta % 62,8 2015ean).

Langabeziari dagokionez, beheranzko joerari eutsi zitzaion 90eko hamarkadaren amaieratik krisi ekonomikoa agertzen hasi arte. Ondorioz, nabarmen handitu ziren langabeen kopurua eta langabezia-tasa, eta borne handienak 2013-2014koak izan ziren: Donostiako batez besteko langabezia-tasa % 12,7ra iritsi zen (% 14,2 emakumeentzat eta % 11,3 gizonentzat). 2015eko datuek beherakada nabarmena erakusten dute; izan ere, tasa hori % 11,3ra jaitsi zen, Gipuzkoako eta EAEko batez bestekoaren azpitik. Halaber, eskuratu diren azken datuek langabezia murriztera jotzen duela baieztatzen dute (9.283 pertsona 2016an eta 9.101 pertsona 2017ko martxoan, Eustat, Lanbide 2017).

Langabeziaren jaitsiera hiriko auzo guztietara hedatu da, eta honako hauek dira jaitsiera handiena izan dutenak: Aiete, Ategorrieta, Gros, Igeldo eta Antigua-Ondarreta. Hiriaren ekialdeak langabezia-tasa handiagoak ditu; zehazki, auzo hauexek dituzte tasa handienak: Altza (% 14,9), Intxaurren (% 14,1) eta Mirakruz-Bidebieta (% 13,9); ondoren, Egia (% 12,8) eta Loiola (% 11,5) daude. Guztiak daude udalaren batez besteko langabezia-tasaren gainetik (% 11,2 2015ean). Bestalde, honako hauek dituzte langabezia-tasa txikienak: Aietek (% 8,8), Añorgak eta Ibaetak (% 9), Ategorrieta-Uliak (% 9,1) eta Igeldok (% 9,2).

DONOSTIAKO LANGABEZIA-INDIZEA, 2015



Donostiako 9.216 langabeen (2017ko otsailean) karakterizazioak erakusten du % 54,7 gizonak direla eta gainerako % 45,3a emakumeak. Langabetuen % 6,4k 20 urte baino gutxiago ditu, % 42,1ek 20 eta 44 urte artean ditu, eta gainerako % 51,5ak 45 urte edo gehiago. Langabetuen % 8k ez du aldez aurretik enplegurik eduki, % 75,8k zerbitzuen sektorean lan egin du, % 8,7k industrian eta gainerako % 6,2ak eraikuntzan. Azkenik, luzaroko langabezia aipatu behar da; izan ere, langabetuen % 48,1i eragiten dio. Esan behar da, orobat, langabezian dauden biztanleen ia erdiek ez dutela langabezia-prestaziorik jasotzen (Gipuzkoa osoko informazioa).

Beheko koadroan adierazi da zer bilakaera izan duen Donostiako gizarteak Donostiako 2010eko plan estrategikoa hausnartu eta ezartzeko prozesuaz geroztik:


	2001	2009	2016
Biztanle kopurua	181.065	185.357	186.095
Zahartze-indizea	% 19,48 (2003)	% 20,38	% 22,86
Gainzahartze-indizea	% 9,22 (2003)	% 10,89	% 11,53
Gazteria tasa	% 12,09 (2003)	% 12,59	% 12,68
Biztanle etorkinak	% 1,7	% 6,5	% 6,62
Batez besteko familia-errenta €-tan	34.255	49.539	59.987 (2013)
Batez besteko errenta pertsonala €-tan	14.895	23.054	22.260 (2013)
Emakumeen batez besteko errenta pertsonala €-tan	10.645	18.400	18.176 (2013)
Elkarte kopurua	654	913	2108 (2017)
Udal-hauteskundeetako partaidetza %	66,46 (2003)	54,86 (2007)	66,65 (2015)
Oinarrizko errentaren hartzaileak %	7,55 (2003)	9,06 (2007)	21,79
GLLaren hartzaileak (bizikidetza-unitateak) %	11,51 (2003)	13,9 (2007)	14,66
Donostialdeako pobrezia-tasa erreala %	2,2 (2004)	3,5 (2008)	4
Immigrazioaren onarpenaren balioespena (0-10)	4,7 (2005)	5 (2008)	-
Ongizateko eta gizarte-laguntzako zerbitzuekiko gogobetetasuna (0-10)	5,5 (2005)	6,24 (2008)	-
Enplegu-kontratu kopurua	83.597	85.187	104.277
Okupazio-tasa	64,8	70,5 (2008)	
Langabezia-tasa	7,3	9,1	11,2
Emakumeen langabezia-tasa	11,2	9,7	12,7
Langabe kopurua	5.788	8.954	9.283 (2016)

2.2. JARDUERA EKONOMIKOA, GARAPEN JASANGARRIRAKO BALDINTZA


EKONOMIA, ABERASTASUNA

Donostia turismo- eta merkataritza-jarduera bizia duen zerbitzu-hiria da, baita ondo garatutako lurralde tertziario eta industrialaren ere. **Jarduera ekonomikoari** dagokionez, hiriak 7.189 milioi euro inguruko aberastasuna sortzen du urtero (sortutako BPGd-a, *Donostiako Sustapenaren* estimazioa 2015erako). Azken hamarkadetakoa garapen ekonomikoa krisi ekonomikoaren eraginez moteldu zen. Hala ere, azken urteetako BPGd-aren bilakaerari erreparatzen badiogu, susperraldia datorrela dirudi. Donostiako per capita BPGd-a (34.589 € pertsonako) estatuko handienetakoa eta gainerako euskal hiriburuen artean handiena da. Ekonomia hori enpresa-sektore oso dibertsifikatuan oinarritzen da, batez ere, enpresa txiki eta ertainetan (jarduera ekonomikoa handia da; 2015ean 18.870 saltegi zeuden).

DONOSTIAKO BEGAREN BANAKETA, 2012



Iturria: EUSTAT, Donostiako Estrategia Bulegoak egina




industria-jarduera BPGd-aren % 5,7 inguru zen, eta sektore-dibertsifikazio handia zuen. Eraikuntzaren sektorearen ekarpena ere antzekoa da (% 5,5), eta azken hamarkadan gutxi aldatu da egitura hori. Bestalde, lehen sektorearen ekarpena oso txikia da.

EGITURA ETA EKOIZPEN-JARDUERA

Enpresa-jarduerari dagokionez, 2015ean 18.870 saltegi zeuden, aurrez adierazi den bezala, eta, aurreko urteko saltegien kopuruarekin alderatuz gero, kopurua apur bat handitu zen (18.767). Urte hura krisi ekonomikoarekin batera hasitako saltegi-murrizketa progresibo eta etengabearen inflexioa izan zen ($-\Delta\%$ 17,5 2008aren eta 2015aren artean). Izan ere, 2015eko saltegi kopurua oso urrun dago krisi ekonomikoaren eragina nabaritzen hasi aurretik zenbatutako kopurutik (22.862 saltegi 2008an). Saltegi kopuruaren murrizketak ez du eragozten hiriak krisi aurreko urteetan izandako bizitasun ekonomikoa nabarmentzea.

Donostiako jarduera ekonomikoaren tertziarizazioa (hiriko BPGd-aren arabera), jada aipatua, saltegien sektore-espezializazioan ikus daiteke. Horien % 87,3 zerbitzuen sektorekoa da, % 9 eraikuntzaren sektorekoa (azken urteetan indarra galdu du; izan ere, saltegi kopurua nabarmen murriztu da, 2011n 2.387 izatetik 2015ean 1.705 izatera igaro baita) eta % 3,2 industriaren sektorekoa (industriaren eta energiaren sektoreko 613 saltegi).




Erantsitako grafikoan ageri den jardueraren araberako saltegien ehunekoa 2016koa bada ere, Donostiako jarduera ekonomikoaren lurralde-banaketak 2015ekoa hartzen du erreferentziazat (dokumentu hau idaztean zeuden azken datu eskuragarriak). Erdialdeak (% 23,8), Grosek (% 12,8) eta Amara-Berrik (% 12) dute saltegi kopuru handiena, eta, ondoren, Ibaeta (% 8,3), Antigua-Ondarreta (% 7,4), Altza (% 6,2) eta Egia (% 6) auzoak daude; guztiak daude hiriko batez bestekoaren gainetik. Halere, dentsitateari dagokionez (hau da, saltegi kopuruaren eta biztanleen arteko erlazioa), Añorga (biztanleen $\%$ 236,1), Miramon-Zorroaga ($\%$ 206) eta Erdialdea ($\%$ 204) daude banaketa horren buruan, eta, ondoren, Zubieta ($\%$ 184,3), Ibaeta ($\%$ 160,2) eta Gros ($\%$ 128,4) daude.

Enplegu-bolumenaren araberako jarduera ekonomikoaren garrantziari dagokionez, Erdialdeak (% 19,6), Ibaetak (% 17,8) eta Miramon-Zorroagak (12,2%) dute jarduera-intentsitate handiena, Amara-Berri (% 8), Gros (% 7,4) eta Antigua-Ondarreta (% 6,6) auzoen aurretik.

Sektore ekonomikoen artean, **merkataritzaren** garrantzia eta mugimendua nabarmendu daitezke. Merkataritza-hiri tradizionalen artean nagusietakoa da, eta haren eragin-eremuak metropolialdea zeharkatzen du, eta Iparraldera eta Akitaniara ere heltzen da¹⁴. Merkataritza-zerbitzuetako eta ostalaritzako jarduerak, adiera zabalenean hartuta (handizkako eta txikizkako merkataritza, konponketa-zerbitzuak, garraioa, ostalaritza eta sukaldaritza), Donostiako jardueraren % 33 dira. Krisiaren eraginaren ondoren ere eutsi zaio pisu horri (saltegi kopurua nabarmen txikitu zen; hiria 2008an 7.616 establezimendu izatetik 2015ean 6.256 izatera igaro zen, hau da, $-\Delta\%$ 17,9ko bilakaera izan zuen). SE presentan a continuación

Txikizkako merkataritza-eskaintzak 2.943 denda hartzen zituen 2015ean. Horietako asko denda tradizionalak eta familia-dendak dira, merkataritza txikikoak, eta ia erdia Erdialdean, Parte Zaharrean eta Grosen daude. Merkataritzaren, kulturaren eta aisiaren arloko bizitza biziari esker, lurraldeko, estatuko eta nazioarteko bisitari asko erakartzen ditu. Sektorea hiriko jardueraren % 15,5 da (saltegi kopuruaren arabera), eta tradizionalki (krisiaren aurretik) dendak irekitzeko eta autoenplegurako aukera onak ematen zituen sektoretzat hartu da.

2015EKO MERKATARITZAREN BANAKETA.
MERKATARITZA-DENTSITATEA
TXIKIZKAKO SALTEGIAK/1.000 BIZTANLE




Iturria: Donostiako Sustapena. Donostiako Estrategia Bulegoak egina

Txikizkako merkataritza-jarduerak krisiaren eragina jasan du (hasi zenetik saltegi eta lanpostu kopurua txikitu da). 2008an 3.513 saltegi zeuden, eta harrezkero txikizkako denden erroldan egon den beherakada progresiboa eta etengabea izan da (2008aren eta 2015aren arteko bilakaera negatiboa $\Delta\%$ 16,2 izan zen), baina moteltzen joan da azken urteetan.

Hala eta guztiz ere, merkataritzaren arloko eskaintza zabala da, eta hiriak batez besteko merkataritza-dentsitate handia du (% 15,3 2015ean, % 14,7 2014an eta biztanleen % 17 2003an), Bilbokoa baino apur bat handiagoa (% 14,3 2014an) eta Gasteizkoa baino nabarmen handiagoa (% 10,6). Eskaintzaren erdia baino gehiago (% 56,3) Erdialdean (% 37,8) eta Grosen (% 18,6) dago. Hala ere, txikizkako denda tradizionalen gaineko presioa handitu dela hauteman da, Erdialdean batez ere. Izan ere, kate handiei lotutako saltegiak ireki dira, eta horrek hainbat ondorio ditu: berezitasuna galtzea, zoruaren prezioak igotzea... Halaber, horren guztiaren

DONOSTIAKO HOTEL-ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA



Iturria: Eustat, Donostiako Estrategia Bulegoak egina

¹⁴ Azpimarratu behar da hiriak euskal lurraldean eta Frantziako estatuko beste leku batzuetan eragiten duen erakarpena; izan ere, bisitari asko heltzen dira Donostiara, besteak beste, egun-pasa, hiriaz gozatzera, kalean paseatzera, eta erostera nahiz jatera.

eraginez, merkataritza-aniztasuna murrizten ari da (behar-beharrezkoa hurbileko merkataritzaren bizileku-beharrei dagokienez), eta, bestalde, inpaktua du itzulkinetan fiskaltasunari eta zerbitzu aurreratuei dagokienez, kate handi horiek egoitza nagusiak beste eskualde edo estatu batzuetan dituztelako.

Donostiako ostalaritza-sektoreak aipamen berezia merezi du. Hiri turistikoa da, ostalaritzari dagokionez eskaintza handia eta anitza duena (ostalaritza eta sukaldaritza). Eskaintza hori mantendu da, krisia hasi zenetik saltegi kopurua apur bat txikitu den arren (1.327 saltegi 2015ean eta 1.377 saltegi 2008an; hau da, $-\Delta\%$ 3,6ko eboluzioa egon da denbora-tarte horretan), eta 6.424 pertsonari ematen die lana. Ostalaritzako jardueraren batez besteko dentsitatea $\%$ 7,1 da, hau da, Bilbokoa baino apur bat txikiagoa ($\%$ 7,6). Auzoka, Erdialdeak du saltegi kopuru handiena ($\%$ 34,1, 452 saltegi), Grosen ($\%$ 15,4, 204 saltegi) eta Amara-Berriren ($\%$ 10, 133 ostalaritza-saltegi) aurretik.



Donostiako gastronomiaren garrantzia eta ospea hiriaren kulturaren eta nortasunaren zati garrantzitsua dira, nazioarteko aitortpena dute eta mundu osoan duen erakargarritasuna finkatzen laguntzen dute. Biztanleko Michelin izar gehien (16) dituen hiria da (hiru izar dituzten hiru jatetxe daude) eta *Basque Culinary Center* unibertsitatea ere (Espainiako Zientzia Gastronomikoen lehen unibertsitatea) bertan dago. 2015ean 1.157 sukaldaritza-establezimendu zeuden eta 5.076 langile ziharduen horietan; 2008aren eta 2015aren artean, $\%$ 6,5 murriztu ziren. Bestalde, jatetxeen eta janari-postuen kopurua (445 saltegi eta 2.927 langile 2015ean) $\%$ 17,1 handitu da denbora-tarte horretan.

Donostiako garapen turistikoak honako hauek hartzen ditu oinarritzat: hiriaren berezko natura-, hiri- eta kultura-baliabideak eta goi-mailako kalitatea duten zerbitzuak eta instalazioak. Mendeetako tradizioa du kalitatezko helmuga turistiko gisa eta helmuga irisgarria izateko lana egin da. “2013ko SICTED kudeatzaile onenaren” saria eman zioten, hain zuzen, FITUREn bikaintasun turistikoari laguntzeko zerbitzua ebaluatzen duen saria. Hala ere, hiriaren erronka da sektore turistikoaren hazkundera eredu jasangarri batekin bateratzea, herritarrekin bizikidetza egokia izan dadila ahalbidetzeko, gainezka egin gabe eta bereizgarri duen kalitate-estandarra mantenduz. Argi dago Donostiak huts egin duten ereduak saihesteko moduko estrategia behar duela eta mehatxuen kontra koordinazioz jardun behar duela. Halaber, aspalditik hiriaren nortasunaren ezaugarrien artean dagoen jardueraren garrantzia azpimarratu behar da.

Ostalaritza-eskaintza handia eta anitza da (hotelak eta beste ostatu batzuk, landetxeak,...), eta mantendu egin da, krisia hasi zenetik saltegi kopurua apur bat handitu den arren (170 saltegi 2015ean eta 139 saltegi 2008an; hau da, $-\Delta\%$ 22,3ko eboluzioa egon da denbora-tarte horretan). Esan behar da 2014an 1.270 pertsonari ematen zela lana. Zehazki, ostalaritza-eskaintzari dagokionez, 2011an 81 hotel-establezimendu zeuden (16 hiru izar edo gehiagokoak eta 65 izar batekoak, bikoak edo pentsioak); 2017an, aldiz, 121 (19 hiru izar edo gehiagokoak eta 102 izar batekoak, bikoak edo pentsioak), eta 147.108 plaza eskaintzen zituzten (95.997 hiru izar edo gehiagokoak eta 51.111 izar bat eta hiru artekoak); 2010ean, kopuru hori hiriko biztanleen $\%$ 30,89ko batez bestekoaren baliokidea zen, hain zuzen, Bilboko ($\%$ 19,23)

eta Gasteizko (biztanleen % 16,15) eskaintza baino handiagoa. Datu horiek aldatuko dira, ostalaritzak eskaintako plazen gorakada handia egongo delako; izan ere, etorkizun hurbilean hoge bat hotel eta pentsio irekiko direla aurreikusi da.

Jarduera turistikoaren garapena guztiz onuragarria izaten ari da: bisitari kopurua urtetik urtera handitzen da, eta 2016an hiriak 622.407 bisitari/turista hartu zituen (kopurua $\Delta\%$ 30,6 hazi da 2011tik). Ostatu-gau kopuruaren datuek ere antzeko joera agertzen dute, 2016an (Europako Kultur Hiriburutzaren urtea) 1.265.546 ostatu-gau izan baitziren, eta kopuru horren bilakaera positiboa progresiboa izan da azken bosturtekoan (2011tik $\Delta\%$ 33,1 hazi da). Hala ere, esan behar da ostatu-gauen hazkundea askoz nabarmenagoa izan dela izar bateko eta biko hoteletan eta pentsioetan ($\Delta\%$ 55,6 2011-2016), hiru izar edo gehiagokoetan baino ($\Delta\%$ 23,6 2011-2016). Hotelen okupazioa, plazen arabera okupazio-mailari dagokionez, 2016an % 63,2 izan zela kalkulatu da; hau da, Euskadiko eta gainerako euskal hiriburuetako batez bestekoa baino handiagoa (% 58,8 Bilbon), eta $\Delta\%$ 15,7 hazi da (2011-2016). Halaber, estimazioen arabera, logelen arabera okupazio-maila % 72,7 izan zen urte berean, eta antzera hazi zen denboratarte horretan.





Hiri turistiko gisa finkatuta dago, goi-mailako helmuga turistikoa da, eta gero eta bisitari atzerritar gehiago ditu (frantziarrak, jakina, baina baita iparamerikarrak, australiarrak, britainiarrak edo alemaniarrak ere; eta nabarmen hazi da beste leku batzuetako turisten presentzia ere, hala nola japoniarrena edo errusiarrena). Azken urteetan estatuko bisitarien kopurua gainditu dutela dirudi.

Honako hauek dira horren zergatiak: erakargarritasun gastronomikoa (galdetutakoen % 25ek adierazi du gastronomia dela Donostia helmuga turistiko gisa hautatzeko motibazio nagusia) "city-break" helmuga egokia dela (% 26), "eguzkia eta hondartza" (% 16) eta kultura-helmuga egokia dela (% 12).

Biltzar-turismoari (MICE) buruz, azpimarratu behar da **kongresu-jarduera** (biltzarrak, konbentzioak eta jardunaldiak) progresiboki finkatu dela ekitaldi kopuruei, iraupenari eta ordezkarietako dagokienez (2012ko jarduera aipagarria da, 154 ekitaldi eta bertaratutako 37.899 ordezkari zenbatu baitziren), krisi ekonomikoak eragina izan badu ere. 2015ean 131 biltzar-ekitaldi egin ziren, 38.131 ordezkari bertaratu ziren eta 2,39 eguneko

iraupena izan zuten batez beste. Azken urteetako bilakaerak adierazten du ekitaldi kopurua $\Delta\%$ 56 hazi dela (2011-2016) eta bertaratutako ordezkari kopurua $\Delta\%$ 89,3 hazi dela (2011-2016).




Halaber, honako hauek aipatu behar dira: **kultura-sektorearen** dinamismoa eta azpiegitura eta kultura-ekitaldi nagusien erakar ahalmena (milioi erdi pertsona inguruk bisitatzen dituzte urtero museo nagusiak, eta kopurua antzekoa da ekitaldi nagusietarako). Zenbait musika-ekitaldik, hala nola Jazzaldiak eta Musika Hamabostaldiak, urtetik urtera sendotzen dute euren ospea, eta hazkunde handia izan dute, 2001etik bertaratutako kopurua bikoiztu baitute. Zinemaldien (Nazioarteko Zinemaldia, Beldurrezko Zinemaren Jaialdia...) ikusle kopurua ere hazte-bidean jarraitzen du, progresiboki, eta dagoeneko krisi ekonomikoaren aurreko kopuruetara heldu da ia-ia (174.901 ikusle 2015ean eta 177.654 2008an).

Kultur hiriburu izateko hautagaitza, ondorengo hautaketa eta, 2016an, Europako Kultur Hiriburu izan zela ospatzea (eta ezin da ahaztu San Telmo Museoa berriz ireki zela, Tabakalera ireki zela eta Musikeneren egoitza berria eraiki zela). Horrela, 2016an, hiri osoan kultur hiriburutzarekin lotutako 2.476 ekitaldi egin ziren. Auzo hauetan egin ziren ekitaldi gehien: Egian (% 22,5 Tabakalera kokaleku pribilegiatuenetakoa baitzen), Parte Zaharrean (% 19) eta Grosen (% 11).



Adierazitakoarekin bat etorritik, **kultura-sektore** osoaren garapena handia izan zen 2001etik krisia hasi zenera arte. Kultura-enpresek eta ikus-entzunezko sektoreko edo **sormenezko industrietako**¹⁵. enpresek hazkunde handia izan zuten, baina, krisiaren urte gogorrenetan, beheraka handia izan zuten jarduera-bolumenean (bai saltegi kopuruari bai enpleguari dagokienez). Azken urteotan berriro ari da gora egiten. Sormenezko industrien jarduerak % 3 eta % 5 arteko ekarpena egiten zion EAEko BPGd-ari 2014an. Donostian, 2015ean, 3.373 saltegi (hiriko saltegi guztien % 18) ziren jarduera-sektore horretakoak (erreferentzia gisa, adierazi behar da Euskadi osoan 14.000 saltegi inguru direla sormenezko industrietakoak, hain zuzen, saltegi guztien % 9; halaber, euskal biztanleen % 8ri ematen diote lana, hain zuzen, 70.000 pertsona ingururi). Aurrez esan den bezala, sormenezko industrien saltegi kopuruaren bilakaera negatiboa izan da 2008aren eta 2015aren artean ($-\Delta\%$ 11,7), eta 2008an 3.822 saltegi egotetik 2015ean 3.373 saltegi egotera igaro da.

Sormenezko industriaren barruan, egokia da ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektoreari erreparatzea. Sektore horrek Donostian hazkundera izango duela aurreikus daiteke, arrazoi hauek direla eta: sektorea garatzera bideratutako jarduketak (Ikus-entzunezkoen Sektorearen Berrikuntza Gunea-PIA sortzea eta sektorearen tokiko klusterra¹⁶ sustatzea), joera eta aurrerapen teknologikoak eta hirian dagoeneko ezarrita dagoen jarduera. 2008an, ikus-entzunezkoen sektoreko 521 saltegi zeuden hirian, baina kopurua 456ra murriztu zen 2015ean ($-\Delta\%$ 12,5).



Sormenezko ekonomiaren eta tokiko aukeren merkatu-hobien garapenaren barruan, lanean ari dira modako kluster bat sustatzeko. Hala, 2015ean azpisektore horrekin lotutako 1.040 saltegi zeuden (saltegiak eta industria-establezimenduak zenbatuta, 2008an 1.192 ziren); hau da, Donostiako saltegien % 5,5 ziren.

¹⁵ Sormenezko industrien sektorean 15 azpisektore daude: arkitektura, diseinua, moda, eduki digitalak eta ikus-entzunezkoak, zinema, bideo-jokoak, musika, arte eszenikoak, arte bisualak, publizitatea eta marketina, kultura-ondarea, eskulangintza, edizioa eta hizkuntzaren industriak.

¹⁶ Donostialdeako ikus-entzunezkoen eta eduki digitalen sektoreko klusterrak % 3,4ko ekarpena egiten dio hiriko BPGd-ari (Donostiako Sustapenaren 2013rako estimazioen arabera), eta 2.454 lanpostu sortzen dituzte (% 40,1 emakumeentzat).

Oro har, **enpresa-zerbitzuen sektoreko** jarduerak (ingeniaritzak, aholkularitza, enpresa-kudeaketa,...) sektore dinamikoa dira hirian. Jarduera horretan, enpresentzako zerbitzu aurreratuak¹⁷ (bezeroen edo beste industria- edo zerbitzu-enpresa batzuen jarduerarako bitarteko elementuak diren zerbitzuak ematen dituztenak) estrategikoak dira hiriarentzat. Izan ere, enpresen (halakoen zerbitzuak jasotzen dituztenak) produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen dute, garapen ekonomikoa eta berrikuntza ahalbidetzen dute, eta, era berean, hazteko aukera handiak dituzte epe ertainean, industria- eta zerbitzu-sektoreak berregituratzen diren heinean. Gaineratu behar da jarduera horiek intentsiboak direla ezagutzari, goi-mailako kualifikazioa dutenei lana emateari eta teknologia berriak erabiltzeari dagokienez.

Enpresarekin lotutako **zerbitzu aurreratu** horien jarduerak (produktu- eta prozesu-ingeniaritzak, ikerkuntza, IKT zerbitzu aurreratuak, ingurumenarekin lotutako ingeniaritza eta zerbitzuak, ikerkuntza eta garapena, teknologikoak ez diren jardueren ingeniaritzak/aholkularitza,...) Donostiako, inguru industrial aurreratuan dagoen hiri tertziario bateko, saltegien % 25,9 hartzen du. Gutxi gorabehera, sektore horrek jarduera eta hazkunde handia izan ditu azken hamarkadetan, krisi ekonomikoak saltegi kopuruari eragin badio ere (kopurua asko txikitu zen 2009tik 2012ra). Azken urteetako kopuruek susperraldirako joera agertzen dute; hala, 2015ean 4.981 saltegi zenbatu ziren.



Ezagutzako sektore intentsiboek (enpresa-jarduera horietan, gutxienez langileen % 33k dute goi-mailako prestakuntza; hau da, unibertsitateko edo graduondoko ikasketak) pisu handia dute hirian, eta, 2015ean, Donostiako saltegien % 41,8 ziren (7.880 saltegi). Horien artean, nabarmentzekoa da ezagutzaren arloko merkatu-zerbitzu intentsiboen kopurua, % 48 baita (jarduera juridiko, zientifiko eta teknikoak, enpresa-aholkularitza, arkitektura eta ingeniaritza, saiakuntzak eta azterketa teknikoak,

¹⁷ Enpresentzako zerbitzu aurreratuak, oro har, ezagutzako sektore intentsiboetan edo KIBSetan (*Knowledge Intensive Business Services*) sartzen ditugu, eta sektoreek honako hauek barne hartzen dituzte: edizio-jarduerak; zinematografiarekin, bideoarekin eta telebistarako programekin, soinu-grabaketarekin eta musika-edizioarekin lotutako jarduerak; irratirako eta telebistarako programazioarekin eta emanaldiekin lotutako jarduerak; telekomunikazioak, programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduerak batzuk; informazio-zerbitzuak; jarduerak juridikoak eta kontabilitatearekin lotutakoak; egoitza nagusien jarduerak; enpresa-kudeaketako aholkularitza-jarduerak; arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakuntzak eta azterketa teknikoak, ikerkuntza eta garapena, publizitatea eta merkatu-azterketak...

publizitatea...). Krisi ekonomikoak eragina izan du haien bilakaeran, baina 2012tik hazi egin da jarduera-sektore horren saltegi kopurua ($\Delta\%$ 3,6). Hala ere, hiria ez da krisiaren aurreko enpresa-bolumenera heldu (2008an 7.797 saltegi zeuden ezagutzako sektore intentsiboetan).

Aipamen berezia merezi dute **I+G jarduerak**. Oro har, hazkunde handia izan dute azken hamarkadetan Gipuzkoan eta EAE osoan. Jarduera horren zati handi bat Donostian dago (nahiz eta enpresei dagokien kopurua txikiagoa izan) eta, 2015ean, I+G jarduerak egiten dituzten 173 saltegi zenbatu ziren (2008an 153 ziren). *2.3. Hezkuntzako, ezagutza aurreratuko eta berrikuntzako sistema* atalean (30. or.) ere I+G jarduerari buruz arituko gara.

Komunikazioaren teknologiei dagokienaz, azpiegiturak, teknologia berrien zentroak eta *wi-fi* konexioa garatu dira, eta handia da biztanleen (batez ere gazteak) Internet erabilera (16 urteko eta hortik gorako biztanleen % 71,5ek Donostialdean, 2015ean). Adibidez, Internet da biztanleek *Udalinfo*rekin (udalaren informazio-zerbitzua) harremanetan jartzeko gehien erabiltzen duten komunikazio-kanala (2015eko komunikazioen % 67 Internet bidez egin ziren, % 15 telefonoz, % 11,3 aplikazio mugikorraren bidez eta % 6,7 leihatilan / aurrez aurre). Ildo berean, saltegien % 74,8k (10 langile edo gehiagokoen % 98,9k) du Internet-konexioa (2008an % 91,5 ziren, eta % 96,8 hamar langile edo gehiagokoen kasuan). Horietatik, % 59,8k du web-orria (10 langile edo gehiagoko saltegien kasuan, % 87,7k). Merkataritza eta ostalaritza maila apalagoetan daude IKTen erabilerari dagokionez; izan ere, 2015ean, txikizkako denden hiru laurdenek zuten ordenagailua eta bi herenek Internetarako sarbidea.

IKTak erabiltzen dituzten enpresen artean, % 28,7k dihardu merkataritza elektronikoan (saldu edo erosi); 2008an, % 22,1 ziren. Jarduera-maila handiagoa da industria-establezimenduetan, kopurua % 45,7ra heltzen baita; 2008an, % 28,3 ziren. Dena dela, saltegiek gehiago erabiltzen dute sarea erosketak egiteko (% 26,7) saltzeko baino (saltegien % 7,3k bakarrik 2015ean). Segurtasunari dagokionez, IKTak erabiltzen dituzten saltegien % 90,5ek segurtasun-neurriren bat erabiltzen du (kopurua % 99ra heltzen da 10 langile edo gehiagoko saltegien kasuan).

Beheko koadroan jaso da zer-nolako bilakaera izan duen hiriak ekonomia- eta enpresa-jardueraren arloan, Donostiako 2010eko plan estrategikoa hausnartu eta ezartzeko prozesuaz geroztik.

BPGd-a (€)	5.038.369 (2004)	6.324.868 (2009)	7.189.000 (2015)
Per capita BPGd-a	21.582 (2000)	28.819 (2005)	34.589 (2012)
BPGd-a (EAE = 100)	105 (2000)	108 (2008)	113 (2012)
Saltegi kopurua	22.862 (2008)	20.395 (2011)	18.870
Saltegi kopurua	3.513 (2008)	3.159 (2011)	2.949
Merkataritzaren dentsitatea (biztanleen ‰)	16,56 (2003)	18,06 (2007)	14,74 (2014)
Ostalaritzaren eta sukaldaritzaren dentsitatea (biztanleen ‰)	7,45 (2008)	7,24 (2012)	7,1 (2015)
Ostalaritzako eskaintza. Saltegi kopurua (1y 2*) + (≥3*)	43+14 (2001)	83 +18 (2011)	100 +19 (2015)
Bidaia-arien sarrera. Ostatu-gau kop.		950.560 (2011)	1.265.546 (2016)
Okupazio-maila (logelen arabera)		63,2 (2011)	72,7 (2016)
Biltzarrak, konbentzioak Ekitaldi kopurua	84 (2008)	154 (2012)	131 (2015)
Sormenezko industriak. Saltegi kopurua	3.822 (2008)	3.394 (2012)	3.373 (2015)
Zerbitzu aurreratuak Saltegi kopurua	5.033 (2008)	4.765 (2012)	4.891 (2015)
Ezagutzako sektore intentsiboak Saltegi kopurua	7.793 (2008)	7.517 (2012)	7.880 (2015)
I+G jarduerak. Saltegi kopurua		153 (2008)	173 (2015)
Merkataritza elektronikoan aritzen diren enpresak (IKTak erabiltzen dituzten enpresen ‰)		22,1 (2008)	28,7 (2015)

2.3.- HEZKUNTZAKO, EZAGUTZA AURRERATUKO ETA BERRIKUNTZAKO SISTEMA

Aurretik aipatu den bezala¹⁸ donostiarrek **prestakuntza-maila altua** dute; izan ere, unibertsitateko ikasketak dituztenak gero eta gehiago dira, eta Donostiako biztanleen ia-ia lautik batek ditu (2011n, 53.373 donostiarrek egin zituzten unibertsitateko ikasketak: 38.517k goi-mailako unibertsitate ikasketak eta 16.856k erdi-goi mailakoak). Kopuru hori orain dela hogeitaz urtekoaren bikoitza da ia-ia (29.806 1991n eta 47.568 2001ean).

Gipuzkoako unibertsitate-ikasleen kopurua 20.028 inguru zen 2014/2015¹⁹, ikasturtean (% 49,2 gizonak eta % 50,8 emakumeak), eta pixkanakako beherakada izan du; kopuru horretan faktore demografikoa ere kontuan hartu behar da. Unibertsitateko ikasleen beherakada (2000/2001 ikasturteko 24.033 ikasleak kontuan izanda) etengabea izan zen 2000/01 eta 2010/11 artean ($-\Delta$ % 26ko bilakaera). Hala ere, nolabaiteko susperraldia izan dute 2010/2011 eta 2014/2015 artean (Δ % 12). Doktoretza prestatzen ari diren ikasleak, aldiz, % 4,5 dira, eta, kasu honetan, gizonezkoak gutxi batzuk gehiago dira (% 52,2; emakumeak, aldiz, % 47,8, 2014/15 ikasturtean) (Eustat, 2015).

Hiriak unibertsitate-ikasketen aukera handia du, eta tituluak lau unibertsitatetan eskuratzeko aukera ematen du (Euskal Herriko Unibertsitatea - UPV/EHU²⁰ Deustuko Unibertsitatea²¹, Nafarroako Unibertsitatea - Tecnun eta Basque Culinary Center, Mondragon Unibertsitateko Zientzia Gastronomikoen Unibertsitatea). Unibertsitate horiek, hezkuntza- eta ikerkuntza-erakundeak izateaz gain, funtsezkoak dira tokiko garapenari, gizartearen dinamizazioari, lehiakortasunaren hobekuntzari eta enpresa-berrikuntzari dagokienez.

¹⁸ Ikus 2.1 Atala, *Hiriaren esparrua: pertsonak; prestakuntza, gizartea eta balio partekatuen* epigrafea, 10. orr.

¹⁹ Euskadiko ikasleak 67.060 ziren 2014/2015 ikasturtean. Euskadiko unibertsitateetan sartzen diren ikasle berrietan emakumeak dira nagusi (emakumeen ehunekoa % 51,5 da orotara); emakumeak gehiago dira, orobat, Osasun Zientzietan (% 76,1), Arte eta Giza Zientzietan (% 60,4) zein Gizarte eta Lege Zientzietan (% 56), baina Zientziak (emakumeak % 48,4) eta batez ere Ingeniaritzak eta Arkitektura (emakumeak % 25,3), ordea, gizonek gehien hautatutako espezialitateak dira antza.

²⁰ *Nazioarteko Bikaintasun Campusaren* onarpena du, *Euskampus* proiektuaren bitartez. Proiektu horretan, unibertsitate publikoaz gain, Tecnaliak eta Donostia International Physics Center-ek (DIPC) parte hartzen dute. Proiektua bat dator Euskadiko espezializazio adimentsuko estrategiarekin (RIS). Horrez gain, nabarmendu behar da Bordeleko Unibertsitatearekin duen hitzarmena (2014) Mugaz Gaundiko Campus bat (EHUBAQ) eratzea sustatzeko (baterako tituluak, tutoretza partekatua doktorego-tesietarako, eta baterako ikerketak).

²¹ Aristos Campus Mundus proiektuan parte hartzen du, Comillaseko Unibertsitatearekin eta Universitat Ramon Llull-ekin batera, eta kolaborazioak ditu Georgetown University, Boston College eta Fordham University unibertsitateekin.

Hiriko lan-eskaintzak eta bertan garatutako ekintzek biztanleriaren prestakuntzarekin bat etorri behar badute, azpimarratu behar da ezagutzak aukera ematen duela hirian jarduera aurreratuak garatu ahal izateko.

BERRIKUNTZA-EKOSISTEMA

Euskal administrazioak hamarkadak daramatza ezagutzaren, teknologiaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egiten. Denbora-tarte horretan, inbertsio publiko asko egin ditu, eta, horrez gain, **zientzia- eta teknologia-sistema** ere sustatu du (teknologia-parkeetan, ikerkuntza-zentro eta -erakundeetan, teknologia-eragile eta berrikuntzarako laguntza-eragileen zentro eta erakundeetan, I+G jardueren inbertsioetan eta abarretan bermatuta). Aipatutako sistemak euskal berrikuntza-ekosistemaren sorrera suspertu du, eta, ondorioz, EAEk **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sare (ZTBES²²)**, zabal eta finkatua du, *2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP-2020)* eta *Euskadiko Espezializazio Adimentsuko Estrategiaren* ardatz nagusia dena, hain zuzen.



Azpimarratzekoa da baliabide horien kontzentrazioak duen garrantzia, baita baliabideon artean eratzen diren sinergiek dutena ere. 2014an, 2.684 pertsonak lan egin zuten lanaldi osoan ZTBES Sarean, I+G alorrean. Horietatik 1.871 ikerkuntzan ibili ziren eta % 38,7 ikertzaileak ziren. ZTBES Sareko I+G jardueren barne-gastuak (2014an 189.642 € izan ziren), halaber, krisi ekonomikoak sektore horretan izandako eragina islatzen du (218.762 € 2010ean).

Sarearen lurralde-banaketaren arabera, Gipuzkoa da ZTBES azpiegitura eta teknologia-eragile gehien dituen lurraldea (% 57 2016an)²³. Bestalde, nabarmentzekoak dira lurralde horretan dauden enpresen I+G unitate kopurua (horien erdia), unibertsitateen ikerkuntza-egiturak (egitura horiek guztiek Gipuzkoan dute egoitza, batzuek gainerako lurraldeekin partekatuta) eta foku anitzeko teknologia-zentroen edo zientzia, teknologia eta berrikuntzako sustapenerako eragileen proportzioa. Horietan guztietan pisu nabarmena dute sektore pribatuak eta Mondragon Korporazioak, Gipuzkoako Parke Teknologikoan kokatua dagoen "Orona Ideo" Fundazioaren esperientziarekin (berrikuntza gune honek enpresa, unibertsitatea eta ikerketa zentroa batzen ditu).

²² Honako hauek osatzen dute sarea: erakunde publikoek edo ia publikoek (hau da, batez ere funts publikoekin finantzatzen direnak), baina baita erakunde eta enpresa pribatuak ere (haien I+G korporazio-unitateen bitartez,...). ZTBESk sektore pribatuan duen eginkizuna da, hain zuzen ere, berrikuntzaren euskal ekosistemako alderdi garrantzitsu bat.

²³ Iturria: guk geuk egina, web-orri honetan oinarrituz: <http://www.spri.eus/euskadinnova/es/innovacion-tecnologica/vasca-ciencia-tecnologia-innovacion/168.aspx> (2017ko apirilean egindako kontsulta).

Era berean, ZTBESko zentro eta eragileek presentzia adierazgarria dute Donostian (guztizkotik % 25,6; hau da, hogeita hamar bat zentro). Azken urteetan igoera handia izan dute, neurri handi batean, ahalegin nabarmena egin delako berrikuntzari eta garapenari dagokionez, inbertsioak egin direlako berrikuntza-azpiegituretan, eta nabarmen hazi direlako I+G jardueretarako gastuak.

Gipuzkoan, BPGd-aren ehunekotan neurtuta, 2001ean BPGd-aren % 1,44 izatetik 2008an % 2,23 izatera iritsi zen **I+Gan egindako inbertsioa**; 2012an, % 2,59 izan zen²⁴. Horrela, 90eko hamarkadaren erdialdean handitzen hasi ondoren, jarraipena eman zaio I+G jardueretan egindako ahaleginari. Donostiaren kasuan, azken hamarkadako inbertsio-ahalegin horretarako zifrak % 2,4ren eta % 3,1en artean daude; hala ere, kontsultatutako iturrien arabera desberdinak dira. Donostiako BPGd-an duen pisuak beherakada izan du azken urteetan, eta, aldi berean, 2011tik txikitu egin dira (222.343 €) ahalegin ekonomikoa eta inbertsioaren zenbatekoa (I+G jardueren barne-gastua). Dena den, Donostiako Sustapenaren datuek aditzera ematen dute suspertzen ari dela; 2014an, 200.281 €-koa izan zen I+G inbertsioa.

Europa 2020 estrategiaren esparruan, 2020rako I+G jardueretako gastua BPGd-aren % 3 izateko helburua ezarri da. 2013an, EBko I+G jardueren batez besteko inbertsioa BPGd-aren % 2,02 izan zen; Espainian, aldiz, % 1,24 eta Euskadin % 1,99. Donostialdeari dagokionez, gainditu egin zen batez besteko inbertsio hori (% 2,67).

Kapital berritzailearen alderdi esanguratsuenetako bat **I+G jardueretan lan egiten duten pertsonen** kopurua da. Euskadiren kasuan, 2015. urtean 18.271 pertsona zeuden lanaldi osoan (Gipuzkoan % 39,7, hau da, 7.230 pertsona), eta Donostiari erreparatuz, seitik batek I+G jardueretan egiten zuen lan (3.017 pertsona DOB). Bestalde, Eustaten datuen arabera (I+G jardueretan lan egiten duten DOB langileei buruzkoak), generoari dagokionez desoreka nabaria dago EAEn I+G jardueren alorrean; izan ere, emakumeak % 35,2 baino ez dira (Donostiako kasuan txikiagoa da, I+G jardueretan lan egiten duten DOB langileen % 48,9 baitira emakumeak). Era berean, nabarmenezkoa da goi-mailako irakaskuntzan (egikaritze-sektore gisa) I+G jardueretan lan egiten duten emakumeen proportzioa handiagoa dela, zehazki, % 50,2koa.

Donostian I+G jardueretan lan egiten duten langileen eta ikertzaileen ehunekoa gainerako euskal hiriburuetakoa baino handiagoa da. Alor zientifikoei erreparatuz, langile horiek, bereziki, ingeniariaritzen aritzen dira (% 55), eta, neurri txikiagoan, zientzia zehatzetan (% 20), medikuntza-zientzietan (% 13) eta gizarte zientzietan (% 12). Donostian I+G jardueretan dihardutenen % 49k sektore pribatuan lan egiten du, % 38k goi-mailako irakaskuntzan eta % 13k zentro edo erakunde publikoetan.


EAEn, I+G jardueretan lan egiten duten pertsonen % 66,4 ikertzaileak dira (12.089 pertsona), eta, generoari dagokionez, I+G jardueretan lan egiten duen langileen

²⁴ Hala ere, aipatu behar da azken urteetan ahalegin txikiagoa egin dela I+G jardueretan. Zenbatetsitakoaren arabera, 2015ean Euskadin eta Gipuzkoan % 1,84 eta % 2,22 izan zen, hurrenez hurren (*Eustat*, 2017).

kopuruaren antzekoa da; hau da, % 35,5 emakumeak dira (Donostiaren kasuan, aldea txikiagoa da, DOB ikertzaileen % 41,3 baita emakumea). Horrez gain, adierazgarria da EAEn gutxi gorabehera 9 ikertzailetik bat Donostian edo inguruan dagoela. 2014an, Donostian 3.247 pertsonak egin zuten lan ikerkuntzan (beraz, dedikazio osoaren baliokidean diharduten 2.173 langile), eta horrek erakusten du azken hamabost urteetan orokorrean hazi egin dela jarduerak.

Funtsen jatorriaren arabera, Gipuzkoak du gasturik handiena enpresako I+G jardueretan: 2014an % 82,8koa izan zen, Bizkaiaren % 68 eta Arabaren % 77,8ren aldean. Administrazio publikoaren gastua, aldiz, baxuagoa da: % 3,2 Gipuzkoan eta % 8,5 eta % 8,8 Bizkaian eta Araban, hurrenez hurren. Azkenik, goi-mailako irakaskuntzaren barne-gastua Arabakoa baino apur bat handiagoa da Gipuzkoan (% 13,9; Araban % 13,4), eta, Bizkaikoarekin alderatuta, alde nabarmena dago (% 23,5).

Bestalde, Donostiako I+G jardueren barne-gastuaren (2014an 200.281000 €) irakurketa xeheagoa eginez gero, ikus dezakegu inbertsio globalaren bolumenak beherakada izan duela (-Δ% 2,6) erreferentziazko tartean (2008-2014). Sektoreen banaketak agerira ekartzen du hiriko I+G jardueren barne-gastuaren % 48 Administrazioak egiten duela,



% 33,8 enpresek eta IAGEPk eta %5,1 goi-mailako irakaskuntzak. Egikaritze-sektoreen banaketari dagokienez, % 62,3 enpresei dagokie, % 30,2 goi-mailako irakaskuntzari eta % 7,43 Administrazio publikoari. Hau da, hirian I+G jardueretan inbertitutako 5 eurotik hiru enpresa pribatuetan egiten da. Ildo berean, diziplina zientifikoaren arabera, barne-gastuen % 55,8 ingeniarietzi dagokie, % 19,9 zientzia zehatzei, % 13 mediku-zientziei, % 10,4 gizarte-

zientziei eta % 0,7 nekazaritza-zientziei. Horrez gain, badirudi pisu gehiago ematen zaiola ikerketa aplikatuari eta garapen esperimentalari, oinarriko ikerketaren kaltetan. Era berean, aipatu behar da lotura estuagoa izan behar dela unibertsitate-ikerkuntzaren eta enpresa-sarearen zuzeneko premien artean.

ZIENTZIAREN ETA BERRIKUNTZAREN HIRIA

Donostia Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren **Zientziaren eta Berrikuntzaren Hiria** saria jaso zuen lehenbiziko hirien artean dago (2011 eman eta 2014an berritu zioten), eta, gainera, zientziaren eta berrikuntzaren hirien *Innpulso Sarean* parte hartzen du.

Donostiako **berrikuntza-estrategia** euskal estrategiaren osagarria da, eta “berrikuntza-ekosistema” baten garapenean oinarritzen da. Era berean, “ekosistema” hori honako hauetan oinarritzen da: ezagutzaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloko azpiegiturretan, eta “**espezializazio adimentsuaren**” **estrategian**. Horrela, goraldian dauden sektore berriak (aurrez adierazi den bezala, tokiko aktiboetan, ikus-entzunezkoetan, energia berriztagarrietan, eta eraginkortasun energetikoan oinarritzen direnak) sustatzen dira, “**tokiko kluster**” gisa, sinergiak sortzeko eta berrikuntza eta ezagutza tokiko enpresei eta hiriari helarazteko. Ingurune horretan, ZTBESren eragileak ezinbesteko elementuak dira, eta sektore pribatuak duen garrantzia ere azpimarratu behar da.



Era berean, **Gipuzkoako Teknologia Parkean** (Miramonen) eta haren inguruan biltzen dira ezagutza aurreratuaren, teknologiaren eta berrikuntzaren sistemako lurraldeko zentro eta eragile asko. Parkeak 238.671 m²-ko azalera eraikigarria du, eta 94 enpresa (2008an 70 enpresa ziren) eta 4.773 langile hartzen ditu. Hainbat alorretan dago espezializatuta, besteak beste, material berrietan, IKTetan, telekomunikazioetan, multimedian, ikus-entzunezkoetan, medikuntzan, biologia molekularrean, elektrokimikan, mikroteknologian eta nanoteknologian, eta gizarte zerbitzuetan. Parkeak (eraikinak) eraikitako espazioaren % 79 okupatuta dago.

Zuatzu Enpresa Parkeak 158 enpresa eta 2.500 langile inguru hartzen ditu, eta, besteak beste, ingeniarietan, informatikan eta komunikazioetan, aholkularitzan eta ikus-entzunezkoetan dago espezializatuta. Bertan, Donostiako ikus-entzunezkoen gunearen (PIA) eraikina dago, tokiko ikus-entzunezkoen klusterraren egoitza.

Bestalde, **jarduera ekonomikoetarako** garapenen eta **azpiegituren** artean, honako enpresa-mintegi hauek nabarmendu daitezke: CEMEI-Enpresa Berritzaileen Udal Zentroa, 180 eta 500 m² arteko enpresa erdi-industrial garbientzat 9 lokal eta 55 eta 200 m² arteko 49 bulego dituen; ZENTEK, IKTak erabiltzen dituzten enpresei zuzendua (20 eta 50 m²-ko 22 lokal); Democenter, energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren enpresei zuzendua (30 eta 50 m² arteko 12 lokal); Belartza, Gizarteratzeko Enpresen Udal Zentroa (Belartza 2 bigarren fasearekin, 200.000 m² inguru); eta Bidebieta Zerbitzu Enpresak (20 eta 40 m² arteko 15 lokal). Horiez gain, aipagarriak dira jarduera-mintegietara berariaz zuzendutako beste zentro batzuk ere: PIA, ikus-entzunezkoen berrikuntzarako gunea, bi eraikinetan banatutako 20.000 m² dituen (50 eta 300 m² arteko 67 bulego) eta ENERTIC, energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren sektore estrategikoa sustatzeko eta bultzatzeko lan egiten duena (13.000 m² baino gehiago). Bi zentroak goi-mailako eraginkortasun energetikoko diseinu bioklimatikoari jarraikiz eraiki dira, Gipuzkoako enpresen eta

berrikuntzaren Europako Zentroaren (BIC Berrilan) egoitza berria bezala. Azken horren alboan Miramongo Teknologia Parkearen Arbide dorreak daude (7.000 m² bost solairutan banatuta), eta Parke horretan azpimarratzekoak dira enpresa berrien gunea eta "biomintegia". (Donostiako Sustapena, 2017).



Euskadin²⁵ **biozientziak** garatzeko apustutik abiatuta, alor hori etorkizun handiko hazkundera izaten ari da autonomia-erkidego osoan, zientzia eta teknologiari eta enpresa-garapenari dagokienez. Horren emaitza ikerkuntzaren arloko komunitatearen eta sortzen diren enpresen hazkunde progresiboa da: ikerkuntzarekin edo bioteknologiarekin lotutako jarduerak egiten dituzten erakundeen kopurua 94ra heldu zen 2015ean (70 ziren 2009an); gainera, bioteknologiako 88 enpresa zeuden (kopurua bikoiztu zen 2007. eta 2015. urteen artean). Halaber, sektore horretan I+G jardueretan aritzen ziren langileak 1.891 ziren (1.114 ziren 2007an), eta horien artean 1.256 DOB (dedikazio osoaren baliokidea) langile zeuden. EAE osoan I+G jarduerak egiten dituzten langileen % 6,9 dira, eta % 57 emakumeak dira. Ikerkuntzan aritzen diren 1.416 pertsonak kolektibo horren % 74,9 dira. Aipatu behar da ezen, 2015ean, biozientzietako ikertzaileen % 59,3 zela emakumezkoa (Biobasque eta Eustat, 2017).

Donostiak sektore horretan duen indarraren erakusgarri dira biozientzien eta bioteknologiaren arloan lan egiten duten zentroen metaketa berdingabea eta EAEko ospitale-gune handiena (Miramon inguruan). Horietan, ezagutzaren hainbat alor biltzen dira, eta gaitasun handia dago bioteknologiarekin eta indar handiko alorretako (diagnostikoa, birsortze-medikuntza,...) ikerkuntzaren jarduerarekin bat egiten duten diziplinetan. Hala ere, aipatu behar da lurraldean zientzia eta teknologiako eragile gutxi dagoela biozientzien arloan, enpresa bultzatzaileen partetikia dela eta zientzia-produktibitatea handitzeko beharra dagoela.

Donostiako BIOENPRESAK, 2009

ENPRESA	Fakturazioa /urte	JARDUERAREN HASIERA	LANGILE KOPURUA
Biobide	< 5	2005	19
Biofinder	< 5	2006	1
DRO Byosystems	< 5	2001	10
Ikerchem	< 5	2006	6
Iline Microsystems	< 5	2007	3
Lifenova Biomedical	< 5	2002	2
MD Renal	< 5	2008	5
Neos Surgery	< 5	2003	6

Donostialdeko BIOENPRESAK

ENPRESA	Fakturazioa /urte	JARDUERAREN HASIERA	LANGILE KOPURUA
Ikerlat Polymers (Lasarte)	< 5	2000	3
Litaphar (Azpeitia)	< 5	2001	7
Ondaz Scientific (Hondarribia)	< 5	2000	8

BANATZAILEAK

Quimibacter

hartzea

Donostiak, hortaz, lurraldean finkatuta dauden jarduera-arloak (adibidez, biozientziak eta nanozientziak) eta ezagutza eta talentua erakartzeko ekintzak konbinatzen ditu. Halaber, tokiko mikroklastarren garapena sustatzen du aukera-arloetan edo merkatu-hobi estrategikoetan. Adibidez, eta besteak beste: teknologia asistiboak, energia berriztagarriak, eduki digitalen eta ikus-entzunezkoen sektorea, surfa edo nekazaritzako elikagaiak.

²⁵ 2000. urtean, Eusko Jaurlaritzak Biobasque Estrategia ezarri zuen, EAEen biozientzien garapena sustatzeko.

Lurraldeari lotutako sektore bultzatzaileen edo aukera-hobien artean sektore hauek daude: nekazaritzako elikagaiak, nekazaritzako elikagaien industria (jasangarritasunari eta tokiko inguruneari eta osasunari oso lotuta dago) eta energia berriztagarrien (EB) jardura-sektorea (energia berriztagarriak, baita balio-kateko jarduerak eta enpresak ere: ekoizpena, transformazioa eta banaketa). Hori guztia bat dator 2020rako Euskadiko Estrategiaren (RIS3 Euskadi) goi-mailako espezializazio erlatiboko jardura bultzatzaileekin²⁶. Hirian energia berriztagarrien sektoreko 9 saltegi daude, eta, 2013an, energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren klusterrak 98 enpresa zituen; enpresa horiek 3.206 pertsonari ematen zieten lana. Enplegu horien % 30 (971 lanpostu) zuzenean zeuden lotuta energia berriztagarriekin.

Koadro honetan laburtu dira ezagutza aurreratuaren eta berrikuntzaren sistemak izan duen bilakaeraren berri ematen duten adierazleak.

			2001	2009	2015
Unibertsitate-ikasketak	dituzten		32.000	34.000	53.373 (2011)
Unibertsitate-ikasketak	bukatu				
dituzten biztanleen % (10	urtetik		21,5	32,2 (2010)	34
gorakoak)					
Gutxienez	bigarren	mailako			
ikasketak	bukatu	dituzten	49,5	68,98 (2010)	72,3
biztanleen %					
Zientzia,	teknologia	eta	22	34	31 (2016)
ikerikuntzaren eragileak					
I+G alorreko gastua,			1,44	2,23 (2008)	2,22
BPGd-aren %					
I+G jardueretako langileak			3.893 (2008)	4.824 (2011)	4.658 (2014)
Ikertzaileak			2.987 (2008)	3.224 (2011)	3.247 (2014)
Teknologia-parkeko	enpresa		39 (2003)	70	94
kopurua					
Teknologia-parkeko langile kopurua			1.730 (2003)	2.840	4.337
Zuatzuko EPko enpresa kopurua			86 (2003)	109 (2008)	158 (2012)
Goi-mailako ezagutzako zerbitzuen			4.949	7.114 (2007)	7.880
enpresa kopurua ²⁷					
Saltegi berriztaileen %			12,4 (2008)	21,3 (2011)	16,8 (2014)
I+G jarduerak egiten	dituzten			153 (2008)	173 (2014)
enpresen kopurua					

²⁶ Hauek dira jardura-eremuak: eraginkortasun energetikoa, aholkularitza, auditoretza, energia-ziurtagiriak, eguzki-energia fotovoltaiakoa, monitorizazioa, eraikuntzen energia-birgaikuntza, eguzki-energia termikoa, biomasa, ingurumen-eraikuntza, energia geotermikoa, haize-energia, itsas energia, energia minieolikoa, energia minihidraulikoa eta bioerregaiak.

²⁷ Haien definizioaren arabera (ikusi Eustat eta Donostiako Sustapena): goi mailako teknologiko edo puntako teknologiko zerbitzuak, ezagutzaren arloko merkatu-zerbitzu intentsiboak, ezagutzaren arloko finantza-zerbitzu intentsiboak eta ezagutzaren arloko beste zerbitzu intentsibo batzuk.

2.4.- HIRIKO BIZI-KALITATEA


Hiria bat dator giza dimentsioarekin, bai hiri-diseinuari bai hedadurari dagokionez. Hiriaren zati handi bat egokia da oinez nahiz bizikletaz ibiltzeko, dituen ezaugarri topografikoengatik. Era berean, Donostiako paisaien edertasuna eta hiri- eta ingurumen-alderdiak eta zuzkidura-alderdiak azpimarratu ditzakegu. Hiri-morfologia orekatua du eta etxebizitzaren eta bizitegi-lurzoru orokorraren arteko dentsitatea, estimazioen arabera, 65,04 etx./ha da.

Donostiak bi milioi eta erdi m² baino gehiago ditu berdeguneei dagokienez (parkeak, lorategiak...). Hori dela eta, soberan gainditzen ditu biztanleko berdeguneen m²-en ratioei buruzko gomendioak (Osasunaren Mundu Erakundeak 10 eta 15 m² arteko balioak aipatzen ditu). Parkeek, lorategiek eta hiriko berdeguneek (m²/pertsona) okupatutako azalera 34,9 m²/biztanle da hiri honetan (Eustat, 2008); hau da, gainerako euskal hiriburuek baino ratio nabarmen handiagoa du (4,94 y 21,4 m²/biztanle Bilbon eta Gasteizen, hurrenez hurren). Izan ere, Donostiako hiri-lurzoruaren % 37,3 parkeek, lorategiek eta hiriko berdeguneek okupatzen dute.

Hiriko inguruneetan hiri-garapenaren etapak hauteman daitezke, eta horien artean erdialdeko guneak nabarmendu ditzakegu, ingurumenarekin eta arkitekturarekin lotutako kalitateagatik eta hiri-kalitateagatik. Gainera, horietatik dira finantza- eta merkataritza-jardueraren gune enblematikoenak eta adierazgarrienak.

Hiriak **zuzkidura** handiak ditu **komunitate-ekipamenduei, prestakuntzari, laguntzari, osasunari, aisiari, kulturari eta kirolari** dagokienez. Azpiegitura horiek funtsezko elementuak dira lurraldearen eta gizartearen kohesiorako eta orekarako.


“Denontzako” hiria denez, udalaren ekipamenduen eta eraikinen hiru laurdenetan bermatuta dago irisgarritasuna (2005eko datuak).



Azpiegituren eta kultura-zentroen banaketa

Kultura	Udalaren Kultural Zentroak
1. Aquariuma	1. Altza KZ
2. San Telmo Museoa	2. Casares-Tomasene KZ
3. Tabakalera KGNZ	3. Egia KZ
4. Chillida Leku	4. Ernest Lluch KZ
5. Miramon Kutxaespacio	5. Larrotxene KZ
6. Untzi Museoa	6. Inbaurrondo Berri KZ
7. Diozesiar Museoa	7. Lolola KZ
8. M. Cemento Rezola	8. Lugaritz KZ
9. Kursaal Jauregia	9. Okendo KZ
10. Victoria Eugenia Antzokia	10. Aiete KZ

EKIPAMENDUEN BANAKETA (300 m-ko HURBILTASUNEN EREMUA)



Iturria: Donostiako Udalak. Garapen jasangarriko hiri eredua (GJHE)

- Donostiako ekipamendu moten banaketa eta horien hurbiltasuneko eremua
- Erakutsitako hurbiltasuneko erradioa 300 m da

Ekipamendu horien lurralde-banaketaren **hurbiltasun-analisi** batek (300 m-ko hurbiltasun-eremuen arabera) aditzera ematen du Donostiako biztanleen ia erdiak erradio horretan gutxienez 4 ekipamendu motara iristeko modua duela (egoera ohikoena 300 m-ko eremuan 3-4 ekipamendu motara iristeko modua izatea da). Biztanleen % 17k zerbitzu guztien ekipamenduak ditu 300 m-ko hurbiltasun-eremuan, eta biztanleen % 3k ez du ekipamendurik eremu horretan. Aldibereko hurbiltasun-mapan balio oso onak (5 edo 6 ekipamendu batera) dituzten zenbait eremu agertzen dira; besteak beste, Matia eta Benta-Berri Antiguak, Parte Zaharra, Amara Zaharreko zati bat, Egiako erdialdea, Gros eta Manteo arteko muga Ategorrieta-Uliak, eta Altzako erdialdea. Hiriaren aldirietako auzoek hurbiltasun-balio txikiagoak dituzte (0-2 ekipamendu): Igeldo, Ibaeta, Aiete, Añorga, Zubieta, Miramon-Zorroaga, Martutene edo Loiola. Azkenik, alde batetik Alza nabarmendu dezakegu; izan ere, biztanle ugari eta hurbiltasun-balio onak dituen aldirietako auzo bat da. Beste aldetik, aipatzekoa da Amara Berri ere; izan ere, biztanle gehien dituen auzoa denez, ekipamenduen zuzkidura hobe izan beharko luke, hurbiltasunari dagokionez.

Kirol-instalazioetara (udal-kiroldegiak) 3,6 milioi sarrera izan ziren 2015ean; hau da, kopurua Δ % 50 hazi zen 2008tik –*kirol txartela* duten erabiltzaileen kopurua (48.453) Δ % 23,5 hazi da 2008tik–. Hain zuzen, 16 urte baino gehiagoko biztanleen erdiak egiten du parte hartzeko kirolen bat.

Garrantzi handia du kulturarekin lotutako eskaintza pribatu zein publikoak (nagusiki publikoa da eskaintza), non sartzen baitira kultura-ekipamenduak (± 122), liburutegiak, museoak, entzunaretoak, antzokiak eta kultur etxeen sarea (Donostiako auzoetan dauden 10 kultur etxeak). Eskaintza horrek barne hartzen du udalaren esku-hartze soziokulturalaren zati handi bat. Gainera, Tabakalera (2015ean inauguratu zen) aipatu behar da, hiriaren kulturarekin eta sormenarekin lotutako erreferentzia berria baita. Aipatzekoa da, halaber, 17 liburutegiko sarea; izan ere, oso harrera ona du herritarren

artean (130.908 bazkide zituen 2015ean, eta kopurua % 46,6 hazi zen 2008 eta 2015 artean).


Donostiako udalak kultura-eragile gisa dituen presentzia eta jardura handiak ere nabarmengarriak dira. Azken urteetan areagotu egin dira, 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren urterako egindako lanari esker. Horren harira, *Olatu Talka* jaialdia nabarmendu behar da (200 jardura eta 34.000 parte-hartzaile 2015ean), berezi askoa baita.

Halaber, kultur etxeen esparruan jardura mota asko sustatzen dira. 2015ean 3.500 jardura inguru egin ziren, eta 319.073 erabiltzaile bertaratu ziren (jardura kopurua $\Delta\%$ 30,8 handitu zen aztertutako 2008-2015 aldirako). Horiek horrela, aztertutako aldian, $\Delta\%$ 63,6 handitu zen Donostiako kultur etxeetan egindako jardueretara bertaratutako pertsonen kopurua. Azkenik, Donostia Kulturaren bazkideen kopuruaren hazkunde progresiboa nabarmendu behar da, 2010ean 65.329 erabiltzaile izatetik 2015ean 90.125 izatera igaro baita (hau da, % 38 hazi da). Erabiltzaileen % 78 donostiarrak dira eta % 60 emakumeak.

Bizitegi-esparruari dagokionez, 90.000tik gora etxebizitza finkatu daude. Batez besteko antzinatasuna 46,1 urte inguru da (etxebizitzaren % 41ek ditu 50 urte baino gehiago), eta Donostiako etxebizitzaren batez besteko azalera 85 m² da. Orobat, % 77k igogailua du, eta konfort-indizea 74,1 da (EAE=100).

Bestalde, badirudi kezka eta eskarien artean etengabea dela etxebizitza eskuratzeari buruzkoa (etxebizitza-beharrei buruzko inkestaren arabera), hein handi batean prezio altuaren eraginez. Egoera horrek okerrera egin du egungo ekonomia- eta finantza-egoerarengatik.

Erabilitako etxebizitza librearen batez besteko prezioa 4.418 €/m² da, eta etxebizitza berri librearena 4.332 €/m² (Etxebizitzaren Euskal Behatokia eta Eustat, 2014).



Bizitegi-eraikuntzaren jardura nabarmen moteldu da krisi ekonomikoarekin, bai etxebizitza libreak bai babes publikoko etxebizitzari dagokienez. Horren harira, *Etxebiden* jaso dituzten etxebizitza-eskaerak gutxitu egin dira azken bosturtekoan; hain zuzen, 2008an % 63,6 izatetik 2013an % 58,6 izatera igaro dira. Gaineratu behar da hiri-garapenaren esparruan proiektatutako etxebizitza-parkeak babes publikoko bizitegi-parkea haztea ahalbidetuko duela (merkatu libreko etxebizitza bakoitzeko babestutako 3 egongo dira). Babes ofizialeko etxebizitzak (BOE) eta etxebizitza tasatuak egongo dira.

Gainera, Donostia **hiri "segurua"** da, eta delitu-tasa (% 31,7 2015ean) Bilbokoa (% 57,7), Gasteizkoa (% 39,9), Euskadikoa (% 38,4) nahiz erreferentziazko hirietakoa

baino nabarmen txikiagoa da. Joerari erreparatuz gero denborarekin kopurua handitu den arren, azken urteetan apur bat txikitu da delituen portzentajea 1.000 biztanleko. Pertzepzioari buruzko inkesten arabera, herritarrek seguru sentitzen dira hirian (biztanleen % 73 “beti sentitzen da seguru”). Hala ere, azken urteetan txikitu egin da pertzepzio hori (*Herritarren pertzepzioari buruzko inkesta*, 2008). Segurtasunari dagokionez, halaber, aipatu behar dugu haren pertzepzioa ere aldatzen dela generoaren arabera, eta nabarmenagoa dela emakumeen artean (*Berdintasun Diagnostikoan eta “gune kritiko”en mapan* ikusten da hori).

Koadro honetan laburtu dira hiriko bizi-kalitatearekin lotutako alderdiek izan duten bilakaeraren berri ematen duten adierazleak.

	2001	2009	2015
Etxebizitza familiarra	77.748	84.729 (2006)	90.216
Etxebizitza nagusia (%)	85,1	82,9 (2006)	84,2 (2014)
Etxebizitzaren konfort-indizea	74,1	75,1 (2006)	74,1 (2014)
Lurzoru urbanizatua (%)	23,6 (2005)	33	32,2
Artifizializatutako lurzorua (%)	32,6 (2007)	34 (2010)	42,7
Parke eta lorategien azalera (hiri-lurzoruen %)	23,2 (2005)	37,3 (2008)	-
Parke eta lorategien azalera (m ² /pertsona)	23,24 (2005)	34,9 (2008)	-
DSSko bizi-kalitateari buruzko gogobetetasuna (0-10)	8,85 (2005)	8,96 (2008)	-
Segurtasun-sentimendua Inkesta (0-10)	8,8 (2005)	7,7 (2008)	-
Segurtasuna. Delitu-tasa (‰)	‰ 25,5 (2003)	‰ 32,2 (2007)	‰ 31,7 (2015)
Ongizateko eta gizarte-laguntzako zerbitzuekiko gogobetetasuna Inkesta (0-10)	5,5 (2005)	6,24 (2008)	

2.5.- INGURUMENA ETA JASANGARRITASUNA

INGURUMEN-ESTRATEGIA

Garapen jasangarriaren alorrean, Donostia aspalditik ari da ingurumen-jasangarritasunaren kudeaketarako tresnak garatzen eta naturaguneak zaintzearen alde egiten (hiriaren azalera babestua –babes bereziko lurzoru urbanizaezina– udalaren lurren % 35 da). Hala ere, artifizializatutako lurzorua % 39 zen 2007an; ehuneko hori hazi egin zen 2011an²⁸ eta %42,73ra iritsi zen. Ordutik ez da gehiago hazi.

Agenda 21en I. tokiko ekintza-plana 1998an sortu zen, eta, gaur egun, *Agenda 21en III. tokiko ekintza-plana* (2015-2022) dago indarrean. Hiriak ingurumenarekiko duen sentsibilitate eta ardura handiaren erakusgarri, 2008an onartu zuen *Aldaketa klimatikoaren aurkako plana* (AKAP 2008-2013). Plan horretan, hirian askatzen diren eta berotegi-efektua sortzen duten gasen emisioa mugatzeko neurriak bildu ziren, batez ere garraioen eta etxebizitzaren sektorekoak. 2009an hiri-ereduari eta etorkizun jasangarri bat bermatzeko erronkei buruzko hausnarketa estrategiko bat egin zen, eta *Hiri Berdea 2030* estrategian aurrerapauso handiak egin ziren.

2010ean EBko *Covenant of Mayors* sinatu zen, energia-kontsumoa eta berotegi-efektua sortzen duten gasak murrizteko konpromisoa harturik (negutegi-gasak % 20 gutxitzea aipatutako urtetik), baita energia berriktagarrien proportzioa handitzekoa ere.

Gainera, *Energia jasangarrirako ekintza-plan* bat dago (tokiko ekintza planaren barruan, AKAP bezala) eredu-energetiko berri bat garatzeko, eta aurrezpena, eraginkortasun energetikoa eta energia berriktagarriak kontuan hartuko ditu. Bereziki azpimarragarriak dira, halaber, herritarren artean baliabideak zentzuz erabiltzea, ura aurrezte, eta energia berriak erabiltzea sustatzeko ekintzak, baita hondakinak murriztu, birziklatu eta hobeto kudeatu daitezela bultzatzekoak ere. Horretarako, prestakuntza-, sentsibilizazio- eta sustapen-kanpainak egin, eta nahitaez bete beharreko ordenantzak ezarri dira.

Ildo berean, 2014an *Mayors Adapt* ekimena abiarazi zen Europa mailan. Horren bidez sortu ziren klima-aldaketari aurre egiteko *Egokitzen estrategi*a (gaur egun garatzen ari dena), *Klimaren aldeko Alkateen Ituna* eta *Energy-Compact of Mayors* (2015). Hiru puntu lantzen dituzte: berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko neurri eraginkorrak hartzea, hiri klima-aldaketara egokitzea (hori martxan dago dagoeneko), eta energia segurua, jasangarria eta eskuragarria bermatzeko lan-ildoak ezartzea. Hain zuzen ere, azpimarratu behar da *2050erako Klima Estrategia* lantzeko prozesuan ari dela hiri, bere erronka, aukera eta erresistentzietan sakontzeko. Halaber, hurrengo hamarkadetan ingurumen jasangarri baten alde egingo diren ekimenak jasotzen ditu estrategia horrek.

²⁸ 2011ko hazkundearen ondoren, Zubietako Eskusaitzetako hirigintza-garapenaren ondorioz.


Horrela, “**ekonomia berdea**” sustatzeko prozesuan, hiri energia berriztagarrien alde egiten ari da, gorabidean den jarduera-sektore gisa. Horren barruan, *Energia berriztagarrien eta energia eraginkortasunaren enpresen klusterra* sortu eta bultzatu dela aipatu behar da; dagoeneko ia ehun erakunde biltzen ditu (sektore horretako Donostialdeako enpresak eta hogeitik gora eragile eta erakunde publiko eta pribatu). Estrategia horretan koka daiteke Enertic zentroaren proiektua, hau da, energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren sektorerako enpresen eta berrikuntzaren zentroarena.

Donostia aurrera egiten ari da hiri “berde” eta jasangarriagoa bihurtzeko; izan ere, zenbait urtean garatutako estrategiak hiriaren ingurunea eta ingurumenaren kalitatea hobetzen lagundu du. Halaber, oso balorazio ona ematen zaio herritarrek sentsibiltate handiagoa izateari eta gero eta erakunde gehiagok izateari ingurumen-kudeaketako sistema.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, airearen kutsadura da osasunerako ingurumen-arrisku handiena, European 400.000 heriotza goiztiar eragin baitzituen 2010ean²⁹, Donostiaren kasuan, airearen kalitatea ontzat edo oso ontzat jotzen da (egunen % 94an), jasangarritasunari buruzko urteko txostenaren arabera. Uraren balorazioa ere antzekoa da; kontsumoa % 37,8 murriztu zen 2001 eta 2015 artean.

Klima-aldaketaren aurkako borrokari eta 2020rako Europako Estrategiaren berotegi-efektuko gasen emisioa murrizteko helburuei dagokienez, Donostiaren helburua 2020rako % 20 murriztea da (1990ko maila abiapuntutzat hartuta); kopuru hori eta EBkoa antzekoak dira (2016ko Parisko klimaren goi-

bileraren ondoren, hauexek dira gas horiek murrizteko helburuak: % 40 2030erako eta % 80 eta % 95 artean 2050erako). Estimazioen arabera, Donostiako 2012ko emisioek (116,7) EAEko batezbestekoa (101,1) eta Europakoa (82,1) gainditu zuten, baina estatukoarena (122,5) ez zuen gainditu (erreferentzia-urtea 1990=100).



²⁹ WHO Fact sheet 2016 <http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs313/en/>, ikus http://elpais.com/elpais/2013/10/18/inenglish/1382105674_318796.html

BALIABIDEEN KUDEAKETA

Baliabideen kudeaketari dagokionez, esan behar da, energia-kontsumoak gora egiten jarraitzen duen arren, hobekuntzak egon direla hondakinen tratamenduan eta herritarren kontzientziazioan. Baina **hondakinen kudeaketa** hori guztiz mugatua da: 2015ean, sortutako hondakinen % 38 biltzen zen gaika (2008an eta 2003an % 33 eta % 28 ziren, hurrenez hurren) eta zabortegira doan ehunekoa txikitu egin zen (2003an % 72 izatetik 2015ean % 62 izatera igaro zen). Ikusi da, halaber, sortutako HHS kopurua orokorrean murriztu egin dela (2003an 1,29 kg/bizt./egun izatetik 2015ean 1,18 kg/bizt./egun izatera igaro zen, eta egoera horretan krisi ekonomikoaren eraginak kontuan hartzeko modukoak dira).


Aurrez adierazi den bezala, **eraginkortasun energetikoaren eta energia berriztagarrien** aldeko apustu argia egiten ari da (etorkizuneko sektore gisa). Hori ikus daiteke energia jasangarria ekoizteko sistemak ezartzeko prozesu progresibo eta hasiberrian, eta esan behar da ekoizpenak gorabeherak izan dituela urtetik urtera.

2015ean, Donostiako instalazioen gaitasunak, oinarrian, biogasetik, eguzki-energia fotovoltaiotik, biomasatik, energia geotermikotik eta eguzki-energia termikotik ateratako energia berriztagarrien iturriei zegokien. Zehazki, eguzki-energia fotovoltaiakoa

jardunean dauden udal-instalazio fotovoltaiakoetatik dator, eta horiek, guztira, sarera konektatutako 28 instalazio dira (937,9 kWp-ko potentzia dutenak). Aipatu behar da biogasaren ekoizpenak gorabehera nabarmenak izan dituela San Markoseko zabortegiaren baldintzengatik; izan ere, 2008tik ez du isuririk eta betearazpen-fasean dagoen zigilatze-proiektuan sartuta dago.

Illo horretan, *2020rako Europako Estrategiaren* helburuei dagokienez, energiaren azken kontsumoko energia berriztagarrien kuotaren arabera (erreferentzia-urtea 2005=100), Donostiaren kontsumoaren ehunekoa, zeina zenbatespenen arabera % 7 baitzen 2014an (% 7,5 EAEn), estatuko eta Europako batez bestekoetatik urrun dago (% 15,4 eta % 15, hurrenez hurren, 2013an). Halaber, 2020rako Europako Estrategiaren eraginkortasun energetikoa % 20 hobetzeko helburuarekin lotuta, 2009an *Energi Eraginkortasunaren eta eraikinen ingurumen kalitatearen Ordenantza* onartu zen, eraikin berrien eta berriztatuen errendimendu energetikoa hobeto bermatzeko. Herri-lanen lizitazioen baldintzetan irizpide bioklimatikoak eta eraginkortasun energetikoarekin lotutako irizpideak gehitu ziren. Gainera, energia-ziurtagiria zuten etxebizitzien kopuruak gora egin zuen (2008an % 6,9 izatetik 2015ean % 196,9 izatera igaro zen).

DSS
ENERGIA BERRIZTAGARRIEN PRODUKZIOA



Hurrengo atalean **mugikortasun jasangarriaren** sustapenaren inguruko informazioa bilduko da. Alor horretan, aurrera egin da hiriaren bereizgarri izan daitezen oinezkoentzako hiriko espazioa berreskuratzeko neurriak, garraio publikoaren eta autobus ekologikoen erabilera eta bizikletaren erabileraren sustapena.

Beheko koadroan laburtu dira hiriak ingurumenarekin lotutako alderdiei dagokienez eta *2010eko Donostiako plan estrategikoa* hausnartu eta ezartzeko prozesuaz geroztik izan duen bilakaeraren berri ematen duten adierazleak.

	2001	2009	2015
Hiri-hondakinen sorkuntza (HHS/kg/bizt./egun)	1,29 (2003)	1,34	1,18
HHSen gaikako bilketa (%)	28	33	38
Ur-kontsumoa (L/bizt./egun)	339	246	211
Airearen kalitatea (kalitate "oneko" eta "oso oneko" egunen %) ³⁰	96,16 (2005)	98,63 (2008)	94
CO ₂ emisioak (T CO ₂ /biztanleko)	8,5 (2005)	8,3 (2009)	6,3 (2014)
Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria duten etxebizitzak %	1,23 (2004)	6,9 (2008)	196,9
Instalatutako eguzki-plaka termikoen azalera (m ² /10.000 bizt.)	14,82 (2004)	38,55 (2008)	40,33

³⁰ 2015eko datua Eusko Jaurlaritzak ezarritako tarte berrien arabera kalkulatu da.

2.6.- LOTUTAKO GIZARTEA: MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA



Madril-Paris-Europa atlantikoaren arteko loturaren **nukleo logistik**o gisa, Donostiak eginkizun garrantzitsua du Europako garraio-sarean, errepideei zein trenbideei dagokienez, baina ez du bere ahalmen guztia garatu.



LURRALDEKO ETA METROPOLIKO MUGIKORTASUNA

Garraio-egitura handiek bilakaera gorabeheratsua izan dute azken hamarkadetan trafikoari dagokionez:

Pasaiaiko portuan, garraiatutako salgaien bolumenak beheranzko joera izan du 2003tik (3,5 tona 2009an), jardura progresiboki galdu da eta krisi ekonomikoak azterna handia utzi du. Hala ere, 2004an gorakada egon zen salgaien garraioan, eta 2015ean kopurua 3.739.000 T-ra heldu zen.



Donostiako aireportuaren (Hondarribia) jarduera beherantz doa progresiboki. Hala ere, baldintzatzaile teknikoak gorabehera, denboraldi jakin batzuetan eskaintza/konpainia berriak egotearen eragina bidaiarien trafikoaren kopuruan nabaritzen da (ikusi 2005 eta 2008 arteko gorakada eta galera; 2007. urtea nabarmendu daiteke, 466.457 bidaiari egon ziren eta). Estimazioen arabera, 255.071 bidaiari egon ziren 2015ean aireportuan.

Bestalde, **lurraldeko eta metropoliko mugikortasunari** dagokienez, joan-etorrien % 40 autoz egiten da, eta garraio publikoaren erabilera (autobusa, trena) txikiagoa da, joan-etorrien % 11 baino ez baita horren bidez egiten.

Altza, Intxaurrondo eta Loiolako geltokiak irekitzeak eta **Euskotreneko lineak banatzeko** prozesuek lurraldeko eta metropoliko garraio publiko ez-kutsatzailea indartzeko eta optimizatzeko ibilbidea markatu dute. Hala, dBus konpainiak ematen duen eta, hurrengo epigrafean adierazten den bezala, erabilera-tasa handiak dituen zerbitzua osatzen dute.

Honaino helduta, Donostiako lurraldeko eta metropoliko mugikortasunean eragin handia izango duten bi proiektu aipatu behar dira: alde batetik, Lugaritzeko eta Amarako geltokien arteko lotura, Ondarretako eta Kontxako (erdigunea) geltoki berrien bidez, Euskotrenek kudeatutako Donostialdeako topo/metroaren esparruan. Bestetik, abiadura handiko trenbide-linea³¹ eraikitzea, hiru euskal hiriburuak lotuko dituen (administrazio nagusia eta Eusko Jaurlaritza) eta Frantziako eta estatuko lineekin ere lotuko dena (geltokia gaur egungo Renferen geltokia dagoen tokian egongo da, eta Tabakalera ondoko espazioa nabarmen aldatuko duen proiektu bat izango du). Horrek, AHTaren bidezko loturaz gain, Frantziako linearekin zuzeneko trafikoa sortzeko aukera emango du, hala Baionarako loturetarako nola Pariserako loturetarako (aurreikusten da 2019ko udarako gauzatuko dela).

BARNE-MUGIKORTASUNA



Gutxi gorabehera, lan egiten duten lau donostiarretik batek udalerrian lan egiten du. Horri esker, bai eta hiriaren eskalari eta bizilekuaren eta herritarrek erabiltzen dituzten zerbitzuen eta ekipamenduen arteko “gertutasunari” esker, hiriak funtzionamendu egokia du eta jendeak ez du joan-etorri luzeegirik egin behar.

Garraio kolektiboa indartuz eta garraiobide “berdeagoak” (hala nola oinezkoentzako ibilbideak edo bidegorriak) eta horiek hirian txertatzea sustatuz, mugikortasun jasangarria izatetik gero eta gertuago dago hiria. Estrategien artean, lehenik eta behin *Mugikortasun jasangarri eta seguruko plana*-MJSP nabarmendu behar da. Haren bitartez, inbertsio handiak egin dira udaleko garraio-zerbitzua hobetzeko eta

³¹ 2017ko apirilean, hirugarren trenbidea egiteko lanak hasi ziren, eta horrek Europako eta Frantziako sare zabalarekin lotuko du hiria.

eraginkorrago bihurtzeko (ordezkatzeara/berritzea, garraio-flota “garbia”, linea berriak eta zerbitzuak hobetzea, etab.). Horrez gain, bizikleta erabiltzea bultzatu da, “30 guneak” sortu dira, zenbait bide egin dira oinezkoentzat, etab. Mugikortasun bertikalarekin (igogailuak) lotutako jarduketak ere nabarmendu behar dira, baita, ordenantza fiskalen bidez, ibilgailu hibrido eta elektrikoei emandako zerga-murriztapenekin lotutakoak ere.

Halaber, herritarrek sentikortu direla ikus daiteke, gero eta gehiago erabiltzen baitute garraio publikoa, eta gero eta gehiago mugitzen baitira motordun ibilgailurik erabili gabe (hala ere, kanpotik autoz dator jende gehiena, % 55,9). Hiri barruko joan-etorri ugari oinez (% 43) edo bizikletaz egiten da (nagusiki, etxearen, lantokiaren eta ikastetxearen arteko distantzia 2 km baino txikiagoa denean).



Gero eta gehiago **erabiltzen da bizikleta** (1991tik 2015era bitartean, joan-etorri kopuruak % 338,3 egin du gora), hein handi batean, bidegorri-sarea handitzen ari direlako. 2005ean 1,43 bidegorri-kilometro zegoen 10.000 biztanleko; 2015ean, berriz, 3,9 km 10.000 biztanleko (guztira, 73,2 bidegorri-kilometro daude).

Motordun ibilgailuei dagokionez: donostiarren % 24k autoa erabiltzen du; % 21k, berriz, garraio publikoa. Hiri-autobusaren erabilerak gora egin du 2003tik, eta 2016an 28,2 milioi bidaiari izan zituen (hazkundera progresioa izan da 2011tik; urte horretan 29 milioi bidaiarik baino gehiagok erabili zuten; ondoren behera egin zuen erabiltzaileen kopuruak, eta, 2013an, berriz ere aldatu zen joera)³². +dBus³³ garraioko udal-konpainiak ematen duen zerbitzuari oso balorazio ona ematen diote herritarrek, eta konpainiak

³² Udaleko sailaren arabera, urtean txartel arruntarekin gutxi gorabehera egiten diren 10 milioi bidaietetik % 70 emakumeek egindakoak dira: gizonak, berriz ere gehiago erabiltzen dute garraio motordun pribatua

³³ Donostia lehena da estatuan hiri-autobusaren erabilerari dagokionez, eta biztanle bakoitzeko bidaiari kopuru handiena du (165 joan-etorri/biztanle/urte). dBus Espainiako garraio publikoko konpainiarik onena izendatu zuten 2007an eta 2015ean. AENORen ziurtagiria du hainbat kalitate-ildotan (hiri-garraioko zerbitzuetan egiaztatutako hori jaso duen estatuko lehen hiria izan zen), eta Emakunde-Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiria (2010) jaso du halaber, antolamenduari eta zerbitzua emateari dagokionez genero-berdintasunarekiko duen konpromisoagatik.

autobus “ekologikoen” flota bat du; horien artean, nabarmentzeko modukoa da autobus elektrikoa. Ibilgailuen % 100k mugikortasun urria duten pertsonen irisgarritasuna ahalbidetzen duten plataformak dituzte.

Ibilgailu motordunen hazkundea nabarmengarria da (batez ere, moto kopuruak egin du gora), azken urteetan kopuruak beherakada txikia izan badu ere (beharbada, krisi ekonomikoaren eraginez). 2015ean, 109.294 ibilgailu zeuden hirian: 74.404 turismo-automobil eta ia 26.077 moto.

Donostiako erdialdeko “**istripu-tasak**” beherakada gorabeheratsua izan du urtetik urtera, eta, 2003an % 10,6 izatetik (istripu kopurua 1.000 biztanleko), 2015ean % 6,3 izatera igaro da (istripuen gorakada egon zen, eta intzidentzia-bolumen handiena 2008an izan zen; hain zuzen, % 13,64). Donostiak adierazi den denbora-tartean (2003-2015) izandako eboluzioa gainerako euskal hiriburuek izandakoaren antzekoa da. Halaber, harrapatutako oinezkoen kopuruak behera egin du. 2003an % 8,89 zen, eta, 2015ean, berriz, % 6,63. Donostiak denbora-tarte horretan, 2003-2015ean, izandako eboluzioa (-Δ% 40,4) bestelakoa da gainerako euskal hiriburuek izandakoaren aldean; izan ere, Bilbon pixka bat hazi da gorabeheren bolumena, eta Gasteizen nabarmen hazi da]. Azkenik, adierazi behar da 2015ean erregistratutako istripuen % 9,9n bizikletak zeudela tartean, eta % 9,5n ziklomotorrak.

Koadro honetan labur-labur adierazi dira mugikortasunarekin lotutako adierazleak.

	2001	2009	2015
Motorizazio-indizea (ibil./1000 bizt.)	520 (2003)	589	584
dBus garraio publikoa erabiltzen duen bidaiari kopurua	26.482.936 (2002)	28.460.380	28.243.454
Bidegorri-sarea (km)	14,9 km	56,3 km	73,2
Egunean bizikletaz egindako joan-etorri kopurua	4.012 (1999)	11.185	19.591
Bizikleta-erabileraren % (hiri barruko joan-etorriak)	% 1-2 (2000)	% 3,5 (2009)	
Bizikletako udal-zerbitzuaren erabilera (bidaia kopurua)	44.263 (2008)	167.659 (2011)	
Trafiko-istripuak hiriaren erdialdean (%)	17,6	9,33	6,3
Hegazkina (bidaiariak/urte)	281.000	466.459 (2007)	255.071
Portua (merkantzia-salerosketa) t	4.718.000	3.519.673	3.739.000

3.- E2020DSS ESTRATEGIA EGUNERATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

E2020DSS Estrategia eguneratzeko prozesuaren abiapuntua plan estrategikoa da. Jadanik adierazi den bezala, igarotako urteek (krisia eta haren ondoriozko eraginak, klima-aldaketaren aurkako akordio berriak, eta abar) arreta alderdi garrantzitsuetan jartzera behartzen gaituzte. Alderdi horiek, oro har, planaren dokumentu originalean jaso dira dagoeneko, eta dokumentu honetan garrantzi handiagoa hartu dute, egindako aldaketak direla eta. **Ez da plan estrategikoa berri bat, indarreko planaren errealitate berrietarako egokitzapena baizik, 2020 testuinguruarekin jarraituz.**

Eguneratze-fase hori bultzatzeko eta jarraitzeko lanak 2030 Estrategia eratu aurretiko eztabaida- eta hausnarketa-faseekin harmonizatuko da, baita lantaldeak abiaraziz ere. Lantalde horiek ideia-laborategiak egingo dituzte, hiriaren alor estrategikoei edo bereziki garrantzitsuak diren eta eguneraketarekin lotura argia duten alderdiei buruz.

Gizarte-kontseiluak **E2020DSS Plan Estrategikoa Eguneratzeko Irizpideak** finkatzen dituen dokumentua onartu zuen 2016ko apirilaren 11n egindako osoko bilkuran. Geroago, 2016ko urriaren 18ko lan-saioan, plan estrategikorako lan-batzordeari aurkeztu zion dokumentua. Dokumentu horren enuntziatua azpian laburtu eta jasoko da.

OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Urte hauetan zehar hainbat gauza gertatu dira, bereziki, gizarteari ondorio latzak ekarri dizkion **krisi ekonomikoa**. Krisiak aldaketa politiko eta ekonomikoak ere eragin ditu, eta horiek gaur eguneko eredu ekonomikoei buruzko hausnarketa egitera garamatzate; izan ere, bistakoa da “dena alda daitekeela” eta ezer ez dela egonkorra denborak aurrera egin ahala (eta krisi ekonomikoa horren guztiaren adierazlerik onena izan da eta da oraindik). Gizarteak gero eta hobeto daki **klima-aldaketa** asko handitzen ari dela eta horrek **ondorioak** dakartzala. Horien eraginez, erronka horiei erantzuteko, azkarrago hartu behar dira egokitzeko eta arintzeko neurriak. Halaber, bat datoz hiri jasangarria eta, ingurumenari dagokionez, bikaina lortzeko hartu beharreko neurriekin. Gizarteak aldatzen ari da, **biztanleriaren zahartzea** errealitate bat da dagoeneko. Adinekoak gizartearen gero eta zati handiagoa dira eta luzeago bizi dira; era berean, hirian rol aktiboagoa izan nahi dute. **Immigrazioa** hasiberria da, baina ikusteko modukoa ere bada, eta hemen gelditzeko etorri da.

“**Guztientzako**” hiri batek pertsona guztien inklusioa indartu behar du. Gizarte-, ekonomia- eta lurralde-berdintasunik ezaren aurka egitea herritar guztien bizi-kalitatea hobetzeko borrokatzea da. Pobreziaren gain, hainbat modutan eragiten digun gizarte-bazterketaz hitz egin behar dugu, askotan, konturatu gabe eragiten digu eta. Ez da segurtasunik egongo **hiri edo gizarte kohesionatua** eraikitzen ez bada. Hiri edo gizarte

batean bizitzeak ez du merezi baldin eta bertan bizi diren pertsona guztiek beren bizitza-proiektua betetzeko aukera izateko gutxieneko baldintzarik ez badute, bizileku eta kalitatezko ingurune batean egon ezin badira, ekipamendu eta hornidurarik ez badute (osasunekoak, sozialak, kulturalak, kirolekoak...) eta prestakuntzari, lanari eta gizarteari dagokienez garatzeko aukerarik ez badute.

2016ko Europako Kultura Hiriburua izatea lortzeak, besteak beste, hiriaren ikusgarritasuna handitu du, bereziki, nazioartean. Hori aintzat hartu eta horren arabera jardun behar da, kokaleku hori mantentzeko. Orain, erronka da gaur egunera arte mantendutako eredua jasangarria den ala ez aztertzea. Halaber, bisitariak erakartzeko gaitasuna nola mantendu aztertu behar da. Nolanahi ere, nortasuna ez da galdu behar, eta ezin da ahaztu hiria lehenik eta behin herritarrek direla (jarduera guztiek donostiarren bizi-kalitatea hobetu behar dute, zentzu zabalean). Bestalde, hiriaren proiektzioa eta irudia indartu behar dira, eta haren konektibitatea hobetu, kanpoko inbertsioak, enpresa-garapena eta talentua sustatzeko. Ereduekonomiko horrek herritarren lan-beharrei ere erantzun behar die; bereziki, gazteen beharrei. Gero eta hobeto prestatuta daude gazteak, baina lan-eskaintza eta profil profesionalak ez daude orekatuta, eta, gainera, aukera gutxi daude.

2010eko Plan Estrategikoan egindako eta *E2020SS Estrategian* berritutako **zientziaren eta berrikuntzaren** aldeko apustuak bultzada berria eta ikusgarritasun handiagoa behar ditu. Hiriak asko sufritu du alor horretan, batez ere, krisiak eragin kaltegarria izan duelako hedatzen ari zen sektore horretan. Oraingo une honek aukera eman beharko luke indartu behar diren bektoreak sakonago aztertzeko. Halaber, hausnartu behar da nola lagundu dezakeen hiriak alor estrategiko horretan, esparru hauei dagokienez: nanozientziak, biozientziak, neurozientziak edo informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (azken sektore horrek aukera handiak ditu eta asko eboluzionatu du azken urteetan). Hala ere, sormenezko industriekin lotutako enpresetan ireki diren bideen gainean modu aktiboagoan jarduteko unea ere izan daiteke.

Ingurunearen eta hiriaren eboluzioa aztertzeak aukera ematen du plan estrategikoa modu egokian orientatzeko edo berriz orientatzeko. Horretarako, garrantzitsuenak diren alderdietan sakondu behar da, eta, azken urteetako bilakaeraren eta etorkizuneko aukeren arabera, estrategikoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk identifikatu behar dira.

Testuinguru horretan, E2020DSS Plan Estrategikoa eguneratzeko prozesu bati ekitea proposatu zen. Horren ondorioz, **plan estrategikorako lan batzordeak** proposamen bat egingo luke (hiriko gizarte-kontseiluaren esparruan osatuko litzateke), batzordeak berak azter eta onar dezan.

Deskribatutakoaren arabera, “esparru-irizpide” sorta bat proposatu zen, plan estrategikorako lan batzordeari eguneratze-prozesu hori garatzeko aukera emateko, honako ideia hauek aintzat hartuta:

2.- Hiru ildo nagusi hartu beharko ditu kontuan:

- **Gizarte-kohesioari** heltzeko beharra, estrategiaren ardatz nagusi gisa eta gizarteratzea helburu gisa sartuta. Baloreak dira ardatz nagusia alor honetan.
- **Garapen ekonomikoa**, hiriaren jarduera nagusiekin lotutako funtsezko sektoreak (turismoa, ikus-entzunezko sektorea, kultura, merkataritza, gastronomia, zientzia eta teknologia, enpresentzako zerbitzuak...) garatzeko eta suspertzeko ahalegina eginez, dauden joeretara moldatuz, baina hiriaren idiosinkrasia alde batera utzi gabe; baita hiran dauden ikerkuntza-, berrikuntza- eta garapen-zentroekin lotutako ekintzetan sakontzen jarraitzea ere.
- **Ingurumena eta klima-aldaketa**. Bultzada handia eman behar diegu zenbait ekintzari, hain zuzen ere, ingurumena nabarmen hobetzeko aukera ematen dutenei, klima-aldaketara egokitzeko eta klima-aldaketa arintzeko mekanismoei bide ematen dietenei eta hiriaren ingurumen-jasangarritasunean aurrera egiteko aukera ematen dutenei (mugikortasun jasangarria eta ez-kutsagarria, kalitatezko espazio publikoak dituzten hiri-inguruneak auzo guztietan, zerbitzu publikoen gertutasuna, eraginkortasun energetikoa, kontsumo jasangarriak, etab.).

3.- Hori guztia lortzeko, **lankidetza publiko/publikoa** eta **publiko/pribatua** behar da, eta **gobernamendu**-modu berrietan aurrera egin behar dira. Donostiako bizikaltatea hobetzeko, herritarrek gehiago parte hartu eta lagundu behar dute, eta herritarrei partaide eta arduratsu izateko sentimendua eragin behar zaie, hirian kapital soziala sor dadin.

4.- E2020DSS ESTRATEGIA EGUNERATZEKO PROPOSAMENA

4.1. SARRERA

Aurrez aipatu den bezala, E2020DSS Estrategia eguneratzeko prozesu honek hirian indarrean dagoen estrategia berriz orientatzea dakar, estrategia horretan diseinatutako helburuak eta lan-ildoak atzean utzi gabe.

Helburua zera da, hiriaren premiazko erronkak lortzen lagunduko duten jarduera-ildo edo -eremu jakin batzuk lehenestea edo sustatzea, jarraian jaso den moduan.

4.2. IKUSPEGIA

Hiriaren plan estrategikoaren esparruan, ikuspegia hausnarketa estrategikotik dator, eta galdera hauei erantzuten die: nora iritsi nahi dugu? Nola ikusten dugu hiria etorkizunean?

Lan egiteko erreferentziazko testuinguru orokorra eta sektoreartekoa ematen du, eta talde edo erakunde bakoitzaren ikuspegi partikularra gainditzen du. Adostasun globalak aurkitu behar dira hiri-ereduari eta epe luzeko helburuei dagokienez. Horregatik ikuspegiak ez ditu erakunde edo eragile bakoitzaren nahiak biltzen beti; aitzitik, adostasunean oinarritutakoak biltzen ditu, indarrak batzeko. Horrela, hirian ezarritako sektoreko estrategia eta ekintza guztien “euritakoa” izango da, osotasunari koherentzia emango dio eta sinergiak erraztuko ditu eragile eta erakundeen eta hirian sustatzeko proiektuen artean.

Aipatutako irizpideetan oinarrituz, **plan estrategikorako lan-batzordeak** E2020DSS Estrategiaren ikuspegia eta helburuak aztertu ditu, eta nabarmentzeko moduko alderdi batzuen garrantzia azpimarratu du. Gainera, alderdi horiek lehenetsi beharko lirateke, izan diren aldaketak kontuan hartuta. Jarraian jaso den ikuspegia hausnarketa horren emaitza da.

IKUSPEGIA

Hiritarrak harro egoteko moduko Donostia, gizartearen balioez harro egoteko modukoa. Gizarte hori, hain zuzen, kohesionatua, inklusiboa eta konprometitua izango da (komunitateko balioak, berdintasuna eta irisgarritasun unibertsala sustatzen dituen, integratzailea, eta bai barrura zein kanpora begira solidarioa izango dena). Halaber, hiritarrak harro egongo dira bakearen alde lan egiten duen eta sormena eta gizarte-kohesioa bultzatzeko kultura sustatzen duen hiriaz.

Hiri irekia, eroso, dinamikoa, anitza eta kosmopolita; izaera eta nortasuna dituen eta, aldi berean, bere ezaugarriak mantendu eta sustatzen dituen, hala nola euskal kultura eta euskara.

Etorkizuna duen hiria, gazteak eta talentuak limurtzeko, erakartzeko eta atxikitzeko gai dena, baita belaunaldiarteko harremanak eta familia- eta komunitate-sareak sustatuko dituen ere; bertan bizitzea eta gozatzea merezi duena.

Donostia hori, ingurumenaren ikuspegitik, jasangarritasunaren eredu bat ere bada. Hiri lehiakorra, Gipuzkoako lurraldean aurrendari dena, eta gainerako euskal hiriekin eta Eurohiriarekin lotuta eta European integratuta dagoena. Nazioartean buru eta erreferentzia dena, turismo jasangarriaren eredu historiko gisa; hau da, helmugaren benetakotasunean eta bikaintasunean eta biztanleen bizi-kalitatearekiko orekan oinarritutako eredu gisa.

Gainera, I+G+B jarduerekin lotutako ekonomia sortzen jakin du, Gipuzkoako lurraldearen industria-ahalmenaren buruan, eta nazioarteko erreferentzia bihurtu da zientzian eta teknologian, zerbitzu aurreratueta eta sormenezko ekonomiarekin lotutako jardueretan.

Azken finean, pertsona bakoitzak bizitza-proiektua baldintza onenetan garatzeko moduko hiria (etxebizitza eta lan duina, aisiarako eta kulturarako sarbidea).

4.3. IDEIA NAGUSIAK

Plan Estrategikorako Lan Batzordearekin batera egindako hausnarketa-prozesuaren emaitza gisa, hiriaren ikuspegiaren ondoren helburu estrategikoen multzoa aztertu da, bai eta proposatutako lehentasuneko eremuak, lan-ildo eta -proiektu posibleak ere.

Prozesu horretatik abiatuta ideia nagusi batzuk definitzen saiatu gara, egindako ekarpenetan oinarrituta (jarraian, ideia horien adierazpen laburrak jaso dira). Horiek oinarri hartuta etapa honetan sustatu beharreko lan-ildoak eta proiektuak garatu eta lehenetsiko dira:

4.3.1.- ETORKIZUNeko EKONOMIA.

E2020DSS Estrategiaren hasierako dokumentuak barne hartzen du berrikuntzarekin eta sormenarekin lotutako alorretako etorkizuneko jarduera ekonomikoei heltzeko beharra. Izan ere, ezinbestean sakondu behar da hein handi batean 2010eko plan estrategikoaren esparruan erabakitako apustuaren bidez mende hasieran hasitako estrategian. Krisiak erakutsi duen bezala, planteatutako estrategian sakondu behar da, baina aldaketa garrantzitsuak egin behar dira, eredu aldatzeko ari delako, eta ondorioz eraldaketa ekarri baitu (ekonomia kolaboratiboa, ekonomia zirkularra, 4.0 industria eta IKTetan duen eragina, eta abar). Halaber, kontuan hartu behar dira aldaketa handiak izaten/jasaten ari diren hiriko jarduera errotuak ere (merkataritza, gastronomia, turismoa...), eta objektibotasunez aztertu behar ditugu aldaketa horien ondorioak; gainera, nahi dugun hiri-ereduari buruzko estrategia komuna planteatu behar dugu.

1.- EKONOMIA SORTZAILEA

E2020DSS Estrategiaren dokumentu originalean “*sormenezko ekonomiaren jarduerak sustatzea*” aurreikusten da, sormenezko ekonomiari (kultura, musika, softwarea, komunikabideak/ikus-entzunezkoak,...) lotutako **enpresak prestatzeko, sortzeko eta erakartzeko** ekintzen bidez. Ekintza horiek izan daitezke **barruti soziokultural** bat sortzea, kultura-eskaintza berriro planteatzea eta **Ikus-entzunezkoen berrikuntza gunea-PIA** eta **Tabakalera** proiektua garatzea.

Prozesuaren une honetan, beharrezkoa dirudi honako hauek azpimarratzea: espezializazio beharra eta gaitasun eta azpiegiturak (Musikene, Tabakalera, PIA eta abar) dakartzaten aukerak, hain zuzen, sormeneko ekonomiaren jarduerak sustatzeko laguntzaren oinarri gisa (bai prestakuntzari dagokionez bai jardueren garrantzia adierazteari eta horien espezializazioari dagokienez). **Gastronomia**, adibidez, hiriaren alor estrategiko bat, nortasunaren ezaugarri bat eta alderdi bereizgarri bat da, eta hiriak nazioarteko erreferentzia izaten jarraituko duela bermatzen duen sektorea da. Hori mantentzeko, beharrezkoa da eragilean (*Basque Culinary Center*, sektoreko profesionalak, ikerkuntza- eta teknologia-zentroak, nekazaritzako elikagaien sektorea,...) arteko koordinazioa eta lankidetzak, baita etengabeko berrikuntza, bikaintasuna eta prestakuntza lortzeko laguntza iraunkorra ere. Ildo berean, beharrezkotzat jotzen da azken urteetako aldaketa garrantzitsuak kontuan hartuko dituen estrategia argia egitea, baterako diagnostiko batean oinarrituz.

Ondo legoke **diseinuarekin** eta **modarekin** lotutako jarduerak ere kontuan hartzea. Izan ere, Gipuzkoan eta Euskadin merkatu- eta aukera-hobi handia antzeman da **industria-diseinuaren** alorrean. Horrek balio erantsi handia du eta tresna estrategikoa da produktu lehiakorragoak garatzeko. Bestalde, **Modaren tokiko Klusterraren Ekintza**

Plana antolatzen ari dira, sektorea hirian gehiago finkatzeko, nazioartekotzen laguntzeko eta merkatu berriak irekitzen laguntzeko helburuarekin.

Era berean, **diferentziazio-irizpideak** gehitzeko aukera aztertzen ari dira (*“made in”* edo Donostia/Gipuzkoan/Euskadin *“egina”/“pentsatua”*,...); gainera, **beste eremu geografiko batzuekiko lankidetza** sustatzearen egokitasuna nabarmendu da.

2.- ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA

Zientziari eta ezagutzari lotutako hiriaren esparruan, E2020DSS estrategiaren dokumentu originalak alorreko erakundeen arteko lankidetza eta koordinazioa handitzera bideratutako ekintzak sustatzen ditu. **Ezagutza sortzea eta garatzea eta hori enpresa-merkatura transferitzea** errazteko sinergiak sustatzea da helburua (ezagutzaren eta teknologiaren transferentzia unibertsitatearen mundutik enpresen mundura, oinarritzko ikerkuntzatik aplikatura, garapena eta komertzializazioa errazteko mekanismoak,...). Horretarako, honako hauek sustatu behar dira: **bikaintasun zientifikoa, teknologikoa eta unibertsitarioa, talentua erakartzea, ezagutza zientifikoa trukatzeko eta dibulgatzeko nodoak sortzea**, eta berrikuntzari eta sortzen ari diren alorrei lotutako jarduerak.

Berrikuntza-sistema indartzeko prozesuan (berrikuntza teknologikoa eta zientifikoa), hiriak ingurune erraztailea izan behar du, eta horren aplikazioa eta esperimendazioa sustatu behar dira (**city lab** edo **hiri-laborategi** gisa duen indarra nabarmendu behar da). Hauxe da helburua: eraginkortasun-maila handitzea, herritarren eskakizunei erantzutea eta teknologia-zentroetarako eta enpresetarako negozio-hobiak irekitzen laguntzea.

Oro har, plan estrategikoan proposatutako estrategiak baliozkoa izaten jarraitzen du.

Adostasuna dago zientziaren eta berrikuntzaren arloan Gipuzkoako eta Euskadiko estrategien bat egitea indartzeko premian.

Halaber, beharrezkoa da hirian indarrean egon den estrategiaren azterketan sakontzea, “zerk funtzionatu duen eta zerk ez” ikustea eta solaskideen arteko lankidetza aztertzea. Gainera, batuta dagoen sektore baten irudia sustatzea da asmoa, erakundeez haratago (batez ere, osasunaren/biozientzien sektorean), gaitasunak ikustera emateko (ikuspegi bateratua hiriaren/lurraldearen markaren bidez).

Azkenik, hiriko prestakuntza-egituraren barruan (unibertsitateak eta abarrak) prestakuntza duala bultzatu beharra dago gazteak prestatzeko funtsezko osagaia baita.

3.- EKONOMIA ZIRKULARRA ETA SOLIDARIOA

Ekonomia zirkularra jasangarritasun-politiketarik eta ingurumena gehiago errespetatzen duen eredua bilatzen sortu da. Europako Batzordeak eta Europako Parlamentuak babesa adierazi dute ekonomia zirkularrari buruzko ekimen sorta baten bidez (ekintza-plan bat barne). Helburua da eredu ekonomikoaren paradigma berri bat sustatzea, honako hauen zirkulua ixteko: hornikuntzarena, diseinuarena, ekoizpenarena, kontsumoarena, hondakinen kudeaketarena eta bigarren mailako lehengaien merkatuarena. Neurri horien artean ekonomia zirkularraren finantziatzeko plataforma bat dago, Europako estrategien barruan kokatzeko balioko duena.

“Ekonomia Zirkularra eta Solidarioa”, azken hitz hori ere barnean hartuta, elkartasuna egoera zailenean dauden pertsonen lana ematen dien hori ere badela ulertuta.

Hiria funtsezko elementua da garapen-eredu berria sustatzeko eta horrek aurrera egiteko. Aldi berean, ingurumen-onuren hartzailea da, eta onura horien iturburuan honako hauek daude: hondakinen murrizketa; hondakinen gaikako bilketa (aipatu behar da ezen bilketa eraginkortasun handienarekin egiteko premiaren inguruan bat etorrita ere, desadostasunak daudela hondakinen azken tratamenduaren inguruan); birziklatze-tasak handitzea; berrerabiltzea, kontzeptu orokor gisa; eta ekonomia modernizatzeko eta eraldatzeko ahaleginaren aukera ekonomiko eta sozialak. Horiek norabide jasangarriago batera bideratzen dute ekonomia: diseinuari aplikatutako berrikuntza eta produktuen berrikuntza (industria-berrikuntza, azken finean); konponketaren eta mantentze-lanen (besteak beste) azpisektoreen sustapena; zuzeneko eta zeharkako lanpostuak sortzeko ahalmena, birziklatzean oinarritutako hondakinak kudeatzeko politikarekin lotura duena, ... Gainera, honako hauek aipatu behar dira: gizarteratzeko aukerak, gizarteak behar dituen aldaketak baztertu gabe (kontzientziazioa, ohitura-aldaketak, elkartasuna), kontsumitzeko modu berriak (kolaboratiboa, adibidez) edo hurbileko nekazaritza-sektorea bultzatzen duen KM-0 elikadura.

4.- ALOR SOZIO-SANITARIOA

E2020DSS Estrategiaren hasierako dokumentuan aukera hau biltzen da: *“Ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea zahartzearen alorrean (osasuna, desgaitasunak, teknologiak, kultura-zerbitzuak, kirol-zerbitzuak eta abar) eta alor horri lotutako enpresa-sektorea bultzatzea”*.

Beharrezkotzat jo da **alor sozio-sanitario**aren eginkizuna indartzea, berrikuntzarako eta garapen teknologiko eta zientifikorako aukera gisa, baita eginkizun “sozialagoen” esparruan jarduera ekonomikoa garatzeko ere. Hori horrela, arlo horretan lan egiten duten elkarten eginkizun garrantzitsua onartu behar dugu, funtsezko eginkizuna baitute hirian zein lurraldean.

Zahartzeak ematen dituen aukera ekonomikoez hitz egiten denean, alderdi sozialena ahaztu ohi da, eta garapen teknologikoak eta zientifikoak nabarmentzen dira. Alderdi

hori gutxietsi gabe, garrantzitsua da ikuspegi honi alor soziala gehitzea; izan ere, berrikuntza teknologiko askok (adibidez, teknologia asistiboek edo laguntzako teknologiek) ez dute merkatuan sartzea lortzen, ez direlako ikuspuntu orokor eta “sozio-sanitario” batetik lantzen. Era berean, laguntza sozio-sanitarioak, zahartzea aipatzeaz gain, beste alor batzuk ere bildu behar ditu; besteak beste, desgaitasuna edo gaixotasun kronikoak. Hortaz, berrikuntza sozialaz ere hitz egin behar da.

Alor horretan beharrezkoa izango litzateke **“zainketen ekonomia”** gehitzea. Hau da, zainketekin (haurrena, desgaitasuna duten pertsonena, familia, , adineko pertsonena...) lotura duten jarduera ekonomikoak garatzea ekarpen interesgarria izan daiteke lanpostu intentsiboak eta erraz deslokalizatu ezin daitezkeenak sortzeko.

Halaber, azken alderdi horri dagokionez, ordaindu gabeko zainketak aitortu eta bere neurrian baloratu behar dira, garrantzi eta eragin sozial izugarri handia baitute; izan ere, halakoetan emakumeak dira nagusi eta ikusezin dira.

5.- EKONOMIA KOLABORATIBOA

Ekintzailatza sozialaren (alderdi teknologikotik edo helburu sozialetik harago doana) esperientzia berriek lankidetzako enpresak (horietan, emaitza ekonomikoak ez dira enpresaren arrakastaren adierazle bakarra) antolatzeke modu berriak aipatzen dituzte, eta asko garatu dira azken urteotan.

Ildo horretan, azpimarratu behar da toki-administrazioek sare sozialak eta baliabide digitalak erabiltzeko duten ahalmena. Horien bidez “herritarrentzat eta herritarrekin” motako plataformak garatzen dira, eta, aldi berean, plataforma horiek jarduerak susta ditzakete ekonomia partekatuaren (*sharing economy*) alorrean.

Alderdi asko dituen fenomeno da, eta hiriko alor sentiberei eragin diezaieke (ikusi, adibidez, Airbnb edo Uber plataformen eragina). Plataforma horietako batzuen bilakaera esponentzialaren eta aurretik zeuden ereduak etetearen eraginez, zaila da horien etorkizuna aurreikustea, baina bistakoa da memento honetan eragin handia dutela zenbait sektoretan, turismoan adibidez. Nolanahi ere, hiriak prest egon behar du ekonomia kolaboratiboko eredu berriak sortzen direnerako eta horien arabera jarduten jakin behar du, horiek erabiltzeko, arautzeko edo sustatzeko.

6.- HIRIAN ERROTUTAKO JARDUERAK

Hiriko sektore tradizionalekin lotutako erronka berriek (merkataritza, turismoa,...) aldaketei heltzea eskatzen dute, prozesu atzeraezineki aurrea hartzeko. Epe ertain eta luzerako estrategia bat egin behar da, eta epe laburrean jardun behar da.

6.1 MERKATARITZA

Diagnostikoan aipatu den bezala, **merkataritza hiriaren BPGd-aren % 12 da** (% 17,7 ostalaritza-jarduera gehitzen badiogu, azken hori BPGren % 5,7 baita), eta ehuneko handi horri modu nabarmenean eragin dio krisiak (2008 eta 2015 artean txikizkako jardueran % 16,2 jaitsi zen saltegi kopurua, eta ostalaritza-jardueran % 3,6).

Hasierako plan estrategikoaren dokumentuak premia hau jasotzen du: *“Kalitatearekin, sormenarekin eta berrikuntzarekin lotutako merkataritzaren, ostalaritzaren eta turismoaren arloko eskaintza lortzea, hiria bizitzeko eta gozatzeko leku erakargarri gisa identifikatzea ahalbidetuko duena”*. Erronka nagusiak modernizazioa, lehia eta berezitasuna dira.

Egungo egoera aipatutako aldaketen ondorioz sortu da, baina alderdi hauek ere eragina izan dute: merkataritzaren globalizazioa (Interneten bidezko erosketak, txikizkako merkataritzara bideratutako multinazionalak sortzea eta beste zenbait faktore, adibidez, indarkeria bukatzea; horiek merkataritza motak aldatzea eta inbertsio-presioa handitzea ekarri dute, hortaz, baita eskaria handitzea ere). Horren ondorioz, adierazi den bezala, merkataritzaren berezitasuna galtzen ari da. Goraka doan merkataritza, alde batetik, merkataritza-kate handiei dago lotuta, lurraldea “kolonizatzen” baitute inbertsiorako gaitasun handiagoa dutelako. Horren ondorioetako batzuk dira zenbait gunetan merkataritza-egitura bateratzea (erdigunean, adibidez) edo leku batzuetan eskaintzaren kalitatea galtzea, Parte Zaharrean, adibidez; horri Interneteko lehiarekin lotutako beste faktore batzuk (batez ere, beste sektore batzuetan) gehitu behar zaizkio. Hortaz, zeharkako estrategia gardena behar da, aldaketa-prozesuak kontuan hartuko dituen, eta, “klon” ereduaren aldean, hiriaren berezitasunen garrantzia nabarmenduko duena. Prozesu zaila da, izan ere, mundu osoan hedatutako fenomenoez ari gara, baina hiriaren erakargarritasuna berezitasun horren arabera ere bada.

Azken horiei gertuko produktuen kontsumoa bultzatu beharra ere gehitu beharko genizkieke.

Ostalaritzako jardueraren prozesua ezberdina bada ere, badira zantzu batzuk, bereziki eremu jakin batzuetan, eskaintzaren kalitatea/egiazkotasuna galtzeko joera dagoela pentsarazten dutenak.

Beharrezkoa da **merkataritza-estrategia** bat sortzeko hausnarketa estrategikoa egitea. Horren bidez, aldaketetara moldatzeaz gain, horiek merkataritza-eredu propio jasangarri eta irisgarri bideratuko ditu, hain zuzen, hirian integratutako eredu batera.

6.2 TURISMO JASANGARRIA ETA INKLUSIBOA

Turismoak hiria definitu du historikoki, eta jarduera nagusietakoa izan da eta izaten jarraitzen du, hori dela eta, Donostia hiriarentzat oparotasun faktore garrantzitsua izatera iritsi da. Horri esker, milaka lanpostu sortu eta sortzen hari dira, ez modu zuzenean soilik, hiriko beste sektore ekonomiko batzuen motor dinamizatzaile denaren aldetik ere

bai. Gainera, mundu osoaren aurrean, gure bisita-txartela ere badela esan genezake. E2020DSS Estrategiaren dokumentu originalean, aurrez aipatu den bezala, turismo-proiektu jasangarri bati ekiteko beharra aurreikusten da, 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren hasierako programan islatzen zen bezala. Eta “inklusiboa” ere esango genuke, hiriko irisgarritasun unibertsalaren baldintzak laguntzeko eta pertsona guztiek aisiarako eskubidea dutela bermatzeko.

Hala ere, hainbat faktoreren eraginez (indarkeriaren amaiera, 2016ko Europako Kultur Hiriburutza, Basque Culinary Center sortzea eta horren nazioarteko eragina, komunikabideetako preskriptoreetan eta erreferentziako gidetan oinarritutako turismoaren arloko komunikazio-estrategia, batez ere merkatu anglosaxoian, helmuga batzuei kalte eta beste batzuei mesede egin dien nazioarteko egoera eta abar) hiria arrakasta handia izaten ari da turismoaren arloan, eta horrek ere eragina du inbertsioak erakartzeko (ostalaritza-plazetan, merkataritza-jardueretan, ostalaritzan eta abar). Hau guztia onuragarria da hiriarentzat eta baita bertako biztanleentzat ere, eta horrela aitortu behar dugu, turismoa bultzatzen jarraituz. Bestalde, hazkunde honek beste era bateko ondorioak ere izan ditzake. Horrela, momentu jakin batzuetan, hiriko puntu zehatz batzuetan, turista/bisitari kantitate handia aurkitzen dugu. Honez gain, nortasuna galtzeaz, eskaintza banalizatzeaz, kalitatea galtzeaz eta kontrol ezaz edo inflazioaz hitz egin genezake. Baita, eskaintako plazen kontrolik ezaz ere, bereziki pisu turistikoak eskaintzen dituzten plataformen eskaintzak kontuan hartuz, egoera ilegalean dauden apartamentuak eta abar. Era berean, hiriko hainbat tokitan gentrifikazio-arriskua dago.

Jasotako faktore guzti hauek objetibatu eta erregulatu egin behar dira, arazo konkretuei konponbide konkretuak aurkituz, turismo-estrategia jasangarri bati ekiteko, hiriaren ekonomiarako hain garrantzitsua den sektore horrek nagusitasuna mantentzea hirirako kalitatezko eskaintza jasangarrian oinarrituta. Apartamentu turistikoen egoera erregulatu behar da, hain turistikoak ez diren auzoen parte-hartzea gainerako lurraldera bultzatuz, eta abar. Guztia arbuizatzeko jarrerak sortzeko lagunduko liokeen turismoaren, turisten eta bisitarien izendapen batean erori gabe.

Estrategia hiriko turismoaren egoera aztertuko duen hartzeko duen benetako baterako diagnostikoan oinarritu behar da. Gainera, eragindako sektoreetan egon diren aldaketek hirian izan duten edo izan dezaketen inpaktua ere aztertu behar da, konponbideekin batera. Izan ere, eskaintzaren kalitateak okerrera egiteak edo eskaintza bateratzeak (gastronomiaren, ostalaritzaren eta merkataritzaren alorretakoak, besteak beste) zuzenean eragin diezaieke eskariari eta hiriaren orain arteko ereduari. Hortaz, argi dago turismo-eredu jasangarria eraiki behar dela, guztiek onartzen dutena eta nahasitako eragile guztien interesak bateratzen dituen.

Azkenik, Donostiako turismoari buruzko gogoetari ere heldu behar diogu, ikuspegi zabalagoa eransteko; hala bada, “Donostia Region” kontzeptua gehitu ez ezik, helmugaren ikuspegi geografikoa –hiriaren barruan zein inguruko lurraldeekin lotuta– handitu beharra ere badago.

6.3 ZERBITZU AURRERATUAK

Enpresentzako zerbitzuen jarduerak hiriko jarduera tradizionala osatzen dute, eta “zerbitzu aurreratu” izenekoak (goi-mailako zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituzten eta unibertsitate-tituludunen ehuneko handia izaten duten enpresak; hortaz, esaten da haien baliabide nagusia ezagutza dela; horien artean daude, besteak beste: ingeniaritza-enpresak, ikerkuntzarako eta garapen teknologikorako zentroak, softwareak egiteko eta Interneteko zerbitzuetako enpresak, diseinu grafikokoak, publizitate eta marketinekoak, aholkularitzarekin eta merkatu-azterketekin lotutakoak, abokatu-langelak eta abar) “ezagutzako sektore intentsibo” (Knowledge Intensive Business Services-KIBS) deitutakoen barruan sartzen dira. Azken horien langileen % 33k goi-mailako prestakuntza dute (unibertsitateko edo graduondoko ikasketak), eta haien bilakaera desberdina izan da azken urteetan. Krisia hasi zenetik kopurua murrizten joan zen, eta 2013tik aurrera nabarmen hazi zen. Diagnostikoaren eguneratzean adierazten den bezala, Donostiako saltegien % 25,9 direla kalkulatu da.

Saltegi horien eta Gipuzkoako eta Euskadiko sektore industrialaren arteko lotura aukera bat da, eta estrategia bat behar du sektorea babesteko, sustatzeko eta bultzatzeko; izan ere, gazteentzako enplegu kalifikatua sortzen du.

Hortaz, beharrezkoa da zerbitzu aurreratuaren sektorea enpresetara gerturatzea egungo egoera aztertzeke eta hori bultzatzera eta sustatzera bideratutako estrategia bat sortzeko.

4.3.2.- GIZARTE-KOHESIOA.

1.- HIRI INKLUSIBOA

E2020DSS Estrategiak hiri inklusiboa eraikitzeke beharra proposatzen duen arren (bakea, desgaitasuna duten pertsonen belaunaldiarteko integrazioa, etorkinak hartzeko eta integratzeko politikak, eta abar), krisiaren ondorio argienetako bat da gizartearen eta bizi-kalitatearen hauskortasuna. Krisiak agerian jarri du bazterketaren aurka modu iraunkorrean lan egiteko beharra. Bazterketa mota asko daude eta oso anitzak, eta identifikatzeko zailak izan daitezke.

Hainbat txostenetako datuen arabera, gizartean desparekotasuna handitu da. Aipamen gisa adibide bat nabarmendu daiteke: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko inkestaren arabera (GPGBI, 2014), kalkulatu da Donostiako biztanleen % 4,5 gutxienez pobrezia-egoera **larrian** dagoela eta % 10,7 pobrezia **erlatiboko** egoeran.

Bazterketa-egoerak edo horietan egoteko arriskuak asko eta askotarikoak dira. Hona hemen batzuk: generoa, adinekoak, desgaitasuna, immigrazioa, lana, guraso bakarreko familiak, talde zaurgarriak, aniztasuna, etxebizitza, irisgarritasunarekin lotutako arazoak, euskararen erabileran ematen den berdintasun eza... Egoera arinduz, aurreikuspenak eginez eta pertsonak egoera horretatik ateratzen dituzten neurriak txertatuz jardutea hiriak benetako inklusioa lortzeko egin beharreko zereginetako bat da.

Finean, biztanle guztien inklusio soziala, ekonomikoa, politikoa eta bizimodu burujabea bultzatu eta sustatzea, aukera-berdintasuna bermatzeko, eta gizarte-sektore guztietan lan eginez desberdintasunak murriztearren.

Ilido berean, gizarte-kontseiluaren esparruan, erakunde arteko izaera duen inklusioaren aldeko protokolo/hiri-hitzarmen bat eratzea bideratutako estrategia bat diseinatzen ari dira alor horietan lan egiten duten kolektiboekin. Hori udaleko inklusio plan batekin osatuko da, gizarte-bazterketa saihesteko neurriak martxan jartzeko (neurri aringarriak, bai, baina pertsonak bazterketatik ateratzera edo egoera hori saihestera bideratutako neurriekin osatutakoak izan behar dira).

2.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BENETAKOA DEN HIRI BAT BULTZATZEA/SUSTATZEA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege bat dago (4/2005 Legea), eta 7. artikuluan berdintasunaren arloko zeregin sorta bat ezartzen die toki-administrazioei; hala ere, agerikoa da legeko testuko eskumenen bitartez orain arte egin dena baino ahalegin handiagoa eskatzen duela berdintasunaren erronkak.

Ilido horretan, Donostia/San Sebastiango Udalak “Herrietan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Sustatzeko Europako Gutuna” sinatu zuen 2007. urtean, eta hainbat berdintasun-plan jarri ditu abian toki-erakundean bertan. Uneotan III. Berdintasun Plana (2014-2018) dago indarrean, eta bertan jaso dira udaleko sailek helburu hori lortzeko hartu behar dituzten neurriak.

Dena dela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren kontua udal-administrazioaz gaindikoa da izatez, eta herriko bizitzaren hainbat esparrutan du eragina. Aipatutako Europako Gutunak ere aitortzen duenez, “Adibide ugari erakusten du formalki aitortu dela eta aurrerabidea egin dela; hala ere, eguneroko bizitzan oraindik ez dago benetako berdintasuna emakumeen eta gizonen artean. Egiaz, emakumeek eta gizonak ez dituzte eskubide berak. Oraindik ere badira desberdinkeria politiko, ekonomiko eta kulturalak.”

Ilido horretan, hiriak xehekiago aztertu eta hauteman behar ditu desberdinkeria-egoerak, eta proaktiboki jardun horietan, kontuan hartuta askotariko esparruei eragiten dietela. Esate baterako, diagnostiko-tresnei, zeinek generoaren arabera bereizitako datuak barne hartu behar baitituzte; horrez gain, baita jarduketa-eremu guztietan faktore hori zeharka aztertu beharri, horietako bakoitzean eraginez, berdintasunik eza saihesteari begira.

Hiriak lehen mailara ekarri behar du auzi hori, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko egiten dituen politikengatik erreferente izan. Sektore estrategikoetan (ekonomikoak, kulturalak, sozialak, politikoak, etab.) berdintasuna sustatuko duten neurriak hartu behar dira.

3.- ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZAREN BITARTEZ JAIOTZA-TASA BULTZATZEKO ESTRATEGIA BAT SUSTATZEA, HORRI ESKER AMATASUNA/AITATASUNA LAGUNTZEKO POLITIKA EGITEAZ GAIN FAMILIA ETA LANA BATERATZEN ERE LAGUNTZEAREN

Jaiotze-tasaren beherakadaren arazoa Europa mailan aztertu eta landu beharreko gaia bilakatu da, non hiri honen erantzukizuna eta betebeharra bertako kudeatzaileen artean lekuko politikak bultzatzea den, horrela, jaiotze-tasaren igoera, belaunaldien ezberdinen ordeztarria izan dadin. Hau guztia lortu ahal izateko, benetako proiektu fiskal sustagarriak, guraso bakarreko nahiz familia tradizionalen babes sozialerako politika egokiak eta erantzukizun partekatua sustatuz.

Gizarte hau, hiri hau, behar besteko lana egiten ari al da amatasuna/aitatasuna ahalbidetzeko? Badago, egiaz, seme-alabak izateko aukera benetan? Edo inguruko baldintzek horiek izatea eragozten dute edo horretarako oztopo dira? Ez du ematen erakundeetan eta gizarte osoan ahalegin nahikoa egin denik familia-politikei dagokienez.

Gaztetasuna modu ikaragarrian galdu da: egun, 15 eta 20 arteko tartean ia-ia 40 eta 45 artekoan dauden pertsonen erdia dago. Jaiotza-tasak 2,1 baino txikiagoak dira, eta, hain zuzen, ehuneko horrekin herri bat ondorengorik gabe gera daitekeela uste da (immigrazioz ezean). Diagnostikoan adierazi den bezala, hiriaren jaiotza-tasa oso urrun dago helburu horretatik.

Egia da erakundeek eskumenak dituztela hainbat mailatan, baina, era berean, egia da hiriak bere burua presta dezakeela, eta honako hauek beso-zabalik hartu: seme-alabak izatea erabaki dutenak, familiako bizitza eta laneko bizitza bateragarri egiteko aukera, hiria lagunkoiagoa izateko prestatzeko lana, (behar adinako haur-eskolak eta arrazoizko kostuan, familien aldeko zerga-politikak, haurrekiko lagunkoiak diren eremuak, haurrentzako menuak ere, haurtzaindegi zerbitzua, etab.).

4.- GAZTEEN/GAZTEENTZAKO ERAKARGARRITASUNA

Aurrez aipatu den bezala, gaztetasuna galtzea Donostiari nabarmen eragingo dion prozesu demografiko nagusietako bat da. Biztanleria asko aldatu da: 1981ean 20 urtetik beherako biztanleak % 21,9 izatetik 2015ean % 17,1 izaera igaro dira. Halaber, 65 urtetik gorako biztanleak % 12 izatetik % 22,86 izatera igaro dira denbora-tarte berean.

Horrek ondorio nabarmenak ditu eredu soziodemografikoaren jasangarritasunari, gizarte-dinamismoari eta dinamismo ekonomikoari dagokionez, besteak beste.

E2020DSS plan estrategikoaren helburuetako bat da gazteentzako aisialdiko eskaintza erakargarria sustatzea, eta hiriak alor horri dagokionez landu beharko lukeen profil estrategikoaren zati bati bakarrik heldu beharko litzaioke.

Donostiako umeei, nerabeei eta gazteei buruz 2014an eginiko diagnostikoak, beste ondorio batzuekin batera, adierazten du Donostiako gazteen iritziz garrantzi handiena duten eta gogobeteta ez dauden gaiak honako hauek direla: lana, batez ere, eta independentzia pertsonala edo emantzipazioa.

Hortaz, gazteak erakartzeko eta atxikitzeke estrategia batek ezinbestean eskatzen du krisiak eta hasi berri den susperraldiak plazaratutako zenbait alorretan jardutea. Alde batetik, etxebizitza eskuratzeko aukera eman behar da, baina, orobat, lan-aukera onak eta aisialdi osasungarria sustatu behar dira.

Azken finean, gazteentzat erakargarria den hiri bat behar da, gazteek bizitza Donostian egiteko aukera izan dezaten, eta hiriak hurrengo urteetan sortuko diren lan-arloko premiak estaliko dituzten gazteak erakar ditzan. Era berean, hirian benetan integratzeko prozesuak bultzatu behar dira.

4.3.3.- INGURUMEN-ESTRATEGIA ETA KLIMA-ALDAKETA.

E2020DSS plan estrategikoaren hasierako dokumentuak honako hau egiteko beharra biltzen du: *“ingurumen-estrategia bat sustatzea, hiriaren garapen orekatu eta jasangarria ekarriko duena”*. Horrek, besteak beste, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak bilduko ditu. Horretarako, aldaketa klimatikoaren aurkako I. planean (2008-2013) edo Hiri mugikortasun jasangarrirako planean (2008-2024) jasotako ekimenei eutsiko zaie.

Hala ere, azken urteetako gertakizunen ondorioz, klima-aldaketak hirien agendetan lehentasuna hartu du. Prozesu horren leherrarazlea 2015aren amaieran egin zen Parisko goi-bilera izan zen. Horrek aldaketa kualitatiboa ekarri zuen klima-aldaketaren erronkan, eta beste arlo batzuei eragin zien (jasangarritasuna, ingurumena, eredu ekonomikoa, eredu energetikoa eta abar). Karbono-emisioak % 40 murriztu behar dira 2030erako (hau da, hamahiru urte barrurako), eta % 80 eta % 95 artean 2050erako. Eta ahalegin horren zati handi bat hirietan egin behar da, bertan kontsumitzen baita karbono-emisioekin zuzenean lotutako energia gehien.

Helburu horiek ezin dira lortu laster ez badira eraldatze-prozesu handi bat eta eredu-aldaketa bat egiten, planeta bizia ahalbidetzeko, guztiontzako garapen orekatua duena. Lurraldearen kostaldean aldaketak sortzen ari dira, eta beharrezkoa da egoera

zailagorako prest egotea; izan ere, hurrengo urteetan itsas maila igoko den aurreikuspena dago.

Horregatik sortu da klima-aldaketara egokitzeko plana, eta DSS 2050 Klima Estrategia dokumentua lantzen ari dira. Horrek, besteak beste, aipatutako alorretan izango du eragina.

1.- ENERGIA

E2020DSS Estrategiak energiaren esparruari eragiten dio bi arlotatik. Batetik, klima-aldaketarekin eta hiriko energiaren kontsumoan eraginkortasun handiagoa lortzeko behararekin lotutako arlotik; eta, bestetik, “energiaren esparruan ikerketarako, garapenerako eta berrikuntzarako azpiegiturak sustatzearekin eta sektorearekin lotutako enpresa berriak sortzearekin” lotutako arlotik.

Klima50 Estrategiaren esparruan, eredu energetikoa eraldatzeko beharra eztabaidatu zen, eta horrek ekintza garrantzitsuak behar ditu hiriaren funtzionatzeko moduari dagokionez. Alde batetik, **eraginkortasun energetiko handiagoa** lortzera zuzendutako estrategia (birgaikuntza eta abar). Ildo horretatik hainbat ekintza egin dira (*Energi Eraginkortasunaren eta eraikinen ingurumen kalitatearen Ordenantza*, adibidez), baina hurrengo urteetan neurri berriak hartu beharko dira alor hau bultzatzeko; izan ere, Europako 2020rako Estrategiak eraginkortasun energetikoa % 20 hobetzeko helburua biltzen du.

Bestalde, egun daudenak baino energia berriztagarri gehiago ezarri nahi dira. Izan ere, hiriaren egoera nahiko urrun dago estatuko eta Europako batez bestekotik (% 7, % 15,4 eta % 15, hurrenez hurren). Gainera, energia-iturriak aldatzeko prozesu bat behar da, elektrifikazioa erreferentziazat hartuta.

Hori horrela, nabarmendu behar da energia berriztagarriak sustatzeko premiari buruz adostasuna dagoen arren, ez dagoela batasunik energia balorizazioko instalazioak energia sortzeko erabiltzearen egokitasunaren inguruan.

2.- MUGIKORTASUNA

Mugikortasunak hiriko karbono-emisioen % 60 baino gehiago eragiten du. Nahiko argi dago mugikortasunaren eredu jasangarria eta ez-kutsatzailea lortzeko ekintzak bizkortu behar direla karbono-emisioak murrizteko ezarritako helburuak lortzeko. Hiri batzuek nahiko epe laburrerako helburuak mahaigaineratu dituzte, eta horietan proposatu dute diesel-ibilgailuei hiriarentako sarbidea debekatzea. Bartzelonan, adibidez, 2018an 1996. urtearen aurretik fabrikatutako ibilgailuak debekatuko dira (hala ere, neurri hori airearen kutsadurarekin lotuta dago halaber). Aurreratuago dauden beste proposamen batzuetan, gasolina- eta diesel-ibilgailuak saltzeko debekua aurreikusten da 2025etik aurrera (Norvegia, Suedia...).

Edonola ere, egoera horiek oso gertu daude denborari dagokionez, eta horrek behartzen gaitu hiria aldaketa horretarako irmoki prestatzera. Horretarako, garraio publikoa, bai hirikoa bai metropolitarra, hobetu eta elektrifikatu beharko da (neurri batean, egoera horiek E2020DSS Estrategian jasota daude: *“Hiriaren konektibotasun gehiena lortzea, nahiz eskala metropolitarran/Gipuzkoa/Euskadi, nahiz beste maila geografikotan (Eurohiria, Euskal Hiria, Ipar/Hego eta Ekialde/Mendebalde ardatzak, Europa, etab.).*

Halaber, mugikortasun pribatuari dagokionez ildo beretik aritu behar da, eta kutsagarriak ez diren eredu-eraketarako aldaketa erraztu behar da, baita hirira garraio publikoan sartzea ere (disuasio-aparkalekuak eta abar).

Oro har, alor horretan jarduteko adostasuna dago, baina eguneratzeko prozesuaren esparruan desadostasun batzuk egon dira eredu-aldaketa horri heltzeko proposatutako azpiegituren egokitasunari buruz.

Halaber, Donostia irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzera bideratutako mugikortasun-politikak bultzatzen dituen hiria izatea proposatzen da, mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak eta bizikletan sar daitezen lagunduz, esate baterako. Alderdi horiek eta beste batzuk hiriaren Irisgarritasun Plan berri batean aztertuko dira.

3.- HIRIGINTZA

“Hirien berotegi-efektuko emisioak (BEG) zehazten dituzten faktoreek zenbait elementu barne hartzen dituzte: geofisikoak, hala nola klima eta hiriaren natura-baliabideak, eta egitura-elementuak, lurralde bakoitzean hartu izan diren erabakietatik datozenak. Horiek izan daitezke, besteak beste, energia sortzea, hiri bakoitzaren dentsitatea km^2 -ko biztanle kopuruari dagokionez, eta eraikitako ondarearen, hondakinak kudeatzeko sistemaren eta garraiorako sistemen eta moduen ezaugarriak. Donostialdeako lurralde-eta hiri-ereduak urtero sortzen diren BEGen emisioen zenbaketa mugatzen du, eta horri eragiten dio. Halaber, eragina du epe ertain eta luzean aurreikus daitezkeen etorkizuneko klima-egoeretara egokitzeko baldintzatzaileetan” (DSS 2050 Klima Estrategia). Ondorioetako batek, bakarra izan ez arren, zerikusia du lurzorua artifizializazio-prozesua (hiri-lurzor osoa, honako hauek kenduta: hiri-parke nagusiak, bide-azpiegiturak eta ekipamendu publiko eta pribatuak, industria bereziek okupatutako azalera, landa-lurzoruko ortuak eta landa-lurzoruko eraikuntzak) gelditzeko hiri-plangintza bat sortzera bideratutako jarduerekin.

Beste behin, klima-aldaketaren aurkako estrategia bat dator hiri-garapenaren ereduaren jasangarritasunaren beharrarekin. Indarrean dagoen plan orokorra behin betiko onartu zen 2010ean. Debate berriari zenbait mugak eragingo diote: alde batetik, klima-aldaketaren kontrako estrategia irmo batetik sortutako lurraldea artifizializatzeko mugek; eta, bestetik, hiri-garapeneko eredu jasangarri bati ekiteko mugek (mixtifikazioa, dentsifikazioa, mugikortasuna eta abar). Zalantzarik gabe, eztabaida hori beharrezkoa da, eta etxebizitza errazteko premia beharrarekin elkartu behar da. Arazo horrek, batez ere, gazteei eragiten die, baina ez haiei bakarrik.

DSS 2050 Klima Estrategia agiria (aribidean) eta klima-aldaketara egokitzeko plana (klima-aldaketa arindu eta horretara egokitzekoa) dira alor honetan irmoki jarduteko tresnak, hirigintza-sailarekin elkarlanean.

Hala bada, hirigintza inklusiboko eredu bat ezarri beharra nabarmendu beharko litzateke (besteak beste, irisgarritasun unibertsala bermatuz, edo, segurtasunik eza, bereziki emakumeentzat, eragiten duten gune kritikoak ezabatuz, edota umeentzako oinezko eskola-bideak bultzatuz).

4.- BESTE BATZUK

Klima-aldaketaren aurkako estrategiak eta horren ondorioetara egokitzeak gaur egungo ereduarekin lotutako beste alderdi esanguratsu batzuei ere eragiten die: osasunari, elikadurari edo hondakinen kudeaketari, besteak beste. Oro har, adostasuna dago alderdi horiei eta horien inguruan jarduteko beharrei buruz, baina desadostasunak daude alderdi horietako batzuetan jarduteko moduari buruz, bereziki hondakinen kudeaketan. Alderdi hori eragile politiko batzuek aipatu dute plan estrategikoa eguneratzeko prozesuaren esparruan.

4.3.4.- BIZI-KALITATEA

Eguneratze-prozesuan, beharbada 2020 Estrategian behar beste integratu ez diren zenbait alderdiri heldu behar zaiela ikusi da; alderdi horiek lotura handia dute bizi-kalitatearekin. Horregatik, alor horietan estrategia irmo bat sustatzeko aukera sortu da.

1.- HIRI-BERRIKUNTZA

Azken urteetan beste hiri batzuek hiri-berrikuntzan aurrera egin badute ere, Donostiak etengabeko hiri-berrikuntzako ibilbide historikoa izan du. 1813an hiria eraiki zen, 1863an harresiak suntsitu ziren eta Cortazar zabalgunea eraiki zen, errege-erreginen familia eta ahaideen turismoa areagotu zen, eta jarduera horren ondoriozko hiri-garapenak bultzada handia izan zuen 1912tik aurrera, Marino Tabuyo alkateari esker. Aurrerago, eredia berriz sortzeko prozesu horrek zenbait pasarte izan zituen, hala nola festibalak sortzea eta hainbat arlo eraldatzea (mugikortasuna, eraikinak gehitzea –nautikoa, adibidez-, eta abar). Duela gutxiago, beste zenbait eragile egon dira, besteak beste: Kursala, Basque Culinary Center, Carlos Santamaría Zentroa edo Musikene, espazio publikoarekin lotutako berrikuntza-programak (Txillidaren Haizearen Orrazia, Basterretxearen bakearen usoa, edo Oteizaren “eraikuntza hutsa”, besteak beste), edo Aquariuma, San Telmo Museoa eta Tabakalera birsortzea eta mugikortasun-eredua aldatzeak eragindako hiri-eraldaketa (oinezkoentzako bideak egitea, bidegorria, etab.).

Hiri-berrikuntza kontzeptu gisa jasota dago 2020 Estrategiaren esparruan, eremu horretan Institutu bat sortuz, Donostiaren arlo horretako gaitasunak aintzat hartuz (Goi-mailako Arkitektura Eskola, eta abar). Hala ere, ideia hori ez da oraindik gauzatu.

Edonola ere, hiri-berrikuntzako prozesuak beste alor batzuetan ere gertatzen ari dira; horren adibide dira smart city prozesuak (smart kalea, Replicate, Steep). Antzeko ibilbidea egiten ari da irisgarritasun-plana. Zenbait ekintza egiten ari dira, baina ez antolatutako plangintza baten esparruan. Plangintza hori bere garaian eratu zen (une honetan irisgarritasun-plan berri bat abian jartzen ari badira ere).

Aintzat hartu beharreko beste alderdi bat gobernamendua da. Lurraldean kudeaketa horizontalago baten bidez jardun behar da, eta herritarrek parte-hartze aktiboagoa eta zuzenagoa izan behar dute; azken hori hiriak kudeatzeko modua eraldatzen ari den beste alderdi bat da. Hiritarrekin konektatzeko eta eztabaidatzeko bultzada gelditzeko iritsi da; ez bakarrik “hiritarrentzat”, baizik eta hiritarrekin.

Azkenik, aukera-espazio berriak sortzea –Txominen, esaterako– diseinu berri bat gauzatu ahal izateko aukera da, eredu horrek irisgarritasun unibertsala eta inklusioa kontuan har ditzan.

2.- ERRESILIENTZIA

Erresilientzia kontzeptua ez da berria. Psikologiaren arloan, pertsona batek edo talde batek egoera traumatikoak, hala nola adiskide baten heriotza, istripu bat eta abar gainditzeko gaitasuna da. Kontzeptua beste alor batzuetan aplikatu ohi da. Hirien kasuan, krisi bati erantzuteko gaitasunari dagokio (azpiegitura kritikoen edo gizartearen alorrean). Hiriari krisi horiek gainditzeko gaitasun gisa aplikatzen zaio, bai eta egoera zentzu positiboan aldatzeko krisiak erabiltzeko gaitasun gisa ere (adibidez, uholdeen ostean, normaltasuna berreskuratzeko ahaleginak azpiegitura zaharrak edo zaharkituak eraldatzea eta modernizatzea eska dezake).

Zenbait alorretan alderdi horietako batzuk landu badira ere, alor horiek prest egon behar dira krisi bati erantzuteko (azpiegitura kritikoak, klima-aldaketa eta gizartearen alorra). Hiriak erantzun-gaitasun handiagoa eta hobe edukitzeko prest egon behar du, argi eta garbi identifikatu diren arriskuez harago. Erresilientziarako prest dagoen hiri bat izan behar du; izan ere, hiri erresiliente bat hobeto prestatuta dago etorkizunerako.

Horren harira, Europako “Smart Mature Resilience” proiektua lantzen ari dira. Proiektu horrek erresilientzia-eredu bat garatu nahi du Europako hirientzat, eta, horretarako, zenbait hiriren (Roma, Bristol, Glasgow, Riga, Vjle, Kristiansand eta Donostia) eta unibertsitateen arteko lankidetzatik abiatzen da. Bestalde, Tecnun goi-mailako eskola donostiarra da koordinatzailea. Hiriaren erresilientzia-gaitasuna garatzeko plataforma egokia izan daiteke.

3.- AUZOAK

2010eko plan estrategiko originalak programa bati ekiteko beharra jasotzen du, epe ertain eta luzean, auzoen azterketa egiteko. Horrela, Donostia orekatuta garatzea ahalbidetuko da. Halaber, programari auzoen ikuspegitik heldu beharko litzaioke. Gaur egungo hiri-ereduan, parte-hartzeak, irisgarritasunak eta zuzkidura-orekek bere gain hartu behar dute hiri orekatua egiteko nahia, auzo batean biziz gero bizi-itxaropen txikiagoa ez edukitzeko (inklusio-diagnostikoan emandako datuek adierazten duten moduan), edo zerbitzu publikoen zuzkidura nahikoa izan dadin.

Barrutien gaiaren sorrerak, halaber, ikuspegi desberdina ekarri du kudeaketari dagokionez.

Gobernantza-eredu berriak bultzatu behar dira aurrekontuetan, besteak beste, herritarrei inguru hurbilean eragiten dieten alderdien berri are gehiago jaso dezaten (auzoetan egin beharreko inbertsioak gehiago ezagutuz, adibidez), era horretan erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten.

Alderdi horiek aintzat hartzen dituen analisi edo diagnostiko bat egiteak aukera emango luke epe laburrean, ertainean eta luzean zenbait erabaki hartzeko, eta erabaki horiek kohesio-giroari lagunduko liokete. Giro hori ezinbestekoa da zalantzarik gabe, herritarren eta lurralderatutako zerbitzu publikoen dimentsioaren eta orientazioaren ikuspegitik.

Zentzu horretan, udaleko herritarren partaidetzaren sailak lan handia egin du auzoei dagokienez. Baina, antza denez eta aurretiaz aipatu bezala, gerturatze estrategikoago bati ekin behar zaio, zenbait faktore kontuan hartzeko aukera izateko; hala nola gertutasun-zerbitzu publiko eta pribatuak (merkataritza-erdiguneak, kultur etxeak, kirol-zentroak, gizarte-zerbitzuak, etab.) edo auzoei lotutako bereizitasunak edo ahalmenak, edota ingurumen-ikuspegia (kutsadura atmosferikoa, akustikoa, etab.)

4.- METROPOLIA / LURRALDEA / HIRIKO KOMUNITATEA

Zerbitzu-mankomunitateetatik haratago (Añarbe edo San Marko, esaterako), metropoli-eskalaren kudeaketari ekiteko beharra jaso izan da 2010eko eta 2020ko plan estrategikoetako lan-eskaletan ("geometria aldakorra" deitu ohi zaio horri).

2010eko plan estrategikoaren dokumentu originalean Donostialdeko Hiri Komunitate gisa adierazten den metropoli-eskala bat dago. Kontzeptu horrek hobeto islatzen du inguruneke herrien garrantzia, beren nortasunarekin edo bereizgarritasunarekin. Hiriaren inguruan kokatutako gunea barne hartzen du, lehen ingurabide batean. Bigarren eskalak Bidasoaren konurbaziotik Andoain/Tolosara bitarteko eremua barne hartzen du. Hirugarren eskalak lurraldeko hiriburuaren eta Gipuzkoa osoaren arteko lotura barne hartzen du. Laugarrenak Baiona/Donostia ardatza barne hartzen du, Euskal Eurohiria delakoa; eta, azkenik, gertuko influentzia-guneari dagokionez, Euskal Hiria (Bilbo, Gasteiz, Iruñea).

Eskala horiek desberdinak direnez, ekintza desberdinak behar dituzte, baina lurralde-eremu desberdinen (egoera desberdinean daude, gainera) kudeaketan jarri behar da arreta.

Donostialdeko Hiriko Komunitateak, lehenatasunez, lankidetzaren prozesu sakonagoa behar du, gaur egungo mankomunitateen ildoan baina izaera estrategikoagoarekin (Pasaialdea berronartzea, garapen ekonomikoa, gizarte-arazoak, mugikortasuna, eta abar).

Donostia Gipuzkoako hiriburua da. Hala ere, zenbait arlotan ez da hori aitortzen. Lurraldearekiko hiriburutza- eta buruzagitza-estrategia bat beharrezkoa da, bi norabideetan funtzionatu duena (lurraldetik hiriburuarekiko, eta hiritik lurraldearekiko). Donostiak ezin du aukera hori galdu.

Euskal Hiriaren eskalak, halaber, Donostia beste hiriekin lankidetzan jarriko duten lan egiteko moduak behar ditu, eta hiri horiei ematen zaien trataera berdina aldarrikatzeko jarrera eduki beharra dago.

Euskal Eurohiriaren arloa ezohiko egoeran dago, Iparralderekin lotutako bi eraldaketa garrantzitsu kontuan hartuta. Alde batetik, Akitaniaren lurralde-eremua aldatu da. Eremua handitu egin da, Poitou-Charentes eskualde zaharra txertatu baitute, eta Nafarroak bat egin du Eusko Jaurlaritzak eskualde horrekin egindako itunarekin. Bestetik, Iparraldeko metropoli-aglomerazioak bakarrean batu dira, eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzarekin zuzenean elkarriketatu dira. Azken egoera horrek funtsezko erronka bat sortu dio Euskal Eurohiriari, kostaldeko aglomerazioak eta hegoaldeko aglomerazioak eskala horretako solaskideak zirela aintzat hartuta. Duela 20 urte baino gehiago sortu zen eredia berri behar da. Testuinguru berri honetan, Iparraldeko parte-hartze handiagoa izan dezake, orain arte lortutakoa baino harreman-eredu sakonago baten bidez.

5.- 2016 ONDOKO KULTURA

E2020DSS Estrategiaren lehen dokumentuan adierazten denez, *“2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren hautagaitza aprobetxatuz, hiri kulturaren ikuspegitik berritzeko egiten ari den lan garrantzitsuak azpiegitura nagusiak amaitzea eskatzen du, hala nola Tabakalera, Musikene edo San Telmo Museoa. Izan ere, hurbiltasuneko azpiegitura kulturekin (kultur etxeak eta abar) eta industria kulturekin batera, etengabe berritzen den abangoardiako kultura-eskaintza sortzeko, produzitzeko eta erakusteko prozesuak zuzendu ditzake. Eredua eraldatu behar da, herritarrak (antolatuta egonda edo ez) jardura kulturalen sorreraren eta antolamenduaren protagonistak izan daitezen”*.

Kultura-instalazio garrantzitsu horien eraikuntza bukatu da. Europako Kultur Hiriburutzaren urtea amaitu da. Hiriak kultura-estrategia bati ekin behar dio, 2016an gertatu dena kontuan hartuta, eskaintzaren aldaketa handiek eragindako kultura-eredua “berrantolatzeko” eta “birsortzeko” aukera izateko.

Alde batetik, kultura-eskaintza (osorik hartuta: sormena, prozesu berriak, eta abar), 2016ko Europako Kultur Hiriburutzaren ondarea, Tabakalera irekitzea, Arteleku desagertzea, San Telmo Museoa berriro irekitzea, Kutxa Tabakalera sartzeko eta abar.

Antza denez, erakunde anitzeko ikuspegi publiko eta pribatu hori beharrezkoa da, instituzio bakoitzak egindako gogoetak alde batera utzita, egoera berri hori aprobetxatuz, kultura-ekimenak koordinatu ahal izateko.

6.- BALIOAK

Gizarte baten balio-egitura, haren eremu horretako kultura, funtsezkoa da hiriak egoki funtzionatzeko. Donostiak balioekin lotutako arloetan sakontzeko erabakia hartu du, hala nola bakearen eta donostiar guztien giza eskubideekiko errespetuaren kulturen, inolako salbuespenik gabe. E2020DSS plan estrategikoa onartu zenean, ETak indarkeria erabiltzen zuen oraindik. Gaur egun, indarkeria behin betiko uztea erabaki du, eta horrek testuinguru berria dakar, 2010ekoarekin alderatuta.

Alor horretan planteatutako gainerako helburuak baliagarriak dira oraindik, eta, zenbait kasutan, helburu horiek indartu dira (zenbait ekintzen bidez, esaterako, Donostia Lagunkoia planaren bidez). Gainera, zenbait gauzari dagokionez bat datoz; adibidez, desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzea eta horiek gizartearen duten parte-hartzea sustatzeari dagokionez.

Ildo horretatik, partaidetza-demokrazia gehiago lantzea planteatzen zuten helburuak baliagarriak dira oraindik, azken urteetan gobernarekin politikoaren ikuspegitik gertatu diren aldaketak kontuan hartuta.

Kalitateko eta pertsona guztientzako zerbitzu publikoak bermatu beharra nabarmendu beharko litzateke.

Halaber, argia dirudi hiriak pertsonak erakarri beharko dituela, gaztetasun-galerari buruzko datu kezkarriak leuntzeko. Horretarako, politikak eta programak egin behar dira zenbait arlotan, immigranteak eta euren dinamismo soziala hartzen eta gizarteratzen laguntzeko.

Bestalde, **benetako gizarte eleaniztun** bat garatzeko helburua baliagarria da oraindik. Horretarako, erakundearen eta gizartearen ahaleginek bat egin behar dute, eta euskararen erabateko normalizazioaren aldeko apustua egin behar da. Horrek ez du esan nahi beste hizkuntza batzuek (adibidez, ingelesak edo frantsesak) aurrera egitea eragotzi behar denik.

Azkenik, etxebizitza-politikei jarraitasuna eman behar zaie, herritar guztiek etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten, bereziki, gazteek eta gizatalde ahulenei. Etxebizitzaren prezioen presioaren bilakaera ikusita, lehentasun handiko erronka da hori.

Gainera, elkarrizketa-prozesuan nazioarteko elkartasunarekin lotutako balioak gehitzeko beharra planteatu zen. Halaber, Donostia agerian uzten ari da arlo horretan ere borondate ona duela, zalantzarik gabe.

“Bizikidetzarako Kultura” goiburuan jasotako estrategiak, 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren legatu modura, nabarmentzea garrantzitsua da, halaber, irisgarritasuna, inklusioa, aniztasuna eta beste balio batzuk ardatz dituzten proiektuen jarraipena bermatzearren.

4.3.5.- EKINTZARAKO TRESNAK

Plan batek eta haren proiektuek tresnak behar dituzte aurrera egiteko; lan-ildoak eta proiektu estrategikoak abiarazteko gai diren liderrak behar dituzte. Kontuan hartuta gehiegitan plangintza estrategikoaren funtsezko zati horri ez zaiola behar besteko arreta jartzen, E2020DSS Estrategia gaurkotzeko prozesu honetan egokitzen jo da tresna egokienak aztertzea jauzi hori errazteko, hau da, “egin behar da” horretatik “egitera” igarotzeko. Eta horretarako egokienak “lanerako tresnak” dira, hain zuzen, ekintza gauzatzea erraztuko dutenak, aldarrikapen soilaz haratago.

Ildo horretatik, Donostiak proposatutako proiektuak eta estrategiak egiteko dituen tresnen egokitasunaren inguruko hausnarketari ekin zaio. Hasiera batean, hiru alor identifikatu dira: lurraldea, udal-antolaketa eta azpiegitura bigunak, ukiezinak edo “ukitzeko zailak” izeneko alorra.

1.- LURRALDEA

Lurraldearen kudeaketa, zalantzarik gabe, hiri bateko estrategia ezartzeko tresna garrantzitsuenetakoa da. **Hiri-plangintza** lurraldearen garapena erregulatze esparrua da. Mugak jartzen ditu, baina aukerak ere ematen ditu, espazioa erabiltzeko eta antolatzeko dagokienez. Hortaz, tresna erabilgarria da jarduerak sortzea sustatzeko, etxebizitzak sortzeko, espazio publikoak sortzeko... Egungo *Hiri antolamendurako plan orokorra*, 2010/06/25ean onartu zena, hirian alor horretan jarduteko esparrua da.

Hiri-garapen jasangarriari ekiteak zenbait gairi buruzko hausnarketan sakontzera garamatza; hauexek dira gaiak: urbanizatzeko-maila, hiri-hedapena hiri-lurzoruen kolmatazioaren mende jartzearen egokitasuna, ingurune orekatu batean herritarrek duten bizi-kalitatea³⁴, zenbait irizpidetan oinarritutako hiri-ekintzen beharra. Irizpide

³⁴Etxebizitza-erabileren eta erabilera tertziarioaren arteko oreka bilatzen da. Horretarako, mota hauetako zuzkidurak erabiltzen dira: merkataritza-laguntzakoak, hezkuntzakoak, laguntzakoak, aisiakoak eta gizarte-harremankorak; horiek lurralde osoan banatuta daude. Halaber, zuzkidura

horiek, batez ere, erabileren eta hiri-funtzioen konplexutasunari eta mixtizitateari buruzkoak dira, baita trinkotasunari eta dentsifikazioari buruzkoak ere. Horiek bat datoz klima-aldaketa³⁵ buruzko azken ebazpenetatik sortutako lan-ildoekin. Era berean, krisi ekonomikoak eta proiektio demografikoak eta garapenekoak jarrerak hurbiltzen ari direla dirudi, etorkizuneko hiri- eta etxebizitza-ekintzak modu neurritsuago batean berriro dimentsionatzeari dagokionez. Eztabaida horietan guztietan, garrantzi handiagoa hartu dute jasangarritasunak, orekak eta lurraldearen efizientziak, baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzea eta gizarte-kohesioa lortzeko.

Beharrezkoa den hausnarketa horretaz gain, “aukera-espazio” batzuk daude, eta horiek kontuan hartu beharreko eraldatzeko (ekonomiari edo hiriari dagokienez, adibidez) gaitasun handia dute. Erreferentzia gisa, hauexek dira kasu batzuk:

Eskuzaitzetako poligonoa, 290.110 m²-ko sestra gaineko hirigintza-eraikigarritasuna duena. Batez ere industria-erabilerako jarduera ekonomikora bideratuta dago, eta jarduera industrialak edo garrantzizko beste jarduera mota batzuk ezartzeko “lurzoru-erreserba” handia da. Seguru aski, urte askoan okupatuko den azken espazio sortu berrietako bat da.

Beste aukera-espazio bat, dagoeneko okupatuta dagoen lurzorian dagoena, Pasaia Badiaren ingurunea da. Beste behin, egungo egoerak aukera ematen du Donostiako biztanleriaren zati handi bati zuzenean eragiten dion lurraldea erabakitasunez bultzatzeko. Lurralde horrek, hainbat gorabeheragatik askotan ikusi ditu proiektuak eta aukerak pasatzen, eta, besteak beste, zenbait udali eta estatuari eragiten dion ingurunean dago.

Azkenik, Txomin-Enea auzo berri/zaharra eta Urumearen ingurunea. Hiriko aukera-espazio handi bat da. Han, Txomin-Eneako hirigintza-operazioez (honako hauek biltzen dituena: etxebizitza-garapen berriak, zenbait lursailen berrurbanizazioa eta berrantolaketa, zuzkidura eta garraio-azpiegitura berriak edo jarduera ekonomikorako espazioak) eta Ametzagaiñako eta Urumeako ibai-parkeko (osagai erresilientea duena) paisaia- eta ingurumen-leheneratze operazioez gain, *Urumea Riverside District* izeneko Urumeako Ibarreko proiektu bat garatzen ari dira (horrek “smartizazioko” eta konektibitateko teknologia berritzaileen analisi-proiektuak biltzen ditu, sentsoreei, sistemaren kudeaketa- eta elkarreragingarritasun-plataformei eta eraginkortasun energetikoko proiektuei dagokienez). Proiektu pilotu hori *Smart City Plan-Hiri adimentsuaren planaren* buru da. Halaber, berriro nabarmendu behar da Tabakaleraren ingurunean eraldaketek, geltoki intermodalak eta tren-geltokiak Egiaren eta inguru horren biziberritzean duten eragina, baita Urumea ibaiaren garrantzia adierazteko dutena ere.

guztiak, aisiako espazioak, kirol-espazioak eta espazio produktiboak ahalik eta malgutasun handienarekin erabiltzea bilatzen da.

³⁵Donostian, 2050 Klima Estrategiak hausnarketa hori egin du eta klima-aldaketaaren aurka jarduteko eta ingurumena modu jasangarrian garatzeko lan-ildoak bildu ditu.

2.- UDALA

2010eko plan estrategikoak ildo estrategiko bat zeukan, “*Tokiko administrazio publikoa modernizatzea*” izenekoa. Azken urteetan egon diren aldaketa handien ondoren (gardentasuna, e-administrazioa eta abar) eta handik sortu diren erronka handien ondoren, beharrezkoa da administrazio eraginkorra prestatzea. Udala/antolaketa funtsezko egitura da politika publikoak burutu ahal izateko eta hiriaren estrategia errazteko.

Horregatik, udalak osatutako toki-administrazioak eta horren mende dauden elkarte publikoek tresna eraginkorrak behar dituzte proposatutako helburuak bete ahal izateko eta kudeaketarako tresna egokienak erabiltzeko. Udal-antolaketan hobetze-prozesuak modu sistematikoan martxan jartzea funtsezkoa da estrategia-mailan ere proposatutako erronkei erantzuteko administrazio eraginkorra lortzeko. Udal-antolaketa optimizatu behar da, proposatutako erronka nagusiei aurre egiteko zerbitzu publikoko tresna gisa eta politika berritzaileak sustatzeko tresna gisa.

Udalak jardura zuzenean zein elkarte publikoen bitartez egiten du. Elkarte horiek baliabide publikoak optimizatzeko sortu dira, baina, zenbait kasutan, egoera horrek kalte egin die koordinazioari eta udalaren irudi bateratuari.

Sailek eta elkarte publikoek garrantzi handiko eginkizuna dute zenbait proiektu estrategikotan, besteak beste, hauekin lotutakoetan: kulturarekin, mugikortasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, jardura ekonomikoekin eta turismoarekin.

3.- AZPIEGITURA BIGUNAK

Atal hau proiektu estrategikoetan eta lan-ildoetan hainbat modutan jardutea ahalbidetzen duten beste tresna mota batzuei buruzkoa da.

Askotan prozesu ukiezinak dira; adibidez: abiapuntuen azterketak edo hiriko estrategia sustatzeko edo prozesuak aktibatzeak (lantaldeak, foroak, topaketak...) funtsezkoak diren txostenak lantzekoak. Prozesu horiek proposatutako estrategiak abiaraztea edo eragile garrantzitsuak elkarren artean konektatzea ahalbidetu behar dute, lan-ildo jakin batzuk garatzen laguntzeko.

Tresna horiek, hain agerikoak ez diren arren, oso garrantzitsuak dira proiektu batzuk sustatzeko. Halaber, garrantzitsuak izan dira *Basque Culinary Center* sortzeko prozesuan edo 2016ko Europako Kultur Hiriburua izateko hautagaitza aurkezteko prozesua abiaraztean.

Estrategia Bulegoa hiriaren kudeaketaren arloarekin lotutako azpiegitura ukiezin nagusietakoa da. Zenbaitetan, lanaren zati gisa, proiektuen inkubazio-lanak egiten ditu, beste erakunde batzuek horien gidaritza hartzea ahalbidetzeko.

Beste azpiegitura batzuk ere garrantzitsuak dira; adibidez: **Kutxa Fundazioa**, izan ere, funtsezko lana egiten ari da hainbat arlotan, hala nola artean, ingurumenean, zientzian eta hezkuntzan, elkartasunean, kulturean edo osasunean; edo **Cristina Enea Fundazioa**, ingurumenaren arloan baita garrantzitsua.

Aipatutakoez gain, egokia da erakunde eta diziplina arteko gobernamentuari ekarpena egiten dioten eta aldi berean herritarren ahalbideak ahalbidetzen duten tresnak aipatzea, hala nola herritarren partaidetzarako plataformak. Ildo horretatik, argigarria da hiriko **gizarte-kontseiluaz** edo **sektoreko kontseiluez** hitz egitea, baina baita oso desberdinak diren beste ukiezin batzuei buruz ere. Horien adibidea da **Donostia Lagunkoia**: *Adineko pertsonentzako hiri lagunkoi* izeneko proiektu gisa hasi zen, baina gaur egun hiriaren “lagunkotasunaren” sustapen- eta partaidetza-tresna bat da, eta planaren jarduerak sustatu edo horietan aktiboki parte hartzen du (hainbat motatako eragilek osatzen dute). Hiriaren inklusiorako erakunde eta diziplina arteko lantaldea ere nabarmendu daiteke.

5.- ERANSKINA

5.1.- PLAN ESTRATEGIKORAKO LAN-BATZORDEAREN OSAERA (hurrenkera alfabetikoan)

	OSAERA COMPOSICIÓN	ERAKUNDEA ENTIDAD	ABIZENA APELLIDO	IZEN NOMBRE
1.	PP UDAL TALDEA	PP UDAL TALDEA	ALBISTUR	MIREN
2.	EH BILDU UDAL TALDEA	EH BILDU UDAL TALDEA	ALMIRALL	AMAIA
3.	MERKATARITZA BATZORTEA	SAN SEBASTIÁN SHOPS	ALMUEDO	Mª JESUS
4.	AUZO ELKARTE	PARTE ZAHARREAN BIZI AUZO- ELKARTEA (PARTE ZAHARRA)	ARBERAS	XABIER
5.	ADEGI (EPko lan batzordearen presidenteordea)	ADEGI	AYERZA	JOSE MIGUEL
6.	DESGAITASUN FISIKOAK DITUZTEN PERTSONEN KOORDINAKUNDEKO ORDEZKARIA	ELKARTU	BARROSO	RAQUEL
7.	GOBIERNO VASCO	EUSKO JAURLARITZA	BAZAKO	PERU
8.	INGURUMENEN KONTSEILUA	EMAÚS FUNDAZIOA	CABALEIRO	BEGOÑA
9.	KIROL KLUBEN BATZORDEA	DONOSTIA GIPUZKOA BASKET	CEA	GERMÁN
10.	ADMINISTRAZIO NAGUSIA	GOBERNUAREN ORDEZKARIORETZA GIPUZKOAN	ECHEZARRETA	BLANCA
11.	GARAPENERAKO SENTSIBILIZAZIOAREN ETA HEZKUNTZAREN KONTSEILUA	CALCUTA ONDOAN GGKE	EGUREN	IÑIGO
12.	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN SEKTOREKO ORDEZKARIA	IK4	ERDOZAIN	JOSÉ MIGUEL
13.	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (EPko lan batzordearen presidentea)	EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	ERKIZIA	AGUSTIN

14.	LEHENDAKARITZA (GIZARTE KONTSEILUA)	HIRIAREN URREZKO DOMINA	ETXENIKE	PEDRO MIGUEL
15.	OROIMEN HISTORIKOKO KONTSEILUA	GENOZIDIOAREN BIKTIMEN ELKARTEA AVICGE	EZKERRA	AINGERU
16.	GAZTERIAKO KONTSEILUA		FORNIES	HAIETT
17.	UDAL PLANEAMENDUKO KONTSEILUA	ONDAREAREN BABESERAKO ELKARTEA	GARCÍA-VELILLA	RAFAEL
18.	PSE UDAL-TALDEA	PSE UDAL-TALDEA	GASCO	ERNESTO
19.	DONOSTIAKO ALKATEA	DONOSTIAKO ALKATEA	GOIA	ENEKO
20.	ESKUALDEETAKO UDALERRIETAKO ALKATEAK (Donostialdea Oiarsoaldea, Bidasoaldea)	PASAIKO UDALA	GÓMEZ	IZASKUN
21.	EUSKARAREN KONTSEILUA	BAGERA ELKARTEA	GOÑI	DANI
22.	PNV-EAJ UDAL-TALDEA	PNV-EAJ UDAL-TALDEA	GURRUTXAGA	IÑAKI
23.	PRESIDENTEORDETZA (GIZARTE KONTSEILUA)	DONOSTIAKO ESTRATEGIA BULEGOA	KORTA	KEPA
24.	EMAKUMEEN KONTSEILUA	ARRATS	LASHERAS	AMAIA
25.	GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILUA	SARGI	MALCORRA	MIKEL
26.	IRABAZI DONOSTIA UDAL-TALDEA	IRABAZI DONOSTIA UDAL-TALDEA	MARTÍN	AMAIA
27.	OSOKO BILKURAREN ORDEZKARIA	GIPUZKOAKO MERKATARIEN ELKARTEA	MARTÍNEZ	IÑAKI
28.	MUGIKORTASUN KONTSEILUA	RACVN - REAL AUTOMÓVIL CLUB VASCO NAVARRO	MURGIA	LUIS
29.	MONDRAGON KORPORAZIOA	MONDRAGON KORPORAZIOA	MUTUBERRIA	JAVIER
30.	TURISMORAKO ETA GIZARTERAKO AHOLKU KONTSEILUA	DONOSTIA TURISMOA	NARVAEZ	MANU
31.	OSOKO BILKURAREN ORDEZKARIA	BABESA	RODIÑO PIJUAN	PATRICIA

32.	KUTXABANK	KUTXABANK- OBRA SOCIAL)	RUIZ	CARLOS
33.	KULTURA KONTSEILUA	KULTUR LANTEGIA TAILERRA	SALABERRIA	AITOR
34.	ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN SEKTOREKO ORDEZKARIA	TECNALIA	SAN SEBASTIÁN	IÑAKI
35.	GIPUZKOAKO GANBERA	GIPUZKOAKO GANBERA	SÁNCHEZ	ENDIKA
36.	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	ZURUTUZA	SEBASTIAN
37.		ELA, UGT, LAB ETA CCOO SINDIKATUETAKO ORDEZKARI BAT		



Donostiako Estrategia Bulegoa

estrategia@donostiafutura.net

www.donostiafutura.net